

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXIX Zenbakia.

1994

Urrilla-Gabonilla

AURKIBIDEA

	Orr.
Erritar esaerak. (Barruko azalean)	
Euskaltzaindiari 75 urte betetzean.	1
Euskara mestizua.- Latxaga.	4
Euskal izenak Erdiaroko euskeran.- Latiegi'tar Bixente.	7
Iruzkiña.- Pujana'tar Pedro.	15
Biblia. Jainko eta gizon arteko arremenak.- Anes.	25
Etxebarria'tar Bingen'egaz.- Solozabal'dar Paulin.	30
Euskaldunak munduan. Lavigerie.- A.A.A.	37
Erriari entzun eta bildutakoak.- Goikoetxea'tar I.	44
Jose Mari Albisu Sarasola.- A. Albisu.	46
Omenaldiak. A. Albisu eta Alta S. Onaíndiari.	51
Iztegi jatorrak aztertzen.- Zubikarai'tar Augustin.	55
Arruazu'ko euskera dala ta.- "Diario de Navarra"tik. (Barruko azalean)	
Esaldi jatorrak.- Oñatibia'tar Manu. (Atzeko azalean)	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

ERRITAR ESAERAK

- Laratzak esan eutson galdareari... zer baltza zaran...!
 - Beleak ez dau belakirik jaten.
 - Zelako aita, alako semea
 - Baleiteke ta baljtz, alkarren ondoan dabiltz.
 - Denpora ona, bera da jake ta gona.
 - Zorri aberastua txarrena.
 - Begi guztiak ez dabe negar era batera egiten... egun baten egiten.
 - Ezkondu arte larri, ezkondata gero barregarri.
 - Arin eta ondo azaroratu...
 - Guzurra esan neban mendian ta nj baiño lenago eldu zan atarian.
 - Buruko ulea ultzen eukan gizonak, buruko ulea ulduta eukan gizonari...
- "Asto buru uldurik ez dago".

EUSKALDUNEN KONTUAK

Markiñan, Ugartetetxe baserrian bizi zan gizon bat bere etxean seme bat ezkongei eukana, eta beste seme bat Cuban, oin Fidel Castro bizarrandiak agintzen daben aberrian, au Karmeldarra, Prailleen Erkiko "Definidore", ebatzaille, edo onulari izaten zana. Ba, onen aitak idatzi eutsan bein oneri Cubara, eta beronen esanaia auxe zan: "Onen anai Pedro ezkontzeko asmoetan ebillela, eta beiak txaaltxu bat egin eutsela". Lekaidearen aitari etxakon burura be etorri au euskeraz esan leikeanik, eta erderaz onantxek idatzi eutson: "Tu hermano Pedro anda en asmasionez de ezkonder La vaca ha parido una chala. Que soy tu padre". Euskeraz idatzi baleu, ezbai-gabe onantxe idatziko eban: "Zure anai pedro ezkontzeko asmoetan dabil. Beiak txaaltxu bat egin dausku. Zure aitak besarkatuten zaitu".

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia



Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAIÑTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, Bilbao

EUSKALTZAINDIARI

1994 urte onetan, Euskaltzaindiaren sortzeko 75 urte betetzean, Euskerazaintza, Euskeraren Erri Akademiak emen agertzen dan idazkia eskuz -esku emon eta agertu nai izan dio Euskaltzaindiari.

Idazkia Irailla'ren 16-ean aurkeztu eta utzi zan Euskaltzaindiak Bilbao'n daukan Egoitzan. Orretarako, aurrez eskatuta, gure lendakari eta idazkaria bertaratu eta Euskaltzaindikoko lendakari eta bere inguruko euskaltzain batzukin deduzko eta uneko ar-emanu euki zuten, bai eta itzez Euskaltzaindiari erantzun bat eskatu eta emotekotan gelditu ere.

Jakiña danez EUSKERAZAINTZA Madrid'en legeztatua izan zan 1980'ko abenduaren 10-eko erabakiz, eta Erri-zuduzko aldarrikapenez ere ezagututa geratu, au da, "interés social" dalakoz.

Bere aldetik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailieko agindu bidez onartua izan zan 1984'ko maiatzaren 21 'an.

Ara idazkia:

EUSKALTZAINDIARI

Erakunde orren 75'garren urteurrena dala ta zorionak eman ondoren, euskeraren egoera larriak bultzata, EUSKERAZAINTZAK.

ADIERAZPEN

auiek egin nai dizkizue:

- Euskera ain izkuntza eder, zoragarri eta arrigarria sortu zuten gure arbasoek. Itzen otsei bere irudia adierazteko, agertarazteko gai zirala badakigu: Altxerri, Ekain eta beste leiza-zuloetako irudiak lekuko. Baiña, zoritxarrez, gure eskuetara ez da orrelakorik iritxi, eta euskeraz idatzi ziran lenengo liburUak, beren ikasketak gazteleraz eta frantzeraz egindakoak idatziak izanik, bi izkuntza oietako idazkera edo ortografian osatu zituzten. Adibidez: Aita Astarloa'k, Urteco Domeca guztijetaraco Verbaldi Icasbidecuak. 1816.

Baiña euskal itz batzuen otsak erderazkoen berdiñak ez izanik, ots oiek adierazteko gauza ez izan, eta idazle bakoitzak bere aldetik jo zuan, euntalako naste-borrastea sorturik. Egoera onen berri emateko, Arturo Kanpion'ek erderazko "anarquía" itza erabili zuan.

Arazoa zuzentzeko zerbait egin bear, eta Aita Larramendi izan zan idazkerarako oññarri nagusia lendabizi jarri zuana: "Idazkerak, oguzkerari lotua egon bear du". Orixe bera aitortu zuan Mogel'ek. Kanpion'ek ala zion: "Ots bakoitzari bi irudi ezberdin ez eman, eta oguzkatzen ez diran itzak, kendu".

Arana'tar Sabin'ek, oiñarri oiek gogoan zituala, eta berak asmatutako ortografia eskeiñi aurretik, arteraiñokoan lan ontan jardundakoenak aztertu ta bakoitzaren akatsak agertu ta zuzendu zitun: Aita Arana, Kanpion eta Azkue'nak batik-bat.

Sabino'ren eskeintza onek, beste izkien artean, J, X ta TXiren otsak zuzendu zituan. Adibidez: J otsa adierazteko, Aita Arana'k, Y S eta Y erabiltzen ditu; Azkue'k, EE.

X'en otsa adierazteko, Aita Aranak, S; Kanpion'ek CH eta S, S², eta Azkue'k, S, Z³, eta S, z3.

TX otsa adierazteko, Aita Arana'k, Z eta TS; Kanpion'ek, CH; eta Azkue'k, TS ta TS, TZ'.

Aranak eskeintza au, 1896'an egin zuan, eta andik bost urtera idazle bakoitza bere aldetik zebillela ikusi ta erabat zuzentzeko asmoz, "Euskera Alkartea" edo "Asociación euskerista" sortu ta urte ortan, 1901'ean, gai bakarra, ortografia bateratzea zala, Batzar Nagusi bat ospatu zan. Adema-Zalduby lendakaria, eta Kanpion eta Arana lendakari-ordekoak. Urrengo urtean, 1902'an, Ondarrabia'n egingo zan beste Batzarra, baiña, au dala ta ori dala, egin gabe gelditu zan.

Sabino, 1903'an il zan, eta andik amazapi urtera, Euskaltzaindia sortu ta bi urte baiño len, erakunde onek, 1920'ko urtarrillaren 8'an, Sabinok asmatutako itzen irudiak erabat onartu zituan. Andik 1936'garren urtera arte, ego-aldeko iya idazle danak, ortografia orrekin idatzi gendun.

Gerratea bukatu ondoren, eta politika-kutsu aundiarekin, Bayona'n eta Ermua'n egindako Bïlleren bultzadaz, Arantzazu'n eta Bergara'n egindako batzarretan, itzen otsen irudi auek aldatzea erabaki zan: H'a sartu, IN idatzi ta Ñ irakurri, IL idatzi ta LL irakurri, Y kendu ta I idatzi, naiz Y otsa oguzkatu: Ñ, LL ta Y kendu, beraz.

Begien aurrean dago, Larramendi, Kanpion, Mogel eta Sabino'k ezarritako idazkera-oiñarriak erabat autsi egiten dituztela aldaketa oiek danak.

- Euskaltzaindiaren bultzadaz egiten ari dan euskalkien bateratzeak euskalkien, eta batez ere bizkaieraren, eriotza dakarrela argi ta garbi ikusten da. Mitxelena'k bere garaiean aitortu zuan.

Bide au, gure iritiziz, bide okerra da. Euskera ez da gaztelera bezela era batekoa bakarrik, laukoitza baizik: Lapurtera, Zuberera, Gipuzkera-Naparrera eta bizkaiera. Lauak oiñarri berdiñekoak izan arren, bakoitzak bere eliztia ta iztegia ditu, bakoitza izkuntza osoa izateraiño. Euskalki bakoitza, euskera osoa da, euskera osoaren oiñarri eta araudi edo legedi osoa, bere baitan dualako; ala, euskalki batek galtzen duana, euskera osoak galtzen du.

Gai ontan ere, Arana'tar Sabin'ek, euskalkien bateratzea nola egin bearko litzaken idatzita utzi zuan.

Euskera bezela grekera er, era askotakoa zan: 16 izkelki ba-zituan, idazkeran lau bereziak ba-ziran ere: Jonio, Eolio, Atiko eta Dorio. Laurak bateratu naiean, -orain emen batua bezela-, koine asmatu zuten. Urteetan koine ontan jardun da gero, izkuntzaren bizitasuna erabat galdu arazi zutela ta, orain dala gutxi, koine alde batera utzi ta lengo bideetara itzuli dira.

Orixe bera gertatu da Danmark'eko izkuntzarekin.

Euskerarekin beste ainbeste gertatzea nai ez badegu, garaiz aztertu ta bidez aldatu bearra ikusten degu.

- Euskera erakusteko erak ere azterketa sakon baten bearrean daudela esango genduke.

- Zer esanik ez, mezu-bideetan euskalkien erabilkerak.

Guzti ori adierazi ondoren, EUSKERAZAINTZA'k, -Madrid'ko Barne-Zaintza Ministeritzak 1980'ko abenduaren 10'eko 4.373 erabakiak legeztatu eta Erri-Zuduzkotasunaren Aldarrikapena ezagutua, eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailleko 1984'ko lorailaren 21'eko eginduak onartua izanak-.

ESKEINTZA

au egiten dizue:

Goian aitaturako gai guztiak sakon eta patxadan aztertzeke, alik azkarren, bi Erakundeen ordezkarien artean billera nagusi bat egitea. Alde bakoitzetik lau bat lagun naikoak lirakela derizkiogu.

EGITARAUA

ORRELAKO ZERBAIT IZAN LITEKE:

- 1.- Euskaltzaindiak 1920'ko urtarrillaren 8'an Arana'tar Sabin'ek asmatutako ortografia onartua, aztertzea.
- 2.- Bayona, Ermua, Arantzazu eta Bergara'ko Batzarretan onartutako ortografi-aldaketak aztertzea.
- 3.- Aldaketa oien politika-kutsua.
- 4.- Euskalkien bateratzea: Euskaltzaindiak egindakoa, Aranak eskeñitakoa, eta Euskaltzaindiak eratuta 1980'an Lejona'ko Batzarrera inguratu ziran atzerritar filologoen iritziak.
- 5.- Grece eta Danmark'en egindako izkelki-bateratzearen porrota.
- 6.- Euskera-erakusketa erak.
- 7.- Mezu-bidestan euskalkien erabilkera.

EUSKERAZAINTZA'ren eskeintza au gogo onez artu ta, lenbaitlen, alka isketa auek egiteko egokiera izan dezagula.

Lendakaria

Idazkaria

deo 4 u c tan 1 lanti e

Orauda Wvt cu



E SKARA MESTIZUA

"Mestizua", itz gordin eta itsusi ori ez da gurea, ez da euskalduna. Izen ori aipatzeak nazka ematen dit. Euskara garbian, -nasta edo- nasia, naikoa izango litzake esanai berdiña izateko. Ñolako kaltea egiten digun bide oker orrek nolabait agertzen digu. Zenbaterañoeko nazka ematen dien batzuei euskararen egokitasunak, ortarako indar berexia du, baita ere.

MESTIZAJEA

Izkuntza indartsuak askotan izkuntza txikiak bereganatu dituzte. Lendabizi izkuntza nagusiaren itz batzuek sartu, gero esaldi osoak, egun batean baita aditza utzi edo galdu, azkenean ito; izkuntza txikia mordollo bat egiña biurtu. Ori askotan Arneriketako Indio'tarrekin gertatu da. Bertako izkuntzak ondo kutsatua utzi dituzte erdararekin. Azkenean norberaren izkuntzak uzten dituzte ta arrotzarena artzen. Orixe bera gertatu zaigu guri. Orrelaxe galdu zaigu euskara Ñaparroa'ko lurralde geyenetan, baita Araba'n eta Bizkai'ko adar galanta batean.

ASPALDIKO GAITZA

Latin izkuntzatik euskararat sartu zaigun itz pilla ba dugu, adibidez "PAKEA", "LEGEA", "BIDEA", "MENDIA", "GALTZARRA", "KALOSTREA" eta abar.

Elizaren bidez, erlijioari buruz ikaragarritzko izkuntzaren nasketa sartu zitzaizgun.

Juan de Irazusta, Hernialde'ko erretorena daukagu eredurik ezaugarriena. Oraindik gaur esaten zidan buruz aiton batek Hernialde'ko erretorak Astete kristauikasbidetik egindako itzulpen batean ikasitako esaldia: "Nor da Jaungoikoa?". "JAUÑGOIKOA, INFINITAMENTE PODEROSO TA SABIOA, PRINZIPIO TA FIÑA GAUZA GUZTIENA". A ze zozua au egin zuna! Ori egiten etzuen siesta garai askorik galdu.

Juan de Irazusta'ren lendabiziko itzulpenaren argitaldiak naikoa esaten du: "*Doctrina Cristiana Aita Gaspar Astete Jesuitac erderaz eguiña. Ipiñi zuan eusqueraz D. Juan de Yrazusta, Erretore Hernialdecoac, caña dan Provincia Guipuzcoacoan eta añaditu cion Encarnacioco, eta Eucaristiaco Misterioen explicacioa, bayta ere confesio on baten condicioac, eta Acto Fedeco, Esperantzaco, ta Caridadecoac. Tolosan 1797 urtean*".

Oso errex irabazi lezake euskara mestizuaeren txapelketa.

Beste erredua oso ezaguna San Inazio'ren eresialdian daukagu:

"Inazio gura patroï aundia
Jesus'en konpañia,
fundatu eta dezu armatu..."

Jaunari esker Batikano'ko II'garren batzarraren ondotik egin ziren liturjiaren itzulpenak, era bat bestelakoak dire. On Manuel Lekuona'ren ardurapenean egiñak zeuden. Euskal joskeraren nagusitza osoa zeukan zorionez. Ala guztiz ere itz nastu batzuek, aspalditik erabiliak direnak sartzea, atsegin zitzaion. Ara eredu batzuek: "SANTUA, GRAZIA, ESPIRITUA, PEKATU, MISTERIO, SALBAZIOA, PAKEA, BIRJIÑA, MUNDOA, BEDEINKATUA, KALIZA, ERREINUA, TENTALDIA, KONTRA, TESTIGU eta abar eta abar".

MESTIZAJE BERRIA

Gaur euskara ondo nastutzeko gogoia dutela batzuek ezin ukatu. Ez dire nolanaiko nastutzalleak gañera. Filologia ikasketak amaituak dituztela ta nai dutena egiteko eskubideak dauzkatela uste. Zaborkeriak sartuaz euskara barrerrik lertzen ari dire. Eredu geyegi dauzkagu, baina bat bakarrik azalduko dut. Nor den ez dugu esango. Nolako ostikoa ematen dion euskarari bai. Oso liburu polit baten itzaurretik artua dago, 1992'garren urtean argitaratua. Oso idazle ezagun baten lana da:

"Dibulgazio zientifikoarena ez da zientzia selektiboaren alorra, ez fundamentu gabeko dibulgazioaren zaborra".

Ara beste eredu bat, orrialde berdiñetik artua:

"Baina dibulgazio zientifikoa izateaz gain han duzue marrazkien arte-sano sano eta artatsu baten lana, bere marrazki "bizidunekin" eguneko kutsadura bisual itsusia garbitzen diguna, eta erraldoikeriaren eta pragmatismo ekonomizistaren zauri hilgarriak sendotzen dizkiguna".

Benetan sari bat irabazi bear luke. Utzi du jolasketa ortan euskararen atsa. Gure izkuntza ondatzen dute era bat. Ori egiten dutenak euskararen etsaiak dire.

ERRIAREN EUSKARA EGOKIA

Gauza bat garbiasko aitortu bearra daukagu; toki askotan errjak euskara aberatsa ta egokia erabiltzen du. Zertan ikusten da ori? Batez ere esaldien joskeran eta itzen berexitasunean.

Izkuntzarekin baita ere, lurrarekin gertatzen dena ikusten dugu. Ebakj sakon bat edo azterketa zorrotz bat egin ezkerero, garai ezberdiñen aztarnak agertzen dire; gaurkoak batzuek, besteak oso antziñakoak, itz mestizoak emen eta oso gureak an, zaborkeria ta bitxiak. Etxe batean sartuta izkuntza aelbarria entzun dezakegu, aldamenian berriz berexitasun egokiena bajta billatu. Ustekabian altxorra eskuratzen duzu. Ortarako lana egin bear.

Nola esango ote zen "PAKEA" euskaraz, askotan galdetzen nion nere buruari. Latin izkuntzatik datorkigun itz orren aurretik, gauza berdina esateko beste itzen bat izango genula garbi iduritzen zitzaidan. Ain errex utzi genuen itz ori, nunbait edo noizbait erabiltzen ote da oraindik? Galdezka nenbillela, Martin Olazar apaizak erakutsi zidan bidea: "Beste bizitzara joan leiken, ONEZ-KOAK egitera joan naiz", esaten dute Tolosa inguruan.

Bide ortik lortu bear genituzke legeari buruz euskal itz zarrak. Ba dago lana askorentzat.

MESTIZAJEAREN GARBIKETA

Gure itz egokiak eta jatorrak dauzkagunean ezin ditugu utzi, arrotzenak artzeko. Oyuka esan bearra: "Gureak beti erabili eta itz arrotzak baztertu". Gaiñera beti joskera zaindu bearra dago. Ortarako belarria euki beti adi eta begiak eme. Erriak egoki esaten dunari eutsi. Mestizoak arrotz usaia dauka. Garbiketaren egiten benetan alegindu. Jarri ditzagun eredu batzuek:

"Segi, segi", askotan entzuten dugu. Ez al da obeto "Jarrai"?

"Zoaz kanpora", oso sartua dago. Euskaraz ez ote litzake obeto, "zoaz atadira edo landara".

"Zure kontra", "zure aurka", esan bearrean.

"Ze diferentzia", "ze aldea" obeto dago.

"Zure falta", "zure okerra" jatorragoa.

"Sayatu" itzaren ordez "alegindu".

"Legea" itzaren ordez, "araua".

"Arma" erabili bearrean, "eskiloa" zarra ta ezaguna da.

"Ibilli kontuz" askotan esaten duguna, "ibilli poliki" esan bearra.

Zenbateraño sartu zaigun "pensatu"! Orren ordez, esaldiak eskatzen duna sartu bear: "uste edo asmatu edo -zer diozu?".

"Bueno, bueno" edo "beno, beno" entzuten diegu askotan euskaraz ari direneri; "ondo, ondo" esatea ez ote litzake obeto?

Neronek idatzi dut "Naparroan zear". "Zear" itz ori ez ote dator "cer-car" erdal itzetik? "Naparroan barrena" egokiago izango litzake.

Ba ditugu iru itz oso sartuak dauzkagunak eta nolabait garbitu bearrak: "balioa" (indar aundikoa), "meritua" (sarigarria), eta zaillena "arra-zoia" (itzbidea).

Egitaz, aurrak euskalduntzeko, andereñoek ba daukate zer egin aditzen itz zarrak erakusten; adibidez "erantzi atorra" eta "erantsi margoa". Berexi bearrak ondo ikasteko euskal itz berri jatorrak. Gainerakoan ikasleak "pegatu margoa" esango lukete.

Zenbat aldiz esaten dugu "problema", "buruaustea" esan bearrean. Edo "exkursioa", "txango" itzaren ordez.

Denak daukagu itzen zerrenda luzea ikasi bearra beste izkuntzetan; gauza berdiña euskaraz gertatzen zaiguna. Ondo ikasteko ariketak bearrezkoak dire. Ara ale batzuek: URLURTARRA (anfibioa), IZENLAGUNA (adjetiboa), GUDARRIAK (soldadu), ALDERDIA (partidua), BEROGALLUA (kalefazioa), KASPELA (kazueta), APAINKETA (moda), eta abar.

EUSKARA ZAINDU

Euskara maite dunentzat, zaindu bearra du. Beste gauz askokin gertatzen den bezala.

Izkuntzaren nasketak garbitu bearra daude, baita errian gure itz zarrak, eta joskera egokiak billatzen eta jasotzen alegindu bearra gaude. Bitxiak arkitzen ditugunean, den denak gorde. Berez ez da ezer sortzen. Lanaren bidez egiten da etorkizuna, baita ere izkuntzaren egokitasuna. Lan ori gure erriari zor diogu.



EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

*

(872'tik 873'ra bitarteko 4 larruki) (III)

Azterturik dauzkagu larruki oietan agertzen diran toki-izenak. Ez, ordea, oraindik, done-izen eta giza-izenak. Ikus izen oiek emen jarraian:

873'ko orrillaren 29'ko larrukian: DONE-IZENAK:

MAMES: "...ad honorem atrium Sancti Mametis": "Mames Donearen atarrien omenez". Mintzatuak gera done ontaz. Baitare, esanak gerala iduritzen zait, "atari" itzaren bidez, lekaidetxe osoa adierazi nai izaten zutela antziñate zarreko lumalari aiek.

Sancti MARTINI, sancti PETRI, sancti MICHAEL arcangeli, sancti ANDREE Apostoli et sancti LAURENTI. Bost done oien erlikiak aipatzen ditu larrukiak, ots, bosten gorpuzkiñak! - auei bakarrik esaten bait zitzaien "reliquiae" mende zar aietan -.

Izugarritzko garrantzia zuten aldi aietan erlikiek. Erregeak berberak ere erliki-billa ibilli oi ziran Kristaudi osoan. Zenbat eta erliki geiago orduan da zeru-goitiko laguntza geiago itxaroten bait zuten, eta, batez ere, beren agintaritzaren erliki bidez erriaren aurrean sagaratu ta santua, zerutierra ta Jainkoagandikoa biurtzen zala uste bait zuten.

Erliki aietatik asko ta asko ez ziran egiazkoak izaten, eta iruzurturik gelditze-ko bildur aundirik gabe esan daiteke ez zirala egiazkoak izango larruki onek aipatu dizkigunak ere. Ez beintzat izpiritu utsa dan Mikel Goiaingeruarenak. Alare, gure erriari-buruzko larrukirik zarrenak, 759'ko jorraillaren 24'eko larruki ark esan zigunez, Petroso'ko lekaime euskaldun onuragarri aiek Mikel Deunaren erliki bat bai omen zuten. "Reliquias alme Dei Archangeli Micaeli et sanctorum apostolorum Petri et Pauli et sancti Prudencia". ("Alme"itzak or "aaltsua", "mailla goienekoa", esan nai du. Beste itzak errez ulertuko dituzu noski).

Zer ote zeukaten lekaime txukun aiek Mikel Goiaingeruaren erlikitzat? Egazti polit eder batéedo-baten luma ikusgarriren bat?

Gaur egungo erlikiaren artean ere ez dira noski geienak oso ziurrak. Alare -kontuz Apaiz Jaunak! - "erliki" oiek merezi dituzte eta ondo irabaziak dute gure begirune ta eraspén guztia, eundaka ta eundaka urteetan gure antziñae ko Apaiz Jaunen eta gure Errj Kristauaren onespén samurra ta sinispén ziné tzoa jaso dituztelako.

Araba'ko Berrostegietan erri polittean "Kristo'ren Buruntzako Arantza" gordezten dute elizan. Badu Arantz orrek kofradi bat ere, inguruko errietako jen-

de kristauaz osotua. Aurten ni izan naiz Arantz orren omenezko meza-emai-
llea. Aurretik, "egjaz ote da Arantz ori Kristo'ren Buruntzako"? galde egin zi-
daten kofraditar batzuek.

"Bai - erantzun nien, mezaren barruan, kezkarik gabe, itaunlari aiei eta
gaiñerako kofradikide guztiei, omilia egiterakoan-. Mezaéostean muin eman-
go diozuten arantz ori egiazkoa da. Ez Kristo'ren burua ukitu zuten aietako
bat dalako. Ez, noski, Buruntza Donearen arantzetako bat dalako, baizik eta
aietako batek aiña aalmen izan dualako, Kristo'ren oiñazeak gogoratueraziz,
gure asaben biotzak unkituta, maitasuna bjzkortu ta sinismena sendotzeko.
Izan ere arantzaz-arantza, Kristo'ren Buruntzako arantz aietako bat bezain
arantza da gure au. Arantz aiek Kristo'ren nekaldia oroiteraziz Kristo'ganako
eraspene esnaerazten digutelako dira baliosoak, eta gure au ere mendeak
zear ori bera egiteko gai izan dalako, bildurrik gabe onartu ta omendu deza-
kegu Kristo'ren Buruntzako egiazko Arantza ba'litz bezala".

Barka eidazute "pastoral" edo "gogo-zaintzari-buruzko" solasaldi berritxu au.

Itzuli nadin lantzen ari nintzan ildora. Done oiek danak ez dute gaurko gu-
re ikerketa ontarako garrantzi geiegirik. Jakiña, oietako batzuk bjsigoten san-
tutegikoak dira, baiña ez du orrek ezer aundirik esan nai, bisigoten artean ez
ezé Eliz orokor osoan ere txit omenduak izan bait ziran aldi zar artan. Baija
Mames Donea ere. Ain zuzen, au ez da santutegi artakoa, naiz Itali'n eta Ga-
lietan kristauen begirunea ederki irabazirik eukj.

Ona beste santu aietaz xeetasun batzuk:

1^a: LAURENTI, Prudentzio olerkari kalagurritarrak IV mendearen azkenean
edo V mendearen asieran abestu zituan Doneetako bat dugu. Euskalduna
gaiñera, bearbada. Agoz-agoko albiste batek dionez, orduan oso-osoan
euskalduna genduan Ueska urikoa ornen zan bá jatorriz. Ez da beraz arritze-
koa Euskalerrian omendua izatea.

Beste nonbait idatzia dut ia zeurki aitor dezakegula Prudentzio'k abestu zi-
tuan Doneak, naiz bisigoten santutegian egon, ez zirala Euskalerrira bisigo-
tengandik etorri; alderantziz, iñondik iñora joanak edo etorriak ba'dira, Eus-
kalerritik joan zirala bisigoten liturgira.

Izan ere, Kalagurri euskalduna izanik, - "Baskoien" uririk nagusiena ainzuzen -
eta euskalduna agian Prudentzio bera ere, eta ortaz gaiñera Kalagurri'ko Elizak V
mendean eta bereiziki VI'ean izan zuan arrakasta jakiñik, uste izatekoa bait da bi-
sigotak VII mendean gure lurren mugetara irjtxi baiño len, V mendeaz gero, Pru-
dentzio'k abestutako doneenganako eraspene emen zabaldurik zegoala.

Bisigotak VI mendean jzan ziran Galietatik izkilluen indarrez frankiarrek
jaurtiak. 507'an gertatu zan Veouill'ko borroka bisigoten eta frankiarren ar-
tean. Zearo garaituak izan ziran bisigotak, eta borrokan illa II Alarik bisigoten
erregea. Garaillea, Klodobik frankiarren erregea.

Bejn Españi'n ez dirudi VI mende artan bisigotak euskaldunen lurretara
sartu ziranik, mende orren bigarren erdia arras aurreraturik zegoala, 568 edo
572'an buruntza artu zuan Leobigildo errege borrokalariaik, Ispania'ko lurral-
de guztien batasuna egin nairik, Galizi-aldeko Suebitarrei aurrena eta Euskal-
dunei gero ekin zien arte. Menderatu zituan aiek. Ezin izan zituan ordea eus-
kaldunak menderatu'.

7 Bisigotak, germaniarrak ziran. Germaniarrek era goxoan agoskatu dute beti "g" izkia, ez
españiarrek "j"ri ematen dioten doiñu berdiñaz era gogorrean. Orregaitik idatzi dut nik
Leobigildo, eta ez Leobijildo españiarren agoskera jarraituz.

Ordura-arte ariotarrak izan ziran bisigotak; erejeak. Ezer gutxi erakutsi ze-
zaieketen, beraz, euskaldunei, erlijioari-buruzko arazoetaz.

Leobigildo 586'ean il zan. Aren semeak, Rekaredo'k, artu zuan erregetza
eta katoliko biurtu bere erreinua. Katoljkoak ziran ordurako euskaldunak gure
egoaldean. Bai beintzat Ibero ibaiaren aran zabal guztian. Katolikoak bisigo-
tak ere 589'garren urteaz gero.

Baiñan euskaldunen eta bisigota katolikoan artean ez zan arrezkero gudu
gogor etengabea besterik izan, arabitarrek bisigoten azkeneko erregea, Erro-
drigo, euskaldunen aurka Iruña'n borrokan ari zala, 711'ean España'ra sartu
ziran arte.

Ez noski giro egokia euskaldunek bere etsai amorratu aiei santuen izenak
eskatzen asteko.

Gaiñera VI eta VII mendez askoz arremen geiago izan zuten euskaldunek
Auñamendi'z aruntzko "frankiarrekin", egoaldeko bisigotekin baiño, Araba'ko
Arrazu-Ubarrundi'n azkeneko aldi ontan agertu zaigun illobitegi arrigarriak
adierazten digunez. Badut aurkikuntza ortaz Aldizkari ontan idazteko asmo
bizia. Izugarri garrantzi aundikoak bait dira bertan agertu zaizkigun gauzak.
Iraill onen 3'an Euskarazaintzak Deban egin zuan illeroko batzarrean eman
nien nere akademikideei guzti orren azalpen labur bat.

** *

811'z gero bi zati egin zan España. Lurralderik aundiena arabitarren men-
dean gelditu zan. Bisigotek Asturietan birrerajki aal izan zuten beren erreñu
bisigota.

Asturietako errege aiek bisigotak ziran. Ziur zeuden beren erreinua Bisigo-
ten Erreñuaren jarraipena zala. Ala esaten zioten "Regnum Gothorum", "Go-
tiarren Erreñua", ta, errege bisigoten jardunketa zintzo jarraituz, euskaldunen
aurka borrokan ibilli ziran aal izan zuten guztian.

Ez ziran Asturietako bisigotengandik etorri Euskalerrira larruki auetan aur-
kitu izan ditugun Doneen ezaguera eta Done aienganako eraspenna.

Arabitarren menpeko España'n jenderik gejen-geiena maometar biurtu
zan. Kristau gelditu ziran kristau kementsuei "mozarabitarak" esan oi zaie.
Bisigoten liturgia artu ta ugaritu ta edertu zuten. Aiengandik etorri ote ziran b
gure done aien izenak Euskalerrira?

Ez, noski. Gure larrukiok IX mendekoak dira. Bisigoten Elizak X'ean artu
zuan bere bikaintasuna - aundia benetan -; baiña IX mendean ez zuan bere
liturgia Euskalerrira sartzeko kementasunik aski. Gaiñera arabitarren artean
eta euskaldunen artean ere, ez bait zan gudua besterik izan.

Arabitarren zigoretik igesi etorri zitzaizkigun mozarabitar aiek ekarri ote zi-
guten bá larruki auetako Doneenganako eraspenna?

Ez. Seguruaski ez zan onera mozaraberik etorri. Lendabizi, arabitarrek,
batez ere VIII eta IX mendean, kristaurik zigortu ez zutelako. Eta, bigarren,
mozarabitar aiek bisigotak eta gure arbasoak euskaldunak ziralako, ta bai
auek eta bai aiek alkarren etsai jarraitzen zutelako. Ez ziran bá (1) euskaldu-
nak arabitarrekin Asturietako bisigotekin baiño okerrago konpondu. Obeki
baizik, bearbada, Muskarj (Tudela) ta Kalagurri'ko Buruzagi Beni-Kasin'darre-
kin izandako arremen adiskidetsuak lekuko dirala.

Arabitarrek kristaurik zigortzen ez ba'zuten, zergatik España'ko jenderik
geiena musulman egin zan?

Musulman egiten zan oro, musulman ez ziran guztiek ordaindu bear zuten "yijaz" izeneko zerga bereizi astun batetik yare, libre, gelditzen zalako.

Ortaz gaiñera, kristau gelditzen zanak Laterriaren ariketa-arlo guztietan, gudaroztean adibidez, edo epailletzan, edo jaurlaritzaren barruti ugarietan, garrantzi-usai pixka bat izan zezaketen karguetara sartzeko eskubide oro galtzen zualako.

Aztutzeke gogoan euki bear dugun gauza da gaiñera, VI mendeaz gero, ainbeste ereji, zisma, eta istilluen ondorean erri katoliko landerraren eta baita "aristokrazi" beraren altzoan ere, oso indarrez usturjk aurkitzen zala kristautasuna, bai Asi'n, bai Afrika'n eta bai Espaiñi'n bertan ere.

Luze irten zaigu bisigoteiéburuzko oldozketa naasi au, baiñan geldi bedi bein betirako esanik,

larruki auetan aztertzen ari izan geran Doneak ez zitzaizkigula bisigoten-gandik iritxi. Bisigotak V mendean Galietara etorri aurretik, bai Akitani'n, bai Añamendi'z egoko Baskoien artean, Done aiek ezagutuak eta gurtuak zirala ordurako kristauturik aurkitzen ziran euskaldunen artean.

Done oien ezaguera Prudentzio euskotarraren - eta agian euskaldunaren - olerkiek zabaldu zutela, eta arek abestu ez zituanen izenak, edo Erroma-al-detik Tarragona ta Zaragoza-zear, edo Narbona, Tolosa, Turena ta Bordele-zear, Galietatik etorri zala.

Ala, adibidez, dokumentu auetan danetan ainbeste aldiz agertzen zaigun Turena'ko MARTIN Donearenganako eraspenna. Eta Tarragona'k izan zezakean eraginmenaren alde dago berriz III mendean urj artako gotzai jzan zan Fruktuoso Doneak antziña euskaldunen artean lortutako eraspen adiskidetsu kuttuna.

Beste batzuek, Bixente'k adibidez, euskaldun jatorrikoa zalako, Emeterio'k eta Zeledonio'k, martiritzaz beintzat Euskalerriarekin loturik zeudelako, ez zuten Prudentzio'k abestuak izatearen bearrik Euskalerriko kristauen artean goretsiak izateko. Ezta Lorentzo'k ere, jatorriz ueskatarra izan zala egja ba'da beintzat.

Edozein moduz ere, eraspen aundia izan zaio Lorentzo Doneari. Altaguztiz, iparraldeko euskaldunek soilki 12 Done zaarrei ematen dioten "JONDONI" izengoiti aintzagarririk bikaiña irabaztera ez zitzaigun iritxi. Ez bait zaio nik dakidanez, beñere JONDONI LAURENTI Euskalerrian deitu. Agian, elizgizon bezala, bere ekintza guztia Euskalerritik at Erroma'n bete zualako.

Danadala, aski eraspen motza erakutsi zion Berrobi'ko Apaiz Jaun arek beintzat, Lorentzo Donea ta Bartolome Donea, Berrobi'ko zaindaria dan Augustin Donearekin kidatu zituanean. Itz auen bidez asi bait zuan "sanagustiñetan" Meza Nagusiko bere sermoia:

"Zer balio dute Berastegi'ko Loentxo'k eta Ibarra'ko Bartolo'k gure San Augustin aundiaren aldean"?

Jondoni Laurenti'k lortu ez zuan goraihua lortu dute larruki ontako Bixente ta Martin Doneek: JONDONI BIXINTXO eta JONDONI MARTTI esaten bait zaie gure Iparraldean.

Esan dugun lez, amabi Doneei bakarrik eman izan zaie "Jondoni" izengoiti omentsu ori:

Iru goiaingeruei: Jondoni Mikael, Jondoni Gabriel, Jondoni Rafael. Lau apostolu nagusiei: Jondoni Petri, Jondoni Paulo, Jondoni Jakobe (Santiaé go'ri) eta Jondoni Joani (Jon ebangelariari. Oni, Jandonane ere esan oi zaio).

Kristaudi guztiko lenen Martiriari: Jondoni Extebe.

Eta, azkenik, soilki-soilki erromateko lau Doneei bakarrik!: Bixente'ri: Jondoni Bixintxo; Turena'ko Martiñ'eri: Jondoni Martti; Tolosa'ko Saturdino'ri: Jondoni Satordi; eta Tarragona'ko Frukтуoso'ri: Jondoni Murtuts.

Eraginmen aundia izan zuten Euskalerrriaren ebangelizaketan aurreneko iru Done oiek.

III mendean Jondoni Satordi Tolosa akitaniarreko gotzaiak bataiatu ornen zuan Iruña'ko Fermin Donea, kondaḡra batek dionez. Tolosa, Euskalerrriaren muga-mugan zegoan eta bera ere, gaurko Donosti'ren antzera, erdi euskalduna zan oraindik agian.

IV mendean Jondoni Martti Turena'ko gotzaia zan. Ez zeukan urruti Dordaña, eta Dordaña'n ez zan oraindik seguruaski euskerarik zearo galdu. Mixiolari aundia izan zan gaiñera bera, eta, bere egitez - ala berak sortutako lekaide mixḡolariak bidaliz - eragḡn aundia izan bide zuan Jondoni Martti'k Euskaldunen kristautzketan.

Ori adierazten digu ezpairik gabe Konpostela'rako erromesketa asi baiño leenagotik Euskalerrri osoak izan zion eraspina. Orain arte aztertu ditugun IX mendeko dokumentu guzti auetan apika dan bat bakarra Donemartiñ'en izenik aipatzen ez duana. Eta XII mendera arte ez zuan erromesketa arek indarrik artu!

Araba'n bakarrik baditu Jondoni Martti'k 35 parroki, 5 baselḡz; eta 29 toponimi edo toki-izenetan agertzen da. Ortaz gaiñera bereak izan dira ezerezuteko errietan aurkitzen ziran 7 parroki eta 35 baseliz. Guztira, 109 aldiz agertzen zaigu, Araba'n bakarrik, Jondoni Martti'ren ḡjena8.

Zerbait esan nai digu noski ugaritasun arrigarri orrek. Bai ote da Euskalerrrian beste Done bat, Jondoni Martti'k aiñako eraspina jaso duanḡk?

Jondoni Bixintxo, euskotarra ziurki Ueska'n jaio zalako, eta baita euskalduna ere seguruaski, ama euskaldun baten semea zalako, eta bere gotzaiaren ordezkari lez III mendean antziñako Euskalerrri zabal artan sermoilari izan zalako. Bere gotzai arek, Zaragoza'ko Balerio'k, "ignarus linguae" izanik, ots, bere elizbarrutiko euskaldunen "izkuntza ezagutzen ez zualako" ezin bait zuan berak bere agoz egikizun ura bete. Euskaldun oiek Zaragoza'tik 25 kilometrorra zeuzkan, sarkalderuntz Jalón ibaiaren lurraldeetan, eta 25'ten batera ipar-sortalderuntz ere Alkubierre mendi-katearen aran eta gallurretan.

Ta, Jondoni Murtuts? Tarragona'ko Gotzai izan zan III mendean. Mende artan, eta erromate guztian, Ispani'ko kairik bizkorrena eta uririk aundiena ta garrantzitsuena izan zan erromatarren Tarrako. Uri au, ordea, III mendean ez zegoan orduango Euskalerrri zabaletik urruti. Mediterraneo Itxasoaren ertzetaraiño iristen bait zan euskera Auñamendiazear, eta Auñamendi'tik egoaldera euskaldunak bait ziran llergetak. Eta, sortalderago oraindik, baita Zerretiarrek ere.

Ez da, beraz, arritzekoa Iparraldean Narbona bezala, egoaldean Tarragona izatea guregana iristeko kristautasunak erabḡlli zituan bideen sorbururik nagusienetako bat. Ori adierazten digu ezpairik gabe gure egunotaraiño Iparraldeko euskaldunek Frukтуoso'rḡ gorde dioten eraspina arrigarri maitetsuak. Beste iru aiei bezala, eman bait diote berari ere izengoitirḡk onuragarrien ura, eta beste aiei bezala, edo beste aiei baiño geiago oraindik, kuttunki aldatu

8 Gerardo Lopez de Guereñu: "Alava Solar de Arte y de Fe". Gazteiz, 1962. 540 or. Ez dakit nolakoak izan daitezkean Donemartiñ'i buruzko zenbaki oiek Euskalerrriko beste lurraldeetan. Ez ote da iñor, ori jakiten lagunduko didanik? ("Seminario Diocesano de Vitoria, Apdo. 86" da nere norabidea).

bere izena: JONDONI MURTUTS. Bixintxo, Satordi, Martti, Murtuts, edo Murtutx. Ez al dira izen-aldaketa goxo oiek maitasun aundi, xamur, b;jotzkoi eta eskertsu baten azterna biguiñak?

Bir esan dezagun bá len esan duguna. Dokumentu auetan agertzen diran done-izenak ezagunak ziran Euskalerrian b;sjgotak agertu baiño lenago ere.

MARIA: "Sancta Maria de Fresnu". Ona emen Miren Neskutsaren ;jena. Ez da aurreneko aldia larruk; auetan agertzen dala. Alare esan bearra da, ez dala bere ;jena Kokulla'ko dokumenturik zarrenetan geiegi agertzen. Askoz geiago agertzen dira beste Done batzuen izenak, Donemartiñena adibidez. Andra Mari'ren izena ain gutxi agertze orrek ongi merezi luke azterketa bat. Bere izena daramaten emakumezkoak, bai, agertu zaizkigu. Oroi, Kukulla'ko larrukirik zarrenean, VIII mendearen erd;ko larruki artan alegia, Maria zutela izena Petroso'ko bi lekaimiek beste 25 lekaimen artean.

Leenago oraindik, ZAZPIGARREN MENDEAN badugu Miren Neskutsaren aipamenik. Aipamen ori dama;gun arri-ola, gaur Gaztelerrri baiñan orduan Euskalerrri - a;nzuzen Autrigoien lurralde - zan tokian, Mijangos deritzan erri-txoan izan da aurkitua. Ona zer dion VII mendekoa dan bere idazkiak:

"CONSECRATUS EST (lo)CUS S(an)C(ta)E MARIAE POÑTIFICE ASTERIO SUB D(ie) PR(idie) N(onas) M(aias) (ju)SU GLO(oriosi) DOMIÑI RECCA(redi)".

Euskeraz:

"Miren Donearen toki au Asterio Gotzaiak sagaratu zuan Orrillaren 16'ean Rekaredo Jaun aintzagarriaren aginduz".

Rekaredo ori, Leobigildo'ren semea ta bere aita bezala Bisigoten erregea, 589'an etorri zan arianikeritik katolikotasunera. Asterio gotzai 597'an ;l zan. Bitarte ortan beraz, bazuan Miren Neskutsak eliz bat edo, bearbada, lekaide-txe bat euskaldunen artean.

Mijangos Ibero ibaiaren aranean dago. Ez gaur Trespaderne deritzan erri-tik urruti. Dirudianez, bisigoten mendean zegoan urte oietan Euskalerr;aren ego-sarkaldeko ertz ura. Ez noski epe luzerako. Euskalerrriaren mugetan sar-tu ta atera ibilli bait z;ran Rekaredo'z gero b;jsigotak, ater-alderik gabeko gu-duketa gogorrean.

**

Urte berean, ots, 873'an, Jorraillaren 18'an, onako done-;zen auek da-maizkigu beste larruki batek: MARTIN, FELIS, MAMES, TEODOSIA.

"Ego igitur Martinus presbiter, simul mecum sociis fratribus morantibus, divino amore compuncti (...) fecimus ecclesias invocatio sancti Martini epis-copi et sancti Felicis, sancti Mametis, Sante Teodosie..."

Euskeraz:

"Orra bá: nik Martin apaiz onek eta nerekin bizi diran anaiek, Jainkoaga-nako maitasunak bultzata, Martin Done gotzaiaren, Felizes Donearen, Ma-mes Donearen eta Teodosi Donearen omenezko elizak eraiki genituan..."

Orra or bein berriro gure JOÑDONI MARTTI! Mames Doneaz ere mintzatu gera.

Azter ditzagun beste iru doneak:

FELIZES. Bai al dakizu zenbat diran Felis izeneko Doneak? Irurogei ta zor-tzi! Aro guztietakoak eta lurralde guzt;etakoak.

Oietatik bat, Euskalerraren alboan, IV mendearen asieran Gerona'n martiri illa eta V'aren asieran Prudentzio'k gorestu zuana. Ez dezagun aztu Gero-na'ren gain-gaiñean zegoala Zerretiarren leiñu euskalduna.

Onela aipatzen digu Prudentzio'k Done aren izena "Peristefanon" izeneko poeman, Zaragoza'k eta beste uri batzuk Kristo'ri azken egunean aurkeztu-ko dizkioten igali aintzagarrietaz ari dala:

"Parua Felicis decus exhibebit
artubus sanctis locuples Gerunda"

Euskeraz

"Felis'en bikaintasun ederra aurkeztuko dio
santuen ezurrez aberatza dan Gerunda txikiak"

Euskalerraren albo-albokoan zan beste Felis bat ere, Zaragoza'koa. Uri ortan Diokleziano'ren agintaritzakoan martiri il ziranetako bat. Publio, Fronton eta Zeziliano Doneekin batera damaigu Prudentzio'k aren izena Zaragoza'ko 18 martirien goratarrea egiterakoan: *

"Publium pangat chorus et reuoluat
quale Frontonis fuerat tropaeum,
quid bonus Felix tulerit, quid acer
Caeciljanus"

Euskeraz

"Gores beza abesbatzak Publio, eta ager beza
nolako garaitza lortu zuan Fronton'ek,
zer jasan bear izan zuan Felis zintzoak, eta zer
Zeziliano bizkorrak".

Euskalduna izan zan, berriz, seguruaski, irugarren Felis bat, erromatarrek Jazetierra esan zioten leiñu euskaldunaren lurraldekoa, erdiaro garaiean Boto Donearekin Jaka-aldeko lekaroetan bizitua. Bi auek eta auek baiño lentxeago Altares'ko Jon bakartiak santutu zuten toki artan izan zan gero eraikia, Pe-ña'ko Jon Donearen lekaidetxe ospetsua: "il gran cenobio pinnatense, pant-heon della monarchia aragonense" (Bibliotheca Sanctorum): "lekaidetxe pe-ñatar aundia, Aragoi'ko errege-sendien illobitegia".

Iztegi orrek ez dio lurralde ura dana ia aro berriaren asiera arte euskalduna zala, eta lekaidetxea bera Naparroa'ko errege batek eraikia izan zala. Naparra bait zan lurralde ura dana, 1.035'ean il zan III Santxo Aundiak, bere se-merik gazteenarentzat, Ramiro sasikumearentzat ainzuzen, Jaka uriburutzat artuz Aragoi'ko erreñua sortu zuan arte.

Era ortan Euskalerrria zatitzean ez zuan noski aunditasun aundiegirik ager-tu.

Euskerak, ordea, len bezala jarraitu zuan Ipar-Aragoi'ean nagusi!

Euskalduna baitare laugarrena: Bilibio'ko Donefelize. Bilibio orain "Aro'ko Kontxak" esan oi zaien bi arkaitzetako bat da. Ibero ibaiaren egoaldekoa. Lo-groño'ko probintzian dagoana. An bizitu zan penitentzi egiañez, V mendean.

An artu zuan bizitz bakartiaren ikasle izan naiez urbildu zitzaion Donemillan gaztea. Orregaitik noski egin zan euskalerrri guztian ain ospetsu.

Donefelize au da larruki ontan agertzen zaiguna.

TEODOSI DONEA. Prudentzio'ren olerkietan agertzen ez dan Donea. Ez du ordea orrek esan nai bisigotek ekarria dugunik. Ez bait da auen - eta mozarabeen - santutegietan ere agertzen.

Nondik etorri ote zitzaigun bá gure Euskalerrira?

Bost emakumezko Done datoz izen ortakoak "Bibliotheca Sanctorum"en orrietan. Bostak sortaldetarrak. Danetan ospetsuena, izugarrikj oiñazetua izan ondorean martirj il zan neskatiñ feniziar bat. Au izanen da, eskierkj, gure larrukiak damaiguna. Ta, seguruaski, Teodosi onenganako eraspenna iparraldetik etorria dugu. Zergaitik diodan ori?

VI eta VII mendean, ots, bisigoten aroan, euskaldunok iparraldeko jendee-kin egoaldeko bisigotekin baiño askoz arremán ugariagoak eta sendoagoak izan genitulako. Ori adierazten digute Araba'ko aurkikuntza arrigarriek.

Emanen dizut - agindu dizudan bezala - aurkikuntza oien berri. Baiñan aurretik ikerketa oiek zuzentzen dituan Azkarate Garai-Olaun'dar Agustin jaunarekin itzezin nai nuke, azken-albisteak bere agotik entzuteko.

Bisigotak Euskalerrrian izan zezaketen eraginmena babesteko, Araba'ko "Goba" edo "Gobiak" aipatu oin dira, gobi oietan bizitutako bakarti kristauak bisigotak zirala esanez. Ni, ordea, bakarti aiek euskaldunak izan ziralako ustean nago, gero ta sendoago. Nere uste apalez, baliogabeak bait dira gizon santu aien bisigotasunaren alde erabilli nai diran arrazoiak.

Nere itza damaizut, "Gobi" eraspengarri oietaz ere Aldizkari ontan bertan mintzatuko naizela. Gaurkoz ordea geiegi luzatu zait mintzoa-ta, beste egun batez izan bearko du.

Latiegi'tar B;xente.



Langraizeko Amaren eliza



IRUZKIÑA

PAULIN SOLOZABAL jaunaren idazlan bat dakar EUSKERAZAIÑTZA irujllabetekariak. Maixu edo akademi-maillako lana da (Ikus EUSKERAZAINTZA, uztailla-irajilla, 1994, 5-20 orr.).

Idazlan auxe zerbait iruzkindu (comentar) gura neuke. Zeatzago esanda: lan berorrek nire baitan arrotzen dauan ainbat aztergairi neure erantzuna emon. Beste baliozkotasunik ez dau izango, orrexegaitik.

Beste esakera batez: jakingai batzuk dirala-ta, nire barruan irakjten daukadan "lapikotxoarj" estalkia kendu apur-apurtxo baten. Ez dot beste asmorik urrengo datozen lerroetan.

1.- EUSKERA ETA BASERRIA GAUR

PAULIN idazlearen lanean auxe irakurten dogu:

"Juan Antonio Mogel abadeak Peru Abarkaren aoz: Euskal kulturaren Ikastola Nagusia "Basarte" (dala): au da baserria. Izkuntza jatorra, jakintsua eta aberatsa nai dabenak, baserrira joan eta antxe aurkituko dau bere guraria asezten daben izkuntz edertasuna.

Euskera jatorra eta aberatsa nun? Galdera oni erantzuteko guk be, zudasun bidetik ba-gabiltz, bardin esan bear dogu. Euskeraren benetako jakintsuak baserrian dagoz. Izkuntza onen jakiturj, zertzelada eta zirkjlu guztien iturria, antxe dago.

Edateko uraren billa, jturjira joan bear da. Euskera ederraren billa gure baserri aintzatsuetara, antxe dagoalako gure ama izkuntzaren sort-iturri, garden eta aberatsa, asebetaa."

Bir-ekarri dodazan itzok 1894-garren urtean -eun urte leenago- irakurri izan baneuz, onartuko neukezan bearbada.

1994-garren urtean idatziak izan diranez gero, zenbajt jakingarri dala-ta, egi-egiak badira be, euskeraren ZER-DAN (Orixek esango leukenez) osoari gagokiozala, gutxien-gutxienez, EZTABAIDAGARRI dirala esango neuke.

Beste berba argiagoz: ezertariko oarrik eta zeatz-meatzik esarri baga, ez dot uste gure egunotan onar daitekezanik. Zergaitik diñodan au beerago argituko dot.

Juan Antonio Mogelen garaian egia izan zeitekean. Idazle entzutetsu au amoztzigarren gizaldiaren bjarren erdi-aldian bizi izan zan, 1804-garren urtean ilzan-eta (oker ez banago). Au da: orain BERREUN URTE, gitxi gora-beera.

Arrezkero urak bide luze-sakonak urratu izan ditu lurraren azalean. Eta bizitzearen eta giza eta euskal kulturaren ainbat eremutan be, aldakuntzak eta aldakuntzak izan dira, gure izkuntzari dagokion egoera guztiz itxuraldatuz.

"Ama goularien eta euskal ferietako bei saltzailleen" berbeteagaz -Paulin

beraren itzak bir-aitatuz- ezin daikegu gaurko mundu onetan ibiltaldi aundi-aundirik egin, nik uste.

Inork ezagutzekotan, Orixe aundiak ezagutuko eban Paulin idazlearen esanez "euskal izkuntzaren klasikoak, jatorrak, itza gogoz eta jakituri aundiz plaza-ara atara nai dabenak" diran baserriarren izkerea.

Gipuzkoako Orexan jαιο eta amazapi urtera arte, oker ez banengo, Nafarroako Huitzin bizi izan-eta.

Geroago, urteak joan eta urteak etorri, "San Agustinen Aitorkizunak" euskal itzulpena argitaratzeko, naikoa izan ete eban berak Orexan eta Huitzin entzun eta ikasi eban "gorularien", artzaiñen eta ikazkiñen berbetea? Ez dot uste. Baserriko berbakuntza utsagaz San Agustinen "Confesiones" deritxan liburu sakona eta zailla euskerara itzultzeraz joan izan balitz, ezin izango leukean, ezelan be, bere lana burutu.

Au adibide bat baiño ez da. Onango argigarriak ainbat eta ainbat ekar dai-tekez. "Egoitzak" liburuarena, esaterako. Santa Teresaren "Las Moradas" liburuaren euskal itzulpena da.

Naikoa izan ete eban Santi Onaindia karmeldarrak, berak umetan eta gazetetan Amoro-ton entzun eta ikasi eban berbetea, gero EGOITZAK izeneko euskal itzulpena ontzeko? Jakin gura neuke zer erantzungo leuskigun Aita Onaindia idazle oparotsuak.

Ez. Gaur-egun baserrian ikasi daikegun eta andik ekarri geinken euskera utsa ez da gauza gure gizarte onetan urrun-urrun joan aal izateko.

Euskera arlotea ez. Euskera landua, jantzia bear dogu, aal danik eta jantzi-ena, gure inguruan irakiten dabilkiguzan kulturazko eta jakintzazko gaiak, euskera ulergarri eta normairantzat erakargarri plazaratu aal izateko. Jai dauka-gu, osterantzean.

"Euskera osasuntsua, bizia ta jatorra gure baserrian bizi izan da, eta gaur bere, euskera joria, antxe entzuten dabe gure belarriak", dirausku maixu baten antzera Paulin adiskideak.

Bai?

Ni-neu semez baserrikoa baz. Baserrian jαιο eta baserrian bizi izan naz ia neure bizitzaldi guztian. Baserrian ikasi neban euskera. Ez naz, ez, damu eta guztiz esker oneko agertzen naz baserriko euskerarentzat.

Euskeraren bizilekua izango zan baserria joan diran mendeetan. Neu be orretantxe nago. Joandakoak joanik dira baiña, eta gaur egunekoa izan bear dogu buruan eta gogoan, gaurkoa eta etorkizun doguna.

Gaur esan ete daikegu baserria euskera jatorraren bizileku eta gordeleku dala? Gauza batzuetan, bai, bearbada. Beste batzuetan, ostera, ez eta ez.

Nire esan onen egiztagarri, neuk-neuk neure bizitzaldian zear neure begiz ikusitakoa eta neure belarriz entzundakoa ekarriko dautsuek gogora.

Ara:

Orain ogei urte eta geiago, ni Morgan bizi nintzan. Morgako erria, dan-dana, baserria da, baserri utsez osoturiko udalerria.

Ara joan nintzanean, bertan entzuten neban euskera begiko eta gogoko egi-ten jatan ainbat gauzatan. Iñon eta iñoiz entzun ez nituan esakerak eta berba batzuk be antxe entzun nebazan leenengo aldiz. Aditza, barriz, orain UGEI URTE, gero!, txarto eta txarto erabilten zan. Guztiz txarto. Negargarri eta lotsagarri.

1970-garren urtean, Morgan bizi nintzala, ain-zuzen be, bizkaierazko aditza zala-ta, liburu bat argitaratu neban. "EUSKAL ADITZA-BIZKAIERA", beronen izena. Liburu onen sarreran auxe niñoan:

"Ara! Aditza ez dago ondo-ondo Bizkaian. Ez, ez!

"Ezautu daust" (nau), "ikusi dausat" (dot) eta onango ezakuntza ganorabakoak eurrez entzuten doguz.

Aundien artean be bai. "Alkate egin doste", iñostan oraintsu gizon batek, "Egin nabe", esan baleust, ederto.

Bai, bai. Aditza galtzen doakigu. Aparka-apurka zarpiltzen, ondatzen. Atzerakada au, barriz, -nork ukatu lei?- galera aundia izan euskerarentzat".

Aita Lino Akesolo karmeldarrak, euskeraz gorengo idazlea izan eta urte gutxi dala mundu onetatik joan jakunak, eta garai aretan Donostian bizi zanak egin eustan "Zeruko Argia" aldizkarian liburu aren kritika. Eta auxe emoten eban aditzera: Bizkaian aditza txarto baegoan, Gipuzkoan ez egoala bape obeto.

Aita Linoren esan onen agergerri, auxe erantsiko dot. Morgara etorri aurretik, ni Angiozar-en bizi izan nintzan bederatzita urtetan. Angiozar Bergarako auzo bat da, naiko aundia. Aldi aretan Zumajako gazte jator eta begi-begiako bat bizi zan bertan, euskera errez eta ugari-ugari egiten ebana. Arek be, baiña, aditza txarto eta txarto. "Ikusi-dizut" (zaitut) eta onango adizki traketsak entzun eta entzun egiten nautsazan. Nik, barriz, esan eta esan: "Ori orrela ez. Aditza txarki erabiltzen dezu. Ori onela esan bear da".

Eta berak erantzun: "Bai, zuk diozun bezela izango da, baiña nere errian erdiak baiño geiagok onelaxe itz egiten degu".

Ñeure erria aitatuko dot, azkenez, aditzaren kontu onetan.

Guk leen-leen eurrez eta eurrez erabilten genduzan adizkera txairoak eta dotoreak orain ia guztiz galdurik dira, leen-aldian, batez be.

"Zuk ni atzo ekarri ÑINDUZUN", , "Nik zu... ZINDUDAZAN", "Zuk gu... GINDUZUZAN", "Guk zu... ZINDUGUZAN", "Guk zuek... ZINGUDUEZAN", eta abar, gaur gitxitan eta gitxitan entzuten dira. Tamalgarria!

Ñire lobak onan esango dabe: "Zuk ni atzo Gasteiz-en ikusi ÑOZUÑ" (ninduzun), "Nik zu ZATUTEN" (zindudazan), "Guk zu...GOZUZEN" (ginduzuzan), eta abar. Au da: orain-aldiko jokoei (ikusi NOZU, ZAITUT, GOZUZ...) leen-aldiko -n ezaugarria erantsita.

Emendik eun urtetara, euskera bizi badadi (biziko al da!), aditza guztiz bes-telakoa izango da, beste norbaitek eta nonbaiten (ez baserriak eta baserrian) onik ataraten ez badau.

Bai! Aditza GAUR eta, ikusi dogunez, ASPALDIOÑ baserrietan eta errietan galbidean edo galzorian daukagu, zoritxarrez.

Guzti au kontutan artu ezkerro, euskera ikasteko baserrira joan? Aditza ikasteko beiñik-bein, ez eta ez! Aditzaren arazo onetan, baserria gordeleku barik, GALDULEKU ez ete da, gero?

Norbaiti oker nagoala baleritxo, eta ori agertu eta egiztatuko baleust, poz-pozik izango nintzateke.

"Euskeraren benetako maixuak baserrijan dagoz", dirausku zalantzarik baga Paulin maixuak.

Bai?

Gure belaunaldi onetan euskeraren irakaskintza-esparruan izan doguzan maixu eta irakasle aundi-bikaiñak, baserriarrak izan ete ditugu, ba?

Nik-neuk neuretzat euskera ikasteko edo erdi-ikasteko izan ditudan maixuak ekarriko ditut, labor-labor.

ARTURO CAMPIOÑ, leenengo. Aren "Gramatica de los cuatro dialectos literarios" deritxan idazti mardula, arrobi agorteziaña da euskera norberegantzeko. Iruñan jaio zan, oker ez banago. Ez da, beraz, baserrijarra, urjatarra baiño.

RESURRECCION M^a DE AZKUE, urengo. Aren "Morfología vasca" izeneko liburua guztiz ezagutua da, eta ikasgarri eta aztergarri euskeraren alorrean. Baita aren iru jzkuntzatako lztegi lodia be. Lekeitiarra izan zan, eta kaletarra, ez baserritarra.

LUIS DE ELEIZALDE dator gero. Gipuzkoerazko eta bizkaierazko aditza ikasteko eta sustraiz aztertzeko goren-gorengo maixu jakintsua. Berrogei urte baiño geiago izango dira, aren "Conjugación vasca sintética" izenaz ezagutzen dan liburua aztertu nebala, eta itzelezko mesedea egin eustan. Bergararra izan zan, baiña ez baserritarra. Uritar geiago, baserritar baiño.

SEBERO ALTUBE dakart ondoren. Euskal joskera daIa-ta, irakasle ezin ohea. Aren "ERDERISMOS" izeneko liburua guztiz ezaguna da euskaltzaleen artean. Badauko beste idazkun bat be, gutxiago ezagun dana: "Observaciones al tratado de Morfología vasca" da beraren izena. Guztiz irakurgarria au be. Arrasaten, Gipuzkoan, munduratu zan eta Gernikako kalean bizi. Uritar geiago au be, baserritar baiño.

NIKOLAS ORMAETXEA, "ORIXE" aitatuko neuke azkenengoz. Berariaz euskera ikasteko liburutik ez dauko, nik dakidala. Aren liburuak baiña, ur gardena oparo-oparo eta eten barik darion iturri baten antzeko dira, euskeraren erabilkeran trebetzeko. Jakitezko bururakizun uts edo "conceptos abstractos" diralakoak, filosofiazko eta jakintzazko gaiak euskeraz zelan adierazo jakiteko, batez be, gure belaunaldi edo mende onetan izan dogun maixurik gorengoena dogula esango neuke. Irakurri eta aztertu, adibidez, aren "URTE GUZIKO MEZA-BEZPERAK" eta "KITOÑ ARREBAREKIN" idazkunak, eta ikusiko dozu euskerari buruz jakitez eta bitxi eder-zoragarritz gaiñezka dagozan idazkiak dirala. Jaiotzez eta gazteégaztetan bizitzez baserrikoa. Aren euskera, alan be, ez da baserri-baserriko euskera utsa, izkuntza ikasi-ikasía, landu-landua eta txukuna baiño.

Beste maixu batzuk be izan dodaz, baiña garrantzizkoenak oneexek izan dira niretzat.

2.- EUSKERA ETA EUSKALKIAK

Bizkaieraz dator Paulin jaunaren lana, bizkaiera uts-utsez.

Euskera euskalkietan bizi izan dana eta gure egunotan be onantxe bizi izan dana ez dakian batek Paulinen lana irakurriko baleu, bizkaiera baiño beste euskerarik ez dala uste izango leuke agian.

Eta au ez izan egia. Bizkaiera euskera da, baiña euskera guztia ez da bizkaiera. Bizkaieratik at bada euskerarik, bada euskera ederrik eta erabilgarririk.

Euskalkietan sailkatuta bizi izanak eta gaur be onantxe bizitzeak badakar-tso arazo latzik eta konpongaitez gure euskera oni.

Egoera ezin-besteko au dala bide, izate larrian dakusgun berbakuntza onentzat bizigarri, indargarri eta sendogarri jzango litzateken zerbait egoki bat, aal danik egokiena, aurkitzeko, geureak eta bost egin bearko gendukez euskaldungoa eta euskaltzalegoa, batez be, egiten dogun guztiok. Egiteko onetan, baiña, ez dakit asmatuko dogun.

Gure artean daukagun aditu-eziña euskerarentzat guztiz kaltegarri da, ene eritxiz.

Euskalerría txikia da inguruko errialdeen ondoan. Eta euskeradunok edo euskaldunok osotzen dogun taldea askoz mirrinago oraindiño. Gure indarrak

eta aalbideak bateratu egin bear gendukez, orrexegaitik. Baiña, bai zera! Ba-koitza bere bidetik doa ainbat jokaeratan.

Aintzina-aintzinako kontakizuna datort burura.

Latin berbakuntza errietan galzorian zala, an ei ziarduen latin-zaleek bata-besteagaz ika-mika:

- "Au onan idatzi bear da". "Ori orretara egin bear da", eta abar, etenbaga-ko ekitaldi antzuetan eta burrukaldi galgarrietan...

Bitartean, latin galdu ei zan erritarren aotan, eta agur latin-zaleen zorigaizto-ko eztabaida guztiok.

Euskaldunoi be beste orrenbeste jazoko eta jakun bildur naz. Bildur eta bil-
dur.

Euskeraren bizitzea eta iraupena: ona gure izkuntza dala-ta, daukagun eginkizunik larriena eta latzena. Egiteko onixi lotu bear gintzakioz, beste ezer guztien gaiñetik.

Gure egunotan bizkaiera berariazko larrialdian aurkitzen dala diñoenak ba-
dira an eta emen. Ez-aldi eta ondo-ez onen zegaitia eta okerra "besteri", eus-
kara batuaren eragiñari, batez be, egotzirik...

Bizkaieraren eta edozein motatako euskeraren arerio aundia, besteak bes-
te, erderak dakartsan galtzea da. Ego Euskalerrian, gaztelerak, eta lpar Euska-
lerrian, frantzerak.

Bizkaiera eta euskera bera bizirik eta onik atarateko bidea, ez da arpegitik
beera negar-malko lodi-garratzak dariguzala deadar eta arrantza egitea, idatzi
eta idatzi egitea, eta ONDO idaztea baiño. ONDO IDATZI!

Edozein euskalkitan idazlan bat edo liburu bat eskuetan artu, eta deklinabi-
dean uts, aditzaren erabilkeran uts, oskeran uts, eta idazkera ganorabakoa
dakarrela ikusten badozu, eskuetatik jaurti egingo dozu idazkun ori, iguiña
besterik ez dautsu emoten-eta.

Euskeraren salbakuntzarako, egin eta egin, egin bear dogu, lan-da-lan
egin, idatzi eta ONDO IDATZI, zein bizkaieraz, zein...

Eta nun dagoz, nun, idazleak? Batez be, idazle ONAK? NUN? Or dago un-
tzea! Orixe itaun larria!!...

Euskalkiak dirala-ta, badaukagu beste gorabeeratxo bat. Emen be neure
eritxia agerrazo gura dot.

Batzuen ustez, euskeraz idazterakoan, norberaren euskalkian bakarrik egin
bear genduke. Bizkaitarrak bizkaieraz bakarrik idatzi, gipuzkoarrak gipuzkoe-
raz bakarrik, eta abar.

Eretxi oni gagokiozala, leengoan adiskide batek auxe esaten eustan: Orixek
bizkaieraz idatzi ebala "Tormesko itsu-mutilla" izeneko euskal itzulpena, baiña
urrundik igarten jakola itzultzailea gipuzkoarra izan zana. Onan izanda be, ez
dot uste ori oker edo pekatu danik.

Gutako bakoitzaren euskalkia ezagutzen dogu ondoen. Egi-egia. Baiña
beste euskalki batez ondo idazteko gai danak, ez dot ikusten zergaitik ezin
daiken idatzi.

Txarto egin ete eban Txomin Agirre, idazle ospetsuak, bera ondarrutarra
izanda, GAROA elabarria gipuzkoeraz idatzi ebalako? Eta Santi Onaindia kar-
meldarrak, goratxoago aitaturtako EGOITZAK itzulpena, bera bizkaitarra izan
arren, gipuzkoeraz idatzi ebalako? Niretzat, ez.

Arazo berau, zeatzago.

Euskeraz idazten dogunean, ez dot uste beste euskaldi bateko berba bat
edo beste ekarteko eragozpenik izan bear gendukenik. Batzuek ez dabe jo-

kaera au begi onez ikusten. Bizkaieraz idatzi ezkerro, bizkaierazko berbak bakarrik ekarri, eta kito, ez beste euskalki batekorik. Gipuzkoeraz idatzi ezkerro, bardin, eta abar.

Ez ete ebazan Axular maixuak, 1643-garren urtean leenengo aldiz GERO entzutetsua argitaratu zanean, euskalki bateko baiño geiagotako esakerak eta aditz-jokoak erabili? Lapurtarrezko eta gipuzkoerazko adizkerak aibat eta aibat aurki dagikezuz.

Auxe dala esango neuke zuzenatariko era bat, euskalkiak, batabesteagandik urrundu bearrean, alkarrengana urreragotzeko, euskalkien arteko bitartea eta leizea aundiagotu ez, estuagotu eta medarregotu egin dakigun.

Mikel Zarate, aaztu-ezindakoaren berbak datordaz burura:

"Bizkaieraz nator. Bizkaieraz, Bizkaikoa nazalako, bizkaieraz azi eta ezi ninduelako, ondoen ezagutzen dodan euskalkia bizkaiera dalako.

Bizkaieraz nator, bizkaieratik baturantz joteko asmotan, obeto esanda, batutik batuagorantz. Izan ere, bizkaiera euskera da, euskera jatorra, betiko euskeraren biotzean euskera. Eta euskera dan ezkerro, euskera batua ere bada, euskeraren sustraian, oiñarrian (edozein euskalkitako euskeraren sustraian, oiñarrian) dagoan euskera batua, betitik baturik dagoan euskera. Eta euskeraren oiñarrian dagoan euskera batu ori ezagutu bear dogu, leenengo eta bein, batutik batuago baterantz joateko, erdi baturik dagoana ere batzeko, batu barik dagoana ere, azkenez, batzeko" (Mikel Zarate, EUSKAL DEKLINABIDEA, 9 orr.).

Zentzun aundiko berbak, Mikel Zaraterenok. Edozein euskalkitan, edozein mendetako liburutan irakurri izan dodazan biotz-zirraragarrietako itzak niretzat. Edozein euskalkie ezarri dakiokozanak, zalantzarik gabe.

Nik oso-osorik aintzat artzen ditut Mikel Zarate jakitunak bere liburuaren jtzaurreran agertzen dauzan irizpidea eta jokabidea.

Zoritzarrez, alan da guzti be, irizpide eta jokabide burutsu eta neurritsu oneetatik urrun eta urrun dabiltzala dirudi euskaltzale asko, zein alde bateko, zein besteko. Urrun eta urrun.

3.- ADITZA

"Euskeraren jatorrasunik aundiena bere aditz edo berboan dago", diñosku Solozabal jaunak.

Beste orrenbeste esaten ni-neu ez nintzateke ausartuko.

Aditza dala-ta, liburu bi argitaratuta nago. Alan da guzti be, Paulinen esan ori lartxo ez ete dan deritxat.

Euskal aditza iru zutaberen gaiñean daukagula eregita, dirausku Patxi Altunak bere EUSKAL ADITZA izeneko liburuan (1971).

Eta zutabeek oneexek dirala: NOR, NORI eta NORK. Eta iru zutabe oneetatik LAU eratako adizkiak sortzen dirala:

- NOR zutabeari dagokiozanak.
- NOR-NORI zutabeari dagokiozanak. B_i-biok aditz igarogatzaren adizkerak.
- NOR-NORK zutabearen inguruan sailkatuak.
- NOR-NORI-NORK zutabeari ezarriak. Azkenengo bitzuok aditz igarokariarenak.

Gaur-gaur eta aspaldiko urteotatik onantza, euskal aditza irakatsi, aitatuta-

ko zutabeok oiñarritzat artuta, egin izan oi da. Au da: zutabe bakoitzaren inguruan berari dagokiozan adizkerak sailkaturik emoten da aditzaren irakaspena.

Irakasbide au leenengo aldiz irakaskuntzara ekarri ebana, Aita Isidor Baztarrika beneditarra izan zan bere ADITZA (Método NOR-NORI-NORK o el secreto del verbo vasco) deritxan liburuan (Lazkao, 1968).

Izen oneen asmatzaillea Elbira Zipritia izan ete zan iñoiz entzun izan dot. Baleiteke. Baiña zutabeok oiñarritzat arturik, aditza irakasteko bidea edo era, liburu baten argitaraturik, aitatu dodan Aita Isidor Baztarrikaren idazkunean leenengo bider agertu zan, naiko illuntxo etorri arren. Urrango, irakasbide berori, obetuta, aditz guztiari, zein aditz bakuna edo sintetikoari zein laguntzaile-dunari egokiturik, Morgan bizi gintzala, bizkaierazko aditzari buruzko idaztian etorri zan, 1970-garren urtean. Geroago, beste liburu batzuetan: Patxi Altunaren "Euskal aditza" izenekoan (1971), Larresororen "Euskera batua zertan den" deritxanakoan (1974), eta abar.

Gaur-egun irakaskibe au bazter guztietara zabaldua daukagu, Euskaltzaindiak berak be onartu daualarik.

Egiarj zordun gaiakoz, ezta? Ba, orixe da egia.

Euskal aditzaren jakintzazko antolabide au ez dot ikusten Paulin irakaslearen idazlanean. Maixu-maillako lana danez, ondotxo etorriko litzakiokela dirudit.

"Aditza izkuntzaren ardatza, beti, joango da euskeraren punta punta nagusian", irakurten dot Solozabal adiskidearen lan onetan.

Nik-neuk ez neuke esakuntza ori izenpetuko. Bein edo bein, bai. Beti-beti, ez. Noiz bai, eta noiz ez? Ondorengo atalean ikusiko.

4.- JOSKERA ETA GALDEGAIA

Joskera eta galdegaia, edo "elemento inquirido" (Azkueren eta Paulin beraren esanetan) dirala-ta, zerbait badakar idazlan orrek, baiña gauza aundi-aundirik, ez.

Ementxe argituko dot goratxoago gogora ekarri dodan jakinkizuna.

Euskal joskera jatorraren eta bene-benetakoaren ardatza eta esaldiaren "puntaren puntan" dagoana, ez dabeti aditza. Euskal esakunaren osagai nagusia galdegaia da, edo "elemento adquirido" dalako orixe berori, maixu aundiei jaramon egiten badautsegu beintzat. Euskeraren "punta punta nagusian", edo erpin-erpin eta gaillur-gaillurrean daukagun jakinkizuna edo adierazkizuna. Aditza, beste edozein itz legez, bigarren maillan dago. Galdegaia aditza bera danean, orduan bai, esaldiaren "puntaren puntan" eukiko dogu. Bestetan, ez.

Ori bai, euskeraz jator, artez eta egoki idazteko, galdegaia dan itza edo itzak aditzaren aurre-aurrean ezarri bear dira, bitartean beste itzik idatzi barik.

Maixu aundiek emoten daben idaztarau nagusj au bete ezkeru, joskera jatorra izango da beti, esaldiaren beste berbak aurrekaldean zein bestekaldean ipiñi arren.

Galdegaia dala-ta, lantxo bat argitaratu neban orain amasei urte ZER aldizkarian. Lantxo arek ez dot uste gaukotasunik eta oraingotasunik galdu dituanik, maixu aundien irakatsia, nire ustez, naiko argi labor-bilduta antxe dator eta.

Galdegaia aditza bera danean zer egin bear dan baiña, ez neban lan aretan

azaldu, urrengo baterako itxi neban-eta. Ez dakit lan ori burutu neban ala ez. Ementxe bertan argituko dot zerbait, orrexegaitik.

Esaldiaren galdegaia aditza danean, era bitako esakunak sortzen dira euskeraz:

A.- Aditza bera jokatu badadi, adiz ori bir-esan egin daiteke.

Ikusi:

- "Une onetan zer egiten dau Iñakik?", galde egingo bagendu, onan erantzun daiteke:

- "Une Onetan Iñaki IBILI-DABIL", edo "ETORRI-DATOR", eta abar.

Esakunaren beste zatiak galdegaia dan aditzaren aurrekaldean zein bestekaldean ezarri daitezke:

- "Iñaki IBILI-DABIL une onetan". Edo:

- "Une onetan IBILI-DABIL Iñaki". Edo:

- "IBILI-DABIL Iñaki une onetan".

Edozein eratan euskal joskera egokia da.

Esakera au kontuan arturik, oso esakuntza txairoak eta dotoreak daukaz euskerak.

Adibidez:

- "Onek JAKIN-DAKI gero!" (Saber es lo que sabe éste).

- "Onek JAKIN ETA JAKIN-DAKI" (Este sabe mucho).

Tamalez, onango esaldi jatorrak eta politikak galduz eta galduz doakiguz (gaur gazteleraren eraginez).

- "Jon sabe mucho", gaztelerazko esakuna, argibidez, gaur onan itzuliko leuke euskerara:

"Jonek ASKO daki".

Euskaldun-euskaldunak askoz dotoreago:

- "Jonek JAKIN eta JAKIN-DAKI". Ederto!

- "Onek ASKO ikaste dau" (Este aprende mucho). Askoz obeto:

- "Onek IKASI eta IKASI egiten dau". Oso ederto!

Onango esaldiak, idatzi egiten dogunean, sarri-sarri erabili bear gendukez, euskaldun baten entzumenerako ("belarrirako") ondo baiño obeto datoz-eta.

B.- Aditza esaldiaren galdegaia izan eta aditz ori jokatu ezin bada, "EGIN" aditzaren bidez emon oi digu aditzera galdegaia aditza bera dala.

Emen Paulinek berak dakar argibide egoki bat.

"Zer egin dau aitak pistia ikusikeran?". Ta semeak erantzuten dautso: Aitak pistia ikusikeran, artu, jo eta il egin dau. Ta euskera biribil biribil geratu da" Ederto esanda!

Aditza jokatu arren, esakera au ekarri daiteke, nai izan ezkeru.

- "Zer egin dozue gaur goizean?".

- "Gaur goizean IBILI ETA IBILI egin dogu", edo: "IKASI ETA IKASI egin dogu"...

Galdegaiari jaramon gutxi egiten dautsoela uste dot Iparraldeko euskaldunek. Idazle zaarrak be ez ziran maixu onak izan euskal joskerari gagokiozala. PERU ABARKA irakurri baiño ez daukagu orretzaz jabetzeko. An irakurten dogun euskerak gure "belarrietan" min egiten dau. Gure gizaldi onetako obekuntza dala esango neuke joskerari buruzko zati au.

5.- ATZIZKIAK

Badaukagu euskaldunok euskeraren barrutian arlo bat landu barik dauka-

guna, edo gutxi-gutxi landu doguna. Ez bakarrik ez-ikasi eta ez-jakin diranentzat, baita ustez jakitun eta euskaltzale diranentzat be.

Auxe: ATZIZKI-MOLTZOA edo SAILA. Eta au galtze aundia dala euskerarentzat esango neuke.

Solozabal jaunak berak, maixu edo akademi-maillako lan bat egin, eta atzizkiak aitatu be ez ditu egiten. Utsune aundia beraren idazlanean. Baiña ori ez da beraren errua, euskaldun guztiona baiño.

Euskera aberatsa, esanguratsua, oso zeatza, zernai adierazoteko gaitasun berezia daukan izkuntza baldin bada, -eta niretzat onangoxea da- ori ez da aditzagaitik, ez deklinabidegaitik, ez joskeragaitik be, batez be, atzizkiakaitik da, edo atzizki ugari-ugari dituan bereakuntza dalako.

Euskera izkuntza "jakintsua" dogula, dirausku Paulinek berak nire ustez, izkuntza "jakintsua" barik, "jakituriatzko" izkuntza, edo "jakituria" darion izkuntza esanda obeto legoke. Eta nun agertzen da euskeraren "jakituri" ori? Ondasun-tegi bardin bagako onen erabilkuntzan, besteak beste.

Aita Plazido Mujikak bere gaztelerazko iztegi mardularen azken orrietan dakarren atzizki-moltzoa, geroago "Afijos vascos" izena ezarrita liburuxka baten argitaratu ebana, Azkuek bere "Morfología vasca"-n dakarren saila eta onango beste zerbait baiño ez daukagu arlo oni buruz, nik dakidala.

Eta ori zer da? Ezer ez, edo gutxi-gutxi, atzizkiek euskerarentzat dauken garrantzirako.

Aita Plazido Mujikak aitaturiko liburuxkaren sarreran auxe diñosku (neuk euskeratuta):

"Izkien zerrenda au... ZORTZIREUN izkitara, gutxi gorabeera, eltzen da.

Gure erria, euskeraren literatur-alorra gutxi landu daualako, ez da konturatzan gure izkien balioez eta esangureaz. Eta jakin be ez daki. Izkiotatik batzuk aurre-izkiak (prefijos) dira, beste batzuk erdizkiak (infijos), baiña geiengeienak ATZIZKIAK (SUFIJOS).

Orregaitik, ez jako bururatzan atzizkiok erabilgarri diranik teknikaren garapenak eta kultur-sailak eskatzen dituen gogai eta itz barrjak agerrazoteko.

Gure atzizki ugari-ugariok ezagutu eta eurretaz jakin-dakigula baliatuko bagintzaz, gure milla-urtetako izkuntza au geroago eta aberatsago eta barrizta-tuago egingo litzakiguke".

Azaltzen diardudanaren agergerri, argibide bat ekarriko dot.

"Orduen Liturgia" izeneko liburuan eta Ebanjelioen euskerazko itzulpenetan, "bizia" eta "bizitza" itzak esangura bardin-bardiñekoak balitzaz lez, naastuta, ikusten dodaz. Batean "bizia", bestean "bizitza", ezertariko bereizkuntza barik.

Baiña "bizia" eta "bizitza" ez dira bardin, "erioa" eta "eriotza" bardin ez diranez.

"Bizia", "vida en general" da, edo "vida en potencia", "posibilidad de vida", esango gendukena, "bizitza" izan leitekena. Besterik ez.

"Bizitza", ostera, -TZA atzizkiagaz, "vida EN ACTO" da, "bizia" "bizitza" biurtuta. "Erioa" (muerte sin realizarse) eta "eriotza" (muerte de hecho) diran antzera.

Au dala-ta, "YO SOY LA VIDA", Barri Onak dakarren esakuna, "NEU NAZ BIZIA" esanez euskerara itzultzeari oker dagoala deritxot. Jaungoikoa, sinistun gareanentzat, ez da "bizia", "vida en potencia", edo "posibilidad de vida" bakarrik. Jaungoikoa guretzat "BIZITZA" da, edo "VIDA EN ACTO", edo "PLENITUD DE VIDA", "BIZITZA" bete-betea. Esangura au -TZA atzizkiak damotso. (kus "AFIJOS VASCOS" deritxan liburuxka).

6.- AMAIERA

Ainbat egunetan "lapikoa egosten" euki eta gero, asazkatu naz, eta orain lana amaitzea dagokit.

Paulin adiskidearen lanari buruz, guztiko eritxia, oro-ar, emon bear baneu, onantxe laburtuko neuke.

Euskeraren ibilbidean joanaldi aundia egin dauana, begien aurrean eta agiri-agirian daukagu.

Alan eta guzti be, euskeraren eduki osoa eta zer-dan luze-zabala bereganatu nai izango baleu, beste bidaldi luze bat egin bear ko leukela esango neuke.

Paulin idazlearentzat diñodan au neure buruarentzat diñot, eta gañontzeko euskaldun geien-geientzat.

Gutziz sinistuta nago: Euskeraren ERDIRIK be ez dakigula euskaldunok, geienok beñik-bein.

Ori gutariko bakoitzaren euskalkiaren barrutian. Gogora ekarri ATZIZKIAK atalean argitu doguna. Or gabiltza bearbada, burua gora-gora eta arro-arro dogula, eta euskeraren ZATITXO bat bakarrik jakin.


Eta gure euskalkitik kanpora, zer?

Zer dakigu Iparraldeko euskalkietaz? Ni-neu -lotsaz beterik dagit autorkuntza au- naiko antzu nago. Axular aundiaren GERO iru edo lau bidar irakurrita euki arren. Eta Iparraldeko euskera be euskera da, gurea bezain jatorra, garantzizkoa eta jakingarria.

01! OI! EUSKERA MAITEA ETA GAIXOA! EZ-EZAGUN AUNDI ORI!!!

Pedro PUXANA, arabarrak.





Biblia

JAINKO ETA GIZONEN ARTEKO AR-EMANAK

BIBLIA ETA GIZONA

Gizonak bere kabuz eta bere kontura ezin lezake Jainkoari buruzko gauza garbirik jaso. San Paulo'k dionez, Jainkoa'k bere arrastoa utzi du mundu onetan; baña, arrasto oiek ispillu zikin baten antza dute. Ispillu orrek ez du Jainkoaren irudi garbirik ematen. Orregaitik Jainkoa garbiago ezagutzeko, aren laguntza bear izan du gizonak eta laguntza ori Bibliaren bitartez eman dio; naiz-eta gizakien asieran ere laguntzaren bat izan.

Zer esaten digu euskaldunon histori-aurreak? Kobetan ginduztela geuren elizak eta an, ormeetako marrazkietan aztikeria egiñez, animalia basatiak gurtu: larrabei, basauntz, basurde eta abar. Animaliak ezita gero, ikulluan zeudenean, orduan ere berdin: bei, auntz, urde eta abar ziran gure aurrekoen jaïnko txikiak eiztari izatetik artzai izatera biurtu ziranean. Baita illargia, eguzkia eta jzakiaren beste indarrak ere gurtzen zituzten.

Eta, geure arriaren antzera bizi ziran baste erriak ere. Jainkoa illunpetan zegoen eta aren irudia eztaleta. Eztali ori kendu bear zan irudi garbia ager aal izateko. Orixe izan zan Bibliaren zeregiña: eztali ori kentzea.

BIBLIA EZ DA ZIENTZI-LIBURUA

Mundu onetako asieraren arazoak naiko ondo adierazten ditu Bibliak; alaz ere, bere eginkizuna ez da guri zientziaren berri ematea, Jainkoarena, baizik.

Zientzia Bibliaren idazleek ikutzen dutenean, konparazio baten antzera erabiltzen dute zientzi ori eta orduko ikuspegitik; ez beintzat gaurkotik. Biblia idazten asi ziranetik, iru milla urte pasa dira eta arrezkeroz, orduan zeukaten ikuspegia, azpikoz gaiñera aldatu da. Ezin diteke gaurko neurriekin orduko gertae-rak neurtu. Dana dala, argi ta garbi dago Biblia ez dala zientzi-liburua erlijio-liburua baizik.

Bere egitasmoa guri Jainkoaren berri ematea da eta iñola ere ez, zientzia erakustea.

PEKATUA ETA ASKATASUNA

Bibliak dionez, Jainkoak egin zituen Zeruak eta Lurra. Lur onetan gizakia ipiñi zuen gauza guztien jaun eta jabe; gizakia, ordean, egiña izanik, bere Egilearen esanetara egon bearko du, eta Jainkoaren irudira egiña dagoenez, badiu artarako bear diran adimena eta najmena.

Adimenak eta naimenak, bien artean, osatzen dute gizakiaren askatasun-aalmena. Aske da gizakia, azken-neurri batean, beintzat. Eta askatasun orrek bere neurriak baditu: Jainkoa-kreatzallearen naiaren erara. Jainko egille eta Gizaki egiñaren arteko emanak dira askatasunaren ezparruak.

Egilleak ipiñi dizkio Egiñari askatasunaren neurri oiek: Ona egin, txarrik ez egin. Orra Paradisuko On eta Txarren jakintza-arbola. Buztinezko Gizonaren (Adam'en) pekatua orixe izan zan: Bere burua Kreatzallearen gaiñetik ipintzea: Jainkoaren gaiñetik, Jainkorj̄k gabe eta Jainkoaren aurka.

Ona eta txarra naastu; Jainko eta Gizakiaren arteko emanak ukatu eta orrela pekatuari beste aurpegi berri bat eman: sikologi argaltasunaren edo eziketa murriztuaren ondorioak, estruktura okerretik berez sortzen dan emana, eta abar. Ez ornen da besterik ezer.

Pekatuaren benetako zerkia eta izakia Bibliak argitzen dizkigu, batez ere Adam eta Kristo aurrez-aurre ipintzen dituanean: Baten pekatuagantik sortu dira munduan okerkeri guztiak eta bestearen eriotzagandik, berriz, ondasun guztiak. Adam ba'da gaitz guztien sustraia, Jesus da on guztien iturburua.

* *

Testamentu Zaarreko pekatua, Israel'ek Jainkoarekin zeukan Itun edo Itzarmenaren aurkako ekintza da, gizakiaren asieran Jainkoaren naiaren aurkakoa zana eta gure askatasunaren esia apurtzen zuena. Abraham'ek eta bere azitik sortutako Israel Erriak Ituna zeukan Jainkoarekin egiña: Ni izango naiz zure Jainkoa eta zu izango zera nere Erria. Itz ori ukatzea, Itun ori apurtzea, orra pekatuaren zera.

Moises'ek Sinai menditik Amar Aginduak ekarri zuenetik, oien aurka jokatzea izango da pekatuaren guna. Elizaren Katekesiaren Liburu berriak dionez "Gizonak Jainkoa gauza guztien asiera dala ukatzen duenean, bere azkenaren ordenamentu guztiak apurtzen ditu bai bere buruari dagozkionak eta baita ere bere inguruko gauza guztien dagozkionak ere. (G.S.13,1)".

Pekatuaren benetako barrua ikusterik ez dago Bibliaren ikuspegitik ez ba'da. Sinismenik gabe eta Jainkaorekiko ar-emanik gabe, pekatuaren benetako zerkia eta izakia ezagutzerik ez dago.

MOISES'EN AGINDUAK

Ona eta Txarraren Jakinduri-arbola Amar Aginduetara makurtu zuan Moises'ek eta Amar oiek onela banatzen dira: Iru, Bost eta Bi.

IRU

Lenengo Irurak Jainkoa dute artezgai eta elburu: Jainkoa bera maitatu; Jainkoaren Izena errespetatu; Jainkoaren eguna ondo ospatu. Berbera, bere Izena eta bere Eguna. Orra iru arteztu bearrezko gauza.

Maitatzeak Sinismena eta Itxaropena ere eskatzen ditu. Lenengo gizakiak pekatu egitean maitasuna galdu zuen eta sinismenak berekin dakarren konfiantza ere bai. Jainkoak maite zuen; baña, pekatua egitean maitasuna galduz, Jainkoarengan zeukan uste-ona ere galdu zitzaion, itxaropena ittoz. Maitasuna danean, sinismena eta itxaropena izaten ditu lagun. Auekin batera baita uste-ona eta konfiantza osoa.

Lenengo agindua betetzen danean, gure maitearen Izena aotan maitasunez erabilliko degu eta bere Eguna pozik ospatuko degu. Orra iru aginduak errez bete.

BOST

Beste ondorengo bost Aginduak gizakia dute artezgai: Gizakiaren eskubi-deak zaintzera beartzen gaitue bost agindu oiek.

LAUGARRENA

Familiari begiraten dio laugarrenak. israel'engo familiak oso ziran luze eta zabal: Guraso, gurasoen guraso, seme-alaba, seme-alaben ondorengoak, zuzeneko eta zearkako senideak, guztiak osatzen zuten famili bakoitza. Alkarrekin bizi ziran, batetik bestera, abere-taldeak eurokin zirela. Ezparru orretan danen arteko maitasuna bearrezkoa zan. Maitasunak zera eskatzen du, alkarr; eskubideak errespetatzea: Goikoak bekoari eta bekoak goikoari. Orixe agintzen du laugarren aginduak, gizarte arteko ar-emanen zoriona sortzeko.

BOSGARRENA

Bizia da bosgarrenaren gaia. "Iñor ez il" alderantziz esanda dago. Bere onean auxe esan nai du: Zaindu itzatzu gizaki orok dituen bizitzarako eskubi-deak. Senitartean bezala, andik kanpora ere. Bizia da beste eskubide guztien oiñarria eta itur-burua. Bizitzarik gabe, beste guztiak ez dira ezer. Bizitza kentzea, eskubide guztiak kentzea da. Bizia osorik izateko eskubidea degu eta edozein erataria bizi oso ori murriztea, bosgarren aurkako pekatua da.

SEIGARRENA

Biziaren sorburura degu agindu onen arazoa. Ar eta eme egin zituen Jainkoak. Bien elkarte bear da bizia sortzeko eta familia osatzeko. Bi oien ar-emanetan ez dedilla beste iñor sartu batasuna apurtzen eta ondoratzen. Biak dituzte, bizia sortzeari buruzko, alkarren arteko eskubideak. Ojek zaintzea da seigarrenaren elburua: Ez dedilla iñor, familiaren barruko pakerako, eskubide-

lapurretan sartu euren artean. Orixe eskatzen bait dute seme-alaben eziketak ere. Garrantzi aundia zuen agindu onek Israel'en.

ZAZPIGARREÑA

Bizia zaindu eta gordetzea, ori da bat; baña, bizia aurrera eramateko, gauza asko bear dira eta gauza oien eskubideak biziak berak ematen dizkigu: Jana, edana, jantzia, etxe-bizitza... Lapurretak debekatzea, eskubide oiek zainetzea da. Gizaki guztien eskubideak: Argalen eskubideak, umezurtzen eskubideak, ezjakiñen eskubideak, iñuxente guztien eskubideak... Gizarajo guztien eskubideak.

ZORTZIGARREÑA

Adimena badegu eta adimen ori egiez bizi da: badu egiaiekiko eskubidea. Eskubide oiek zaintzen ditu zortzigarren aginduak. "Gezurrik ez esatea", egia-aren alde jokatzeko da. Adimenak egia bear du eta gizarteko ar-emanek ere bai. Egia izan dedilla gure joko-bidea agintzen digu zortzigarrenak. Obeto biziko litzake gizartea, gezur gutxiago ba'lego bien bitartean...

BEDERATZI ETA AMARGARRENA

Gizakiaren askatasuna bi aalmen auetan oiñarritzen da: adimen eta naimenean. Naimena adimenetik bizi da: Ezagutzen ez danik, nai ezin. Nai izateko ezagutu egin bear aurretik. Bi aizkeneko aginduek, bederatzigarrenak eta amargarrenak, gure bi aalmenak zuzentzen dituzte. Zergaitik eta zertarako? Egintzetan mamitzendana, aurretik adimenean lenengo eta naimenean geroago egoten dalako. Gizakien egintzak jokabide orretatik ibiltzen dira gizaki bezala ari diranean. Itsumustuka jokatzeko, robotoren antzera ibiltzea da eta ez gizaki erara. Gizakien buruaren aalmena okerretik gordetzen ba'degu, onek ez dio naimenik jango; orrela, okerra burutik eta naimenetik kendu ezkerero, ez da ekintza txarrik izango. Bi agindu auek beste guztiak betetzeko bidea erakusten digute: Okerkeria adimenetik eta naimenetik kendu.

Arrazoi zuen Moises'ek Amar Mandamentuak bere erriari eskeintzean, onela esan zuenean:

Emen dituzue Ona eta Txarra, Zuzena eta Okerra. Bi bide dira alkarrengandik aldentzen diranak: Onetik ona aterako dezute eta Txarretik txarra. Bizia batetik eta eriotza bestetik. Aukera zuena da: zeurok nai dezuten bidetik ibilli. Zoriona eta Zoritxarra zuen esku daude; zeurok aukera egin. Onaren bidea arzen ba'dezute eta Agindu auek bete, erri jakintsua izango zerazte eta zoriona lortuko; Txarretik ba'zoazte Agindu auek baztertuz, zoritxarra eta eriotza topako dituzue bidean...

MOISES ETA JESUS

Paradisuko Ona eta Txarraren Jakintza-Arbola eta Sinai'ko Amar Aginduak

Moises'ek erakutzi zizkigun, bai bat eta bai besteak. Paradisu'an Ona eta txarra aitatzen dira, baiña zeaztasunik gabe; Amar Mandamentuak, berriz, Ona ala Txarra zertan dagoen adierazten digute. Gure askatasunaren mugak argia-goa ikusten dira Amar Aginduetan.

Eta, zer dio Jesus'ek Moises'en Lege oneri buruz?

"Zuk gure arbasoen Legea apurtu nai dezu" esan oi zioten Jesus'i bere etsaiak. "Ni ez naiz Legea apurtzera etorri, betetzera baño" zan Jesus'en erantzuna. Legea osatzera, Legea bere betera eramatera etorri zitzaigun Jesus Jauna Zoriontasunak aldarrikatzen dituenean.

Dirua, indarkeria eta sexoa dituguz, lenago bezala orain ere, munduko zorion-iturriak: Zorionekoak aberatsak, zorionekoak indarra besteei ezartzen dietenak, zorionekoak lizunkerki guztietan murgilduta bizi direnak... Jesus'ek, berriz, oien alderantziak aldarrikatzen dizkugu:

Zorionekoak beartsuak, zorionekoak apalak, zorionekoak errukitsuak, zorionekoak pake-gilleak, zorionekoak erasotuak, zorionekoak garbiak...

Esan zitzaizuen 'begiak begia zor eta ortzak ortza zor', nik berriz esaten diuzet matrallean jotzen zaitudanari beste arpegiko matralla ipiñi, txarrari onarekin erantzun, maitatu etsaiak ere, gaizki egiten dizunari barkatu eta aren alde otoiitz egin, eskatzen dizunari eman, pentsamentuetan ere garbiak izan... artu bizkarrean eguneroko gurutzea eta etorri nere ondoren.

Mundu onetako erakutsiak alderantziz ipintzen ditu.

Galtzerdiari buelta osoa ematen dio:


Diruzaletasunari - eskuzabala,

Indarkeriari - pakea,

Sexoari - maitasun garbia.

Ona eta Txarraren inguruak eta pekatuaren inguruak ez dira errezak entenditzen Bibliaren agerpenik gabe. Jesus'en erakutsiak areago.

Anes'ek



SOLOZABAL'DAR PAULIN'EK ETXEARRIA'TAR BINGENEGAZ EGINDAKO JARDUNALDIAREN EZAUGARRITZAT

ORAIN 70 URTE UMIEÑ AZIERA TE EZIERA ZELAÑ IKUSTEN ZEN-
DUAN...?

Orain irurogetamar urte inguruen umien aziera ta eziera oraingo aldean' guztiz diferentea zan². Bai gurasoen eurenganako denporarik euki ez egitxearren, edo mediorik³ be euki ez egitxearren eta denporarik bere ez euren lanak ez eutselako izten.

Ze^o txikitatik umearen amak juan bear ixaten zeuden⁵ beren⁶ gizonagaz bearrean. Eta orduen amak, artu bere umea ta eroaten zeuen solo barrenera eta imiñi, an, otzara baten eta segitxen zeuden aitik eta amak bearrean emoten eutson bularra ta barriro, segitxen zeuden bearrean.

Aunditxoagotan bere', an, izaten ziran umeak solo baztarretan, jolasak eixen, baiña, beti, euren gurasoen bizden⁸, ze umeak euren txarkerietarako, beti, euki dabe euren jokerea. Au da apur bat gora-bera, ume areen aziera arik eta eskolara asi arte.

Baitxe egon ziren orduen diferentzi batzuk, bai jatekoakaz eta bai geure eskakuzinakaz bere. Ni, ondo, akordetan naz⁹, neure amari arratzaldetan eskatuten ba-neutzen meriendea, zelan erantzuten zozten bertsora: "Umeari emon ezkerro korda"^o luze, umeak egin lei edozein gauze.

ESKOLARA BIDEAN

Gure denporan, umeak eskolara asikera, gogor, eixen zakezan" lelengo urteak. Batez bere, berbeta aldetik, ze guk ez gendun jakitxen erderarik. Eta maisuak orduen, euren ez ekien euskerarik eta gu, gogor, artzen genduzen. Ori dala ta ez dala, beti, gogo barik egoten gintzezan eskolara joateko, batez bere, lelengo urteetan, arik-eta erdera ikesi artean.

Etorkerak bere oingoakaz konpara...¹² ta, guztiz diferenteak ixaten ziren. Ni akordetan naz, azautxukoak¹³ zelan etorten ziren goxean erdi-bustirik eta emen, egoten ziren arratzaldekoa akaba" arte. Eta eguerdien euren bazkarie ixeten zan, orduen, ritxe¹⁵ esaten zakon ogi zati bet eta ontza¹⁶ bat txokolate.

Ondo akordetan naz, goxetan, denpora onagaz zelan urtetan zeuden abar-ketakaz¹⁷, oiñetakotzaz, eta gero atzera joateko sasoiaren, eurie eixen bazeuen, arek apurtu ez eixeko¹⁸, erantzi eta lepoan imiñi ta oiñutsik joaten ziren.

Sarri askotan, guk euren erdera ulertu eziñagaz, leziñuak ulertu ezin ta bil-

durre eukitxen gendun joateko, ta ori dala-ta, bat edo bi edo geiago alkartu ta sasi-eskola¹ ° eiñ eta txori abi bille joaten giñen euren sasoi edo sagar ostuten bere bardin euren sasoi exaten ba-zan.

OTA EBATEA, ZE MODUZKO BEARRA ZAN...?

Ota ebatea zan orduko denporetan, baserritarrak derrigorrez egin bear zeuden bearra soloak onduteko. Sasoi aretan, abonoak bere gitxiau erosteko, ta ori dala-ta, satsa egin bear zan otearen bitxartez.

Au dana guztiz gogorra ixetan zan, batez bere, ebaitxe gero, euriek artu ezker, bideak bigundu eitxen ziren, ta barrero siketu artean, guztiz gogorra ixetan zan ota karrioa²⁰, ze orduen, egoten ziren bideak estuak, bigunek, arri ba-koak eta latzak.

Onek bearrok, batzutan, bideak direla eta ez direla, uda-goienetan ardura artu ta auzoak alkaturik, negureko etze ondoan pilloak eitxen zitxuezan. Ta onetara, negua pasetako modue²¹ eukitxen zeuen basora joan barik.

GARI ARLOAK ZELAKOAK ZIREÑ

Onexek bai ba-daukezela bear gitxi, baiña gogorak. Asikeratik asi gaitxetzen euren bearrak agertuten. Lelengoan, ude-goienean goldeagaz lurra bueltau, gero, azie erein ta areagaz nastau. Ta orregaz neikoa ixaten zan asikerarako. Ba-dago esakera bat esaten dauena... "Garie basatara eta artoa prasatara"

Gero gienean, ez dauko beste bearrrik udabarrira artean. Orduen eitxen zakon... galeratu esaten zakon bearra; au da, edo area edo estoa²³ pasau ganetik, mokillek jo eta landu eta orregaz eldu arteko bearrak intxe egoten ziren.

Orain bai datozela bear guztiz gogorak. Lelengo ebatea²². Au bear au eitxeko garia asko elduta ba-egoan, goizian goiz, asi bear ixetan zan ebaten, garandu ez eitxeko beroagaz. Baia orduen, sarritxen, pasetan zan, albuana, ba-egoan beste solo bat gitxiago eldute, a ebaten zan bero sasoi ta orregaz ikusi baiño ez dago, zein gogor ixaten zan egun guztien, makurtute, ibiltxea eguzki gogoraren azpian.

Gero, txolatan amarrau eta txurru tzikerretan imiñi eta olan, bero batzuk artu artean eta gero imintxen ziren meta aundiak esaten geuntzen pilloetan.

Gero, itxaron egun batzutan, batez bere, bero aundi batzuk etorri arte eta orduen eitxen zan, zabaldu soban zear, banan banan, an, berotu arte.

Berutzen ziren bitxartean eitxen ziren bearrak ixetan ziren... arriak imiñi eta portalea preparau²⁴ eta bejngoan, azten zan gari-jotea. Gaztetzuek solotik ekarten zitxuezan txolak. Gaztea eta nagusiek arrien jo ta ostean, garie, an, lozten zan aurrekaldean ta galtzue lastegira eroaten zan.

ARTA JORREARI BURUZ... ZER ESANGO ZENDUKE...?

Au bai ba-zala baserriko arazorik aundienetariko bat. Emen, azten zan eguzkiaren udabarriko indar barriagaz batera, urte guztirako sustenturako²⁵ ia-

nada sortuteko bidea. Ori dala-ta, asi bear zan, lelengo, lurrak lantzen, gero artoa ta indabea ereitxen. Andik eta illebeten ta erdira etorten zan iorra sasoie.

Au bai ixetan zala bear bastante gogorra ta guztiz beartsue. Ze orduen, kentzen iakezan bedar guztiek eta lurra gozaturik, artoa inguratuten zan.

Au, olan, ein ezkeronean³⁰, baserritarrak, pozik, egoten ziren. Ze denporeak apur bat lagundu ezkeronean, ikusten zeuden, euren frutuek, ugari, izango zirela ta urterako janariak, seguru, eukezala.

GANADU PERIXAK ZELAKO POZA EMOTEN EBEN ALDI ARETAN...?

Au bai ba-zan baserritarrantzako arazo guztiz beartsue... Ze orduen, sale-rosi guztiek eitxen ziren ferien, bai okelakoak eta bai aurrerakoak. Bertora etorten ziren Bilboko karnaseru guztiek erostera. Eta bardin baserritar guztiek ekarten zitxuezan euren ganaduek, bai okelakoak eta bai aurrerakoak³¹ saltzeko usteen, etxean eukezenak, eta olan, ikusten ziren feri aundiek gaurko aldean.

Ta tratue dala ta ez dala, batzuetan, entzuten ziren diskuziño aundiek; ze batak balio baiño geitxuago eskatuten zeuen ta besteak balioa baiño gitxiago agindu eta orduen formatan zan diskusiñoa ta berbetea eta bateratuten zirenean, euren diferentziagaz, orduen, emoten eutsen eskue alkarrerri, bien konformidadea ixaten zan ori. Ta gero, bai eurak ta alboan egon ba-ziren bi edo iru geiau, ioaten ziren tabernara eta eitxen zeuden euren fiesta ta oneri deitzen zakon alborkea³² ta orregaz akabaten zan tratue.

Okelakoa ba-zan eta pisure ixen tratue, iltxen zanean ixetan zan pague eta aurrerakoa ixetan ba-zan, tratuen bertan ateraten zan kondeziñua edo orduen, ganadue batera eta dirue bestera, edo egun batzuk eskatuten zitxuezen, erosten zitxunek ganadue aprobeatko pagau baiño lenau.

GABON JATEN OSPAKIZUNE ZELAN IZATEN ZAN...?

Onek bai zirela urteko iairik pozenak... Zarrak eta gazteak danak egoten gintzezan itxaroten oneri iaieri... Zergaitxik...? Batez bere gauza bi gaitxik: bata da iana... egun orretan gauze apartekoak iaten ziren beste urte guztien bear ba-da iaten ez zirenak, ze dirue egoten zan gitxi erosteko eta bestea, zelebretan³³ zalako Jesusen iaiotzea.

Orduen deboziño aundiagaz zelebretan zan egun ori. Baitxe bere euki zeuen beste gauze pozgarri bat. Ba orduen, guraso bakotxak bost, sei, zortzi famili eukitxen zitxuezan eta danentzako bear ba-da, ez egoan naiko iateko emoteko erarik. Edo zeozer ikastearren, beste batzuk urtetan zeuden euren etzetik eta familia zabaldute lotzen zan.

Ta ori dala-ta, beste gauzen artean ixetan zan motiboa danak alkartu eta bai urteko iairik pozgarrienak ixetako, bai etxean lotzen ziranentzat ta bai kanpotik etorten ziranentzat.

Onez gaiñera, onen artean, etorten zan Erregeen eguna bere. Au bere guretzako pozgarria zan. Egun orretan eitxen eutsezan gurasuek euren umeari erregalutxuek euren zapatatara. Sano gitxi³⁴ ixetan zan, baia guri ilusiño aundie egitxen zakun eta orretara gurasoak, gu pozik ikustean, eurak be pozik eta gu bai.

Au ixetan zan Gabon iaietako pozen akabue...³⁵

AZOKA EDO PLAZAKOA ZER ZAN ZURE SASOIAN...?

Nire txiki sasoiari, ori zen baserriaren bizimodu erateko bide derrigorrezko bat. Ortuari eintxe ostean, edo arto edo indaba, frute edo beste base-riek dakazen gauzek... eta sobratu ba-ziran eta sobrau barj be, sarri, aurre-rauko gauza batzuk erosteko bear ba-da...

Zer arazo emoten eban ortuari artzeak...?

Ortuari artzeak bear asko ta kargu asko eginbearreko gauzea da. Bata, lu-rra ondo, abonau, ta gero, gane ganean egonda, bere sasoiari jorratu, beda-rrak kendu, bere erreguek emon, eta karakolak, ondo, iagon ta orretara ikusi, ia artuten ba-da³⁶ frutu asko...

ZERTZUK JENERO EROATEN ZIREN AZOKA EDO PLAZARA...?

Jenero asko, obeto esateko, lurrek emoten ditzuzenak³⁷, guztietarikoak, ta euren artean, batzuk onexek dira... Indabea, baiña, arturune, patatea, bera-tzak, tomatea, piperra, azelgea, letxugea, zenorie, sagarra, madarie, porrue, matza, melokotoie, okena, kerixea, intxurrek, gastaiñak, kalabaza fiñek, baita perejille bere. Au zan bat bearrezkoa gauza askontzako.

ZE ESTIMAZIÑO IZATEN EBEN ORTUARIEK, AINBESTE LAN EGIN ONDOREN?

Estimaziñoa oingo modukue orduen bere. Ze, jeneroa egoten bazan pla-zan, orduen, en-segida, konturetuten ziren erosi bear zeudenak eta bere baé-lio eskatuaren, gitxi aginduten zeuden. Ze, ikusi itxen zeuden jenero asko dagola eta etzera, atzera, ez dabela eroango basetxarrak eta merkeau atara daudela.

Baia bestera be pasetan zan. Jenero gitxi egon eta merketariak asko, or-duen, baserriarrak aprobezetan ziren, geitxuau eskatuteko. Ze, jakitxen zeu-den, derrigorrez, erosi bear deutseana. Ze, orduen, ez ziren egon oingo mo-duko fruteriek ta oingo denda andiek, eta orrez ganera, ez zan etortzen oingo moduen kanpotik jenerua.

ORAINGO ALDIETAN LEZ, ETXEKO ANDRAK KAFESNE ARTZERIK EGI-TEN E I E EBEN, ORDUEN, GOZOTEGIETAN...?

Bai zera...! Orduen ez egoan olakorik... Ze, plazan artzen zan dirue, geje-ntan, aurreztitik, okitxen zeuden euren destinoa... Oin, batzuk, nik ezetu dodaz zeuzer itxen zeudenak tabernan, baia orrek ixetan ziren azaukoak.

Ze, batzuk orduen, etorten ziren amabi edo amalau kilometroko distantzitik eta orrek, derrigorrez, egin bear zeuden zeozer. Ze, andra guztientzako ixetan zan bastante gogorra, euren otzarak buruan artu ta etorten ziren batzuk... eta beste batzuk astoagaz ekarten zeitxuzen. Eta asko egoten ba-zan, batzuetan, gurdiegaz bere bai.

PLAZATIK E I XERA... AMAREN ETORREREA ZELAKOA ZAN UMIENTZAT?

Gutziz pozgarrie ixetan zan amaren etorrera. Ze, zeozertxu, beti, ekarten zeuden, ta aunke³⁸, gitxi izen, guretzako pozgarrie ixetan zan. Ni, ondo, akordetan naz, zelan egoten gintzezan neba-arrebak, etze aurrean begire, noz, etorriko ete dan ama eta amoma... Ze, arek bere egun orretan, beti, ekarten zozkun zeozer bere etzera ioakeran.

OARRAK

(Lenengo zenbakia orrialdearena da, bigarrena barriz, lerroarena)

- (1) Oraingo aldean, esaldi au sarritan esaten da bizkaian, mungialdean beintzat. Oraingoagaz konparatu ezkerro esan nai dau.
- (2) Diferentea: Orrelan esaten dau erriak, erdereza sartzen doa, gauza erretetan be bai. Zergaitik ez ez-bardiña edo bardin-eza?
- (3) Mediorik: Erdel berba au be arrigarri jaku euskaldunai.
- (4) Ze: Alkartitz au sarritan agertzen da. Iparraldean erabilten dan zerren itzaren esangura bardiña dauka. Emen gero ez da erabilten atzizkia, ez da esaten "ze ez nazelako etorri".
- (5) Zeuden: Aditz joko au agertzen da beti eben'en ordeza.
- (6) Beren: Beraren laburtua izan bear leuke, baiña euren esan nai dau. Naste bat dago onetan.
- (7) Bere, alkar-izketa onetan beti agertzen da bere, ez ere edo be. Ere gipuzkoarra da eta oba litzake Bizkaia'n ez erabiltea. Bere'k arrisku bat dauka, izen lagunza dan bere'gaz nastea sortzen dauala: Jon bere amagaz etorri zan. Ez dakigun Jon bere ala bere amagaz, esan nai dan. Orregaitik idazle askok beti erabilten dabe be.
- (8) Bizden: erderazko bistan esan nai dau, baiña ez dakigu zelan dan t'ren lekuan d esatea, baiña orrelan entzuten da.
- (9) Ni ondo akordetan naz: Orra zelan euskeratzen dan erderazko "me acuerdo". Euskeraz ez da ondo ulertzen zelan sortu ori gramatika alde-tik: Nik ondo akordetan dot izango litzake araubidekoa.
- (10) Korde bat: Geiago esaten da kordel bat. Ez dakik zergaitik, bear ba'da, erderaz be "cordel" zalako.
- (11) Zakezan: Orrelan entzuten da Mungialdean toki batzutan, baiña beste batzutan jakezan. Alkar-izketa onetan sarritan agertzen da aditz-joko au eta beti orrelan.
- (12) Konpara: Berba au ugari erabilten da, baiña aldean esan da ezkerro (ik.1-2), ederto legoke alderatu ezkerro.
- (13) Asautxukoak: Asau berbearen erroa da, txu: txiki-atziskia, ko: nongoa-tziskia, a: mugatzaillea ta k: askoren atziskia. Baiña zer da azau? Mungialdean baiño ez da entzuten itz au eta urrin esan nai dau, asango?, asieratik urrago?
- (14) Akaba: Sartu jaki erdel-itx au be. Zergaitik ez amaitu?
- (15) Erritxe: Ogi mota bat da, itz oso ezaguna aldi baten, baiña orain ez da egiten olako ogirik eta itza be galdu egin da.
- (16) Ontza: Astuntasunaren neurri bat da, erderazko onza, ez da erabilten txikolate lez baiño.
- (17) Aberketakaz: Erderazko alpargata euskeratuta.

- (18) Apurtu ez eitzeko: Orrelako esaldiak asko erabilten dira Bizkaia'n eta alkarrizketa onetan be bai. Ez ete legoke argiago ta laburrago ez apurtzeko.
- (19) Sasi-eskola: sasi itz onek guzurrezko edo izun esan nai dau, sasi-osa-gille, sasi-abogadu eta sasi-eskola egokia da "novillo" esateko.
- (20) Karrioa: erderazko acarreo'tik artua da.
- (21) Modue: Zergaitik ez erea? Orrelantxe doa sartzen erdera euskerearen barrura, ez ori ez leiteke orrelan izan bear, beintzat euskerazko itz erre-zak daukaguzenean.
- (22) Ebatea: ebagitea: Olako laburtzeak asko egiten dira Bizkaia'n, larregi.
- (23) Estoa: esitua esan nai dauala uste dot eta esia'ren antza daukalako izan leiteke, narraren antzekoa langaillua da, baiña esi-antzer a eginda.
- (24) Preparau: Oraintsu sartu jaku erdel-itz au, len prestau esaten zan. Au be erdel-itza, baiña antxiñago artua beintzat.
- (25) Urritxako illea: Sarri entzuten dan urritan. Bear ba'da urrietan izango da eta ori izan leiteke, toki batzutan, Arratia'n esaterako, iraillaren ta urrillari, biai urria esaten dautselako, ortik, esaterako, urrietan edo, etorri.
- (26) Bataran batek: Antzeko esaldiren bat Bizkai osoan esaten da, baiña ez da erreza nondik sortua dan agertzea, erderazko alguno esateko da. Alguno lateraz aliquis unus. euskerazkoa aliquorun unus litzake, baten arteko batek.
- (27) Konpletoa: Au be oraintsu sartu dan erdel-itza, osoa esan bear litzake.
- (28) Sustenturako: Bardin.
- (29) Bastante: Oraindiño geiago erabilten da naikoa. Esaterako: Naikoa ona.
- (30) Ezkeronean: Mungialdeko esaldia dala uste dot. Naikoa litzake ezker o, baiña ezker oan be entzuten da. Ez dautso atzizkian gauza barririk gaiñer atzen itzari.
- (31) Aurrerakoa: Okelarakoa esaten jake ilteko asten diran abereai eta aurrerakoa etxean bizirik jarraitzeko aukeratuai.
- (32) Alborkea: Lan bat egin edo itun bat izenpetu egiten danean, ospakizun lez egiten dan jatorduari esaten jako alborkea edo albokea. Arabiarren berbea da eta erderaz be alboroca esaten da.
- (33) Zelebreu: Erriak gitxitan esaten dau ospatu, baiña beste barbarik ez da ezagutzen zelebreu izan ezik.
- (34) Sano gitxi: Nagusitasuna agertzeko sarritan erabilten da sano berba au. Erderazko sano dala dirudi, baiña beste esangura bat gaiñer atuta.
- (35) Akabue: Ikusi 1-27.
- (36) Artuten ba'da ikusi: Azkue'k bere Morfolojia'n esana da, gipuzkoan larregi erabilten dala, -tzen eta Bizkaia'n larregi -tuten. Ona emen kasu bat: aditz erroak azkenean izki lagunduna dauanean, emen esaterako, -ar, azkena -tzen izan bear litzake eta erriak be sarritan orrelan esaten dau: kentzen, galtzen, artzen...
Esaldi onetan beste arazo bat da ba'da ori. Emen ez da baldintza, zailantza edo zearretarako itauna baiño, obeto litzake, artzen da ikusi.
- (37) Lurren emoten ditzuzenak: Gipuzkoatik etorria da ditu, eta aldean daro a -it adizkia. Baiña bizkaitarrak ez dira konturatzen eta dituanak esan • bear danean dituzenak esaten dabe.

Indabea: Izen au askotara esaten da. Izatea babea da, laterazko faba'tik artua, baiña gero Ameriketatik edo Indietatik etorri zanari, india-babea esaten jako.

- (39) Aunke: Ona emen bear-izan barik erderatik artzen asi garan itz bat, bu-ruak erdeldunduta daukaguzalako. Orainsu asj dira itxasaldean porke esaten. Antxiñatik entzuten dogu gure artean sikeran be. Euskerea barrutik galtzeko bidea da.

ESALDI JATORRAK

Umeari emon ezkeru kordela luze, egin leike edozein gauze.

Arik eta... Sarritan entzuten da. Arik orrek noiztik asita esan gura dau: Adiskide dira arik eta asarretu arte. Andik (oraindik) asi eta... esan nai dau.

Bideak dirala ta ez dirala.

Garie basatara, artoa prasatara. Kanpotarrak ulertzeko onelan esango geunke: Garia lupetzara, artoa txingarretara (prasa, erderazko brasa).

Bai zera!

Kargu asko egin: Erderaz cargo, ardurapean be esan nai dau, tengo a mi cargo. Baiña emen esangurea zabaldu egin dau euskereak eta kargu egin, baten bateri arduraz begiratzea da.

SOLOZABAL'dar Paulin'ek
egindako alkar-izketa.

EUSKALDUNAK MUNDUAN

LA VIGERIE

Baiona'n jaioa, Frantzia gotzai, Afrikan gongotzai eta elizan kardenal. XIX mendean esklabotasunaren aurkako borrokatzaile purrukatua, Afrikan batez ere. "Anai zuriak" deritzan elkarte misiolariaren eratzaille...

**

"Euskalduna naiz-zion berak-eta orrexegaitik, buru-gogorra; tontorrera eta gaillurrera zuzenean ezin ba'dut, zearka ekingo diot; baiña, gora eldu gabe ez dut etsiko...".

Ala gertatu zan bere bizj osoan: eskuartean artutako lanak goraiño jaso zitun. Baiona'n jaioa zan urriaren 31'an, urtea 1825. Irurogeita amabi urte bete ta il zan 1897'ko abenduan.

Gizon indartsua espirituz eta gorputzez, beti lanean irrikatzen, lagun urkoaren alde beti maitasunez eta maitasun orrek Kristorengan zuan bere sustraia eta oiñarria.

Aita Santu Leon XIII'garrenak zionez, Zibilizazio eta Kristautasunaren aldeko jokabideetan, Lavigerie zan aurrenetako bat munduan historian. Eta orrenbeste zion geroago Ro XI'garrenak ere.

Zer izan zan...?

Ona zertxo batzuek: Paris'eko Sorbona Ikastola Nagusiko irakasle, Oriente'ko Eskolaren zuzendaria, Rota Romana deritzan Epaimaiako bat, Nancy'ko Gotzai, Argel'eko Gongotzai, Mixiolari zurien eratzaille, esklabuen askatzaille, Elizaren Kardenal eta Afrika'ko Apostolu nagusia...

ESKLABOTASUNA ISTORIAN ZEAR

Esklabotasuna Afrikan beltzeen kaltean egiten zan antxiña-antxiñatik. Baiña, sistema bezala XV'garren eunkian eratzen da. Antonio González, portuges-a, itsas-gizona zan eta, mende-erdi ameriketak arkitu baiño lenago, asi zan Afrika egoaldera joaten, Bojador deritzan lur-muturretik beera. Legorrean sartu eta bidaldien ondoren gizaseme beltzak ekartzen zituzten arrapatuta, esklabu bezala saltzeko.

Arrek eman zion negozio negargarri oneri asiera eta bere antzera ekin zioten beste batzuek ere negarra Afrikan zabalduz.

Baiñá, arazo au benetan bildurgarri biurtu zan Ameriketako arkitu ondoren. Asieran kolonizatzailek indioez baliatzen ziran, auek ez bait zuten animarik animalienak ezik. Anai Bartolomé de las Casas eta Rentería euskaldunak, ordea,

indioen eskubideak defenditu zituzten Errege Katolikoaren aurrean eta eurentzako eskubide guztiak eta askatasuna lortu zuten.

Andik aurrera, indioen ordean, Afrikako beltzak esklabu.

Konpañi handiak eratu ziran negozioan aurrera eramateko Afrika barrualdeko probintzietan. Kosta-aldean gazteluak eta txabola handiak eraiki zituzten beltzak gordetzeko barkuak zetozen bitartean, Ameriketarako.

Esklabotasunaren aurkako Frossard jaunak zionez, Ginea'tik 1788'arte, amar milloi beltzek atera zituzten.

Eta Afrika osoan, 45 milloi 1511'tik 1789'ko bitarte guztian.

* * *

Lavjeriek bere mixiolariak bialduta zeuzkan Afrika erdira eta aiengandik jasotako berriekin sutu zan zearo bere biotza eta gogoan esklabuen alde lan egiteko.

"San Ziprianok, neure aurreko gotzaiak, elizako kalizak saldu zitun bezala Afrika'ko orduko esklabuak askatzeko, neuk ere alegiñak egingo dituk gizarajo oien alde, mundu guztiko katolikuen biotzak ikutu arte".

Une artan Brasil'eko enperadorea eta Leon XII'garrena alkarrekin artu-emanetan jarrita zeuden Brasil'eko bi milloi esklabueri askatasuna emateko; orduan gure euskaldunak eskutitz bat bialdu zion Aita Santuari Afrika'ko beltzeen alde jokatzeko.

Idatzi au begien aurrean izan zuan Leon XIII'garrenak bere "In plurimis" enziklika idatzi zuanean, Brasil'go gotzaiantzat, eta bertan mundu zabaleko kristaueiri eskatzen zien alegiñak ekin zezatela lur-gaiñetik esklabutasuna erroitik ateratzeko.

* * *

Askatutako esklabu arabe eta beltzak arturik berarekin, Aita Santuarengana jo zuan 1888'ren Pentekosten egunean, Vatikanoko Sala Ducal deritzan gelara. An agertu zuan Afrika'ko esklabuen egoitza negargarria.

"Egoera iguingarri au lurren gaiñetik zearo kentzeko indarrak duten guztiei erregutu diet-zion Leon XIII'garrenak- alegindu ditezela ori lortzeko; baiñan eginkizun au aurrera eramateko, zuan espero dut, batez ere, Kardenal jauna, ezagutzen bait dut zure kementasuna eta ziur nago Kruzada berri au aurrera eramango dezula bere aizken elbururarte".

ESKLABUEN ALDEKO KANPAIÑA ERALLEN

Aita Santuaren agindua artu ondoren asi zan ekintza ori eratzen. Lenengo Paris'tik ekin zion lanean, San Sulpizio elizaren pulpitotik, gotzai jantziekin: bere mintzo gartsuak suspertu zitun entzule guztiak: "odolak eta sufrimentuak eten; lotsagarri da gure gizaki-alkartearentzak esklabotasunaren irauntzeak; beraren aurka lan egitea, justizi-zuzentasunaren eta askatasunaren alde lan egitea da...".

Egunkari danak onartu zuten bere lana.

Paris'tik Londres'era. Mitin batean parte artzen du, esklabutasunaren aurka; lord Granville jauna zan mitiña eratu zuena eta Ingalaterrako Kardenal Nagusia, Manning Jaun agurgarria, mai-buruko,

Billera onen erabakiek beartu zitun Europako agiantariak esklabotasunaren kontrako neurri sendoak artzera.

Londres'etik Bruselas'era.

Emen 25.000 franko-urre bildu esklabuak erosteko eta 500 gaztek eskeiñi zizkioten beuren buruak, Desertuko Anai Zurien arterako. Berak eratu zuan anaidi au Afrikao Misioen defentsarako.

Gaiñera, gerrako barku bat eeskeiñi zion Erregeak, berberak, Zingira Aundien (Los Grandes Lagos) inguruetan esklabutasunaren aurkako ekintzari laguntzeko. Friburg'en (Alemanian) esklabotasunaren aurkako Kongresuan parte artzerik ez zuan izan, gaixotasunak galerazita; baiña, txoztena bialdu zuan ondo argia.

Espaiña'ren laguntza ere eskatu zuan.

Italia'ra urbildu zan, Ienen Milan'era eta ondoren Napoles'era. Bere deiari emandako erantzuna zoragarria izan zan: beste iñon baiño obea.

Luzerna'ko billera egitekoa zan; baiña, Lavigerie gaixo eta arren ordeztzar aundi bat egin zan Paris'en gure kardenala buru zala. Billera onetara nazio geienak bialdu zuten buroen ordezkariak. Erabaki bat auxe artu zuten: Aita Santuari zera eskatzea, parroketan eskabide bat ekintza onen alde egitea urteero. Lavigerie berak eraman zion eskabide au Leon XIII'garrenari. andik sortu zan Epifani egunean parroketan egiten zan esklabuen aldeko eskea.

* * *

AFRIKA'KO MIXIOLARIA

Apaiz berri zala, liburutegi bateko idazkari, Mixiotako gaiak erabilli zitun liburu zerrenda bat idazteko. Orrekin bakarrik ez zan, ordea, konforme eta 1872'an Afrika'ko Kabila artean ibilli zan mendi-maldarretan zear mixiolari. Pio IX'garrenak bere ondoan nai zuan apaiz ura; baiña, Lavigeriek eskatu zion arren eta arren utzi zezaiola bere barruko mixiolai-garrari jarraitzen...

* * *

Nancy deritzan elizbarrutiko gotzai izendatu zuten; bere gogoia, ordea, ez zan esi estu aretan baretzen eta Argel'erako izendatu zutenean, orduantxe bere onera etorri; Argelia ikusten bait zuan Afrika'rako ate zabal baten antzera. Afrika zuan Lavigeriek bere biotzaren kezka guztien erdian.

Arabeak zitun ifar aldean eta beltzak egoan; auekin lana zuzenean egin bear zan Kristo eta bere Eliza agertuz; aiekin, berriz, zearka maitasunezko ekintzen bitartez,

Pio IX'garrenak Sahara eta Senegal'eko Delegado Apostoliku izendatu zuan.

* * *

Goztai gazte arrek bere burua Afrika'ko Apostolutzarako aukeratua ikusten zuan eta Argel'era eldu zanean onela zion:

"Zorioneko Eliza afrikarra, zure naigabeak gozatzera natorkizu eta zure garai bateko ospea berritzera. Martirien odol artean sortu eta azia zera eta, zuretako seme batek zionez, martiri-odola kristau berrien azi emankorra da. Ala gertatu dedin nere malkoak zureekin naastuko ditut eta bear ba'litz nere bizia ere emango nuke zure alde, zu aundi eta ospetsu ikuste arren".

Eta aurrerago:

"Afrjkar lur au nazio kristau eta biotz aundikoa egin nai dut, zuen bitartez, eremuan zear, Afrika erdira eldu aal izateko, bertan dauden erri negargarri ajek lurretik jaso eta Kristautasunera erakartzeko...".

Ifar-Afrika eta Afrika Erdikoa, guztiak nai zitun Kristorentzat.

ARGEL'EN

Bera eldu zanean, jzurri edo peste jkaragarri bat agertu zan Argelia'n, ondorengo gosete eta mixerjarekin. Umezurtzentzako etxeak eta gaixoentzako ospjtalak eraiki zitun eta neurrigabeko ondasunak zabaldu.

49 eliza berri eraiki zitun eta 313 parroki eta kapilla berritu. Bi seminario apaizgaintzako, gazteez beterik, jaso eta ondoren 900 erlijioso, andre eta gizon, ekarri zitun gaxoitagi eta eskoletarako...

Argelian kristautasuna errotuta, bere semeak bialduko ditu Sahara, Sudan eta Afrikaren ardatzean dauden errietara. Auen artean, Uganda'ra, bere seemeen odolez ongarritutako errira.

* *

EGOKITASUNA

Afrika'ko [fa-aldea arabea da eta auekin zearka ibilli bear kristau batek eurar bereganatzeko. Ori ondotxo zekian Lavigere mixiolariak. Otoitza eta kariadeko ekintza erabilli bear, kristau sustraiarj zirrikiturik zabaldu aal izateko. Gaiñera mixiolariak bere burua egokitu bear islamitarren bizi-moldeari.

Orregaitik agindu auek ematen dje beure semeeri: arabe izkera erabilli beti eta kabileena, iñoren laguntzarik gabe, interpreterik gabe, itzultzaillerik gabe. Eta ez dute bein ere frantzesez itz bat ere esango. Orretzaz gaiñera, arabeen bizimoldeari oso-osorik egokitu beuren buruak.

Orrela mixiolaria ikusten ba'dute euren mintzaira darabillela, euren antzera bji dala janean eta pentzakeran, gogo onez artuko dute euren artean eta orrela apurka-apurka atea ireki kristautasunari,

Lana benetako zailla eta gaitza, atzerritarrentzako biotza gorrotoz beteta bait zuten arabeak garai artan.

* * *

1873'garrenean Djurdjura aldeko errixkak dira aukeratuak apostoladutza egiteko. Kabilatarrei erlijiorik ez aitatzeke ere, agintzen die bere mixiolariei, eurar sisten dituzten dogmak ez ba'dira: "sendatzen eta erakustea, orra apostoladutza guztia, egia eta maitasuna". Erakustea, umeeiri eskola ematea zan. Besterik ezer ez. Erljio-erakutsirik ez, iñolaz ere ez: ez agerian, ezta bakarka ere, iñungo aitzakirik gabe. "Ez da iñor kristau egiteko ordua, biotza maitasunez irabastekoa baizik: ortikat egiten dezutena, lan guztiak alperrik galtzea izango da...".

* * *

MIXIOLARI BERRIAK

Lan onek langille bereziak eskatzen zitun eta orretarako 1868'garrenean

seminario bat eraikitzen du. Zertarako? Mixiolariak arabe eta beste Afrika'ko errien arauera bizitzen ikasi dezaten, Eurak joango dira Argelia-egoaldeko basamortuan aurrera Senegal eta beste erri beltzeen artera...

Arabe-antzera jantzi zitun: soiñeko zuri luzea eta orren gaiñean kapa zuria. Apaizak, agerian eta bular-gaiñean, errosario bat; apaizak ez ziranak, berriz, leku berean, gurutze gorri bat.

"Emengo mixiolaria gorputzez afrikar bear du izan, eta gogoz, kristau". Orrela jantzitako mixiolariei bilduta zeuzkaten umerzurtzek egün zieten arrera zoragarria izan zan. Lavigeriek arrazoi.

Egokitasun onen emaitzak ugariak izan ziran Kabilatarren artean. Bostgarren kristau ziranak, gerora musulman eta orain berriro kristau izaten asiak... Ogei urte pasa baiño lenago giroa sortuta zegoan kristau-dotriña argi eta garbi erakuzten asteko erlijioaren eta Elizaren kondairaren bitartez, dotriña-libururik eskuetan ipiñi gabe.

Pixkana-pixkana kristau egiten, kristau-giroa sortu zuten mixiolari aiek Kabi-laetan, bataio, ezkontza, illeri-kristau eta abarren bitartez.

EMAKUMEA MIXIOLARI

Bereala konturatu zan Lavigerie gizoneen lana ez zala naikoa eta emakume arabeak emakume kristauak bear zitula bere laguntzarako... Emakume batek errezago ikutu zezakean beste emakume baten bñotza eta arabeari bere neketan lagundu...

Pentsa eta egin: andre Mixiolari Zurientzat lekaidegia sortu zuan 1869'an Arjel'en bertan. Euren kargu egongo ziran gaxotegi, umezurtzen-etxe eta eskolak.

Bada kristau-errian "Sodalicio de San Pedro Claver" deritzan elkartea, mixioetara joan gabe, mixiolarien alde zuurki jokatzeko duena. Lucerna'n sortu zan: Esklabotasunaren aurkako Kongreso eratu zan eta bertan Lavigerie'k itz egin. Berba aiekin zirikatuta Maria Teresa Ledochowska kondesea etorri zitzaion eta topaketa artatik sortuko zan Mixioen aldeko elkarte berria.

Bere mixiolariantzako arauak berak ematen zitun; baiñan, orretzaz kanpora, bakoitzari ere idazten zien bere aolkuak emanez eta animoa jazoz... eta euren lanetarako dirua Europa eta Canada'n eskatzen zuan bertara apaizak eskean bialduta. Arjel eta beste Ifarraldeko Afrikako errietan amar milloi urrezko franko banatu zitun.

AFRIKA ERDIRA

Ebanjelioa Afrikaren ertzeetatik zebillen, baiña Afrikaren biotzik ez zuan ikutu oraindik.

1878'garren urtean Livingstone eta Stanley esploradoreak Kongo inguruetako beuroen ibillaldiak amaituta zeuzkaten. Ibillaldi oien ondorio bezala Nazioarteko Elkarte bat eratzea erabakita zegoan erri aieri zibilizazio eramateko: europar arteak, produzio-bideak eta sal-erosketak batez ere.

Asmo oiek orrela zirala, Lavigerie Aita Santuarengana jo zuan, Elkarte orrekin batera mixioak sortu bear zirala esatera. Eta bera, bere seme-alabeekin, prest zegoala toki aietara joateko. Pio IX'garrenak esandakoa onartu zion, baiña, erabaki ori aurrera eraman baiño lenago, il zan.

Ondoren etorri zan Leon XIII'garrenak, Otsaillaren 4'an, 1878, Mixiolari Zuri eiri Vitoria, Nyanza eta Tanganika zingirien inguru guztiak eskeiñi zizkien mixioak eraitzeko. Garai aietan zailtasunez betetako tokiak ziran aiek... luzeak eta zabalak.

Gazte batzuek pozik prestatu ziran lan artarako. Iru mixiolari bialdu zitun basamordutan zear Tomboctou zeritzan errira, ifarretik egoaldera; baiña, bidean erail zituzten. Bialdu zitun beste iru eta suerte berdiña izan zuten. Sahara'ko are legorrak kristau-odolez buzti ziran.

Une artan esan zitun Lavigeriek itz aukeratu:

"Euskalduna naiz eta mendian zuzenean igaro ezin ba'dut, zearka egingo det... eta tontorretik edo aldamenetik beste aldera pasa gabe ez dut etsiko. Burugogorren fama ez dugu alperrik eramaten".

Erditik eta zuzenean pasa ezin eta orduan egoaldetik bialdu zitun: Marseilla'n ontziratu ziran amar mixiolari Zuri itsasotik egoalderuntz, Afrikaékostatik zear. Eldu ziran Zingira Aundietara; ez, ordea, osorik taldea.

* * *

MIXIOLARIENTZAKO AOLKUAK

Mixio-postu berri bat sortzerakoan aukeratu gogoan izan:

Arabeak esklabu-tratorako dituzten tokietatik alde egin mixio bat sortzerakoan, esklabutasuna ostropo galanta baita da kristauak egiteko.

Protestante-mixioa dagoen tokietan ez mixio-katolikorik sortu, naastea sor ez daiten bertakoen espirituetan. Alde egin amar kilometroan gutxienez.

Toki osasuntzua izan dedilla, jende-tarte onekoa eta emankorra lurra bertatik bizi aal izateko. Onartzen ez bait zaituzte, alde egin beste erri batera.

* * *

Izkuntzari buruz:

Sei illebeta pasatzean mixiolariet erriarren mintzoan berba egingo dute, euren artean ere bai.

Osasuna:

Bearrezkoa da eta orregaitik alde egin leku kutsatuetatik eta etxeak toki airosoan jaso.

Janariak:

Bertakoak izan bitez beti. Norberentzako norberak atera bear du jatekoa, Europa'tik edo Propaganda Fide'retik laguntzaren zai egon gabe. Orretarako lenengo egunetik asi matsondoak aldatzen, garia ereiten eta abar. Lan auetarako bearrezkoak dira Anaiak, mixiolariak eurak espirituen lanerako egon bear bait dute gorputz eta espirituz.

Dotriñari buruz:

Kristautasuna zuzenean erakutsi; baiña, ez gauza danak asieratik. Lenengo gizaki guztieri dagokien egiak Jainkoarekiko; ondoreñ Jesus'en berri eman eta Elizarena, eta oiñarrizko diran egiak kristautasunean. Egi oien ondorioak gerorago etorriko dira. Eragozpen aundienak eskontzatik datoz: poligamian bi zi dira eta emazte bakar batekin konformatzea ez da erreza...

Biurtzerari buruz:

Elizaren asierako egitarauak berritu zitun Aita Santuaren baimenarekin eta iru maillak ipiñi biurtze-bidean: eskabidea egiten zutenak, katekumenoak eta bataiatuak. Kristau-bizitzak eragozpen aundiak zitun giro artan eta aurrera egindakoak atzera egitean, eragozpen oiek zirala-ta, beste kristaurentzako beatz-topo izan ez zitezten, ortarako ipiñi zitun iru maillak.

Lenengoan erakutsiko zitzaizen izakiaren oiñarrizko egiak, kristautasunaren argitan. Bigarren maillan, kristasunezko egi zakonak, baiña sakramentuetatik bat bakarra: bataioa. Eukaristia eta elizkizunik ez. Irugarrenean ez da sekreturik izanen.

Lenengo maillan gutxienez bi urte; eta beste bi, bigarreanean. Lau urte oiek pasata gero, eta mixiolariei egoki iruditzen ba'zaie, orduan eman bataioa. Zerbait alditan, orde, ohea izango da bataioa eriotzako ordurarte luzeratzea; batez ere poligamia arazoan, emakume batekin konforme izango ez ba'dira.

EGIÑAKOTIK ZERBAIT

Lavigerie 1897'an il zan. Andik ogeita amar urte baiño lenago, Uganda'ko erri nagusian katedral berria eraiki zuten. Bear izan ziran milloi t'erdi ladrillu Mixiolari Zuriak egindako labeetatik sortu ziran, uri nagusitik kilometro batzuetara, eta andik errira kristauek eraman zituzten beuren bizkarretan.

Nazioko agintariak an ziran.

Kantuak apaiz gai beltzeek osatutako Schola Cantorum'en mende.

Kristauak bertan irureun milla baiño geiago ziran eta katekumenoak beste orren beste. Lurrak osasundu, bideak urratu, erri berriak sortu... Kristautasunarekin batera onura guztiak eraman zitun Lavigerie'k eta bere Elkarteak Afrikan zear...

Dei ukigarri bat egin zien Frantzia eta Europa'ko seminarioei, Afrika beltza Kristorentzat irabazteko. Bere deiari erantzunez etorri zitzaizkion mixiolari-gaiak Frantzia, Belgjika, Holanda, Alemania eta Canada'tik. Guztien biotzean asmo bakarra: mundu beltza Krsitorentzat irabastea.

* *

Il zanean bere gorpua Cartago'ko eliz-nagusian eortzi zuten, berak aurretik bedeinkatutako illobian.

A.A.A.

ERRIARI ENTZUN ETA BILDUTAKOAK

(JARRAIPENA)

- 67.- **Aize berritzera irten al dezute?** Salir a orearse. Azpeitia.
- 68.- **San Joan, San Joan. Nekez etorri eta bizkor joan.** Lo bueno pasa pronto. Azpeitia?
- 69.- **Ba gare? - Pixkat bada ere.** (Diosala edo agurra egiteko), Azpeitia?
- 70.- **Janda: prantzesa poztu, ezpañola oztu. ¿?** Loiola.
- 71.- **Gizon ori etxe-jan bat da. (Etxe-kalte da).**
Gizon ori etxe-jantzie da. Hace prosperar la casa. Loiola.
Etxea jantzi. Amueblar la casa.
- 72.- **Jendearteko ederra.** Popularidad.
Ez zan berori ederra lengo egunean jendeartean. No tenía Ud. gran popularidad. No le dejaron a Ud. bien parado! Buena le pusieron a Ud.
- 73.- **Aren zopie (zopa) auxen zan: onak izan.** Su **muletilla** era esta: sed buenos. "Zopa" frase repetida muchas veces.
- 74.- **"Sakon aundia" bear du mutil batek soldaduzkan ez galtzeko.** Mucha base, mucho fondo. Convicciones profundas.
- 75.- **Bai, itsusia aizela.**
- 76.- **Artuak eman du sabore.** El recibir es incómodo si no se puede devolver. Azpeitia. 1955.
- 77.- **Au da bizimodua! Jan eta edanekua.** Darse la gran vida. Elgoibar.
- 78.- **Bai, zuek beti "ostrokuan" bizi zerate.** Darse la gran vida. "Ostrokua" fiesta con que se celebra la terminación del tejado. **Baí, zuek beti maitan bizi zerate.**
- 79.- **En pin! Jaungoikoak egin zuen Mattin. Iurra ta bustiñakin.** Elgoibar. Genio y figura hasta la sepultura.
- 80.- **Ardo onak pits gutxi.**
Debalde edan bear duenak itz gutxi. A caballo regalado... Azpeitia.
- 81.- **Mokolin.** Sudur- luzeari esaten zafo Zerainen.
- 82.- **Ezeztatu egin gara Loiolako etxe aundi onetan.** Nos hemos perdido...
- 83.- **Balego eta balitz, alkarrekin dabiliz.** Quedarse con las ganas.
- 84.- **Ezkondu, ezkondu.**
- **Norekin, norekin?**
- **Ideakuek ideakuekin.**
El son de las campanas de Zestoa.
- Idekuek ideakuekin.** Cada oveja con su pareja. Azpeitia.
- 85.- **Jeiki aundiko gizona.** De grandes recursos. Que descuella mucho. Azkoitja. Kukuerrin.
- Mendi jeikiak. Mendi apalak.** Montes altos. Montes bajos. Zerain.
- 86.- **Nik ez daukat ortan gal-irabazirik.** Ni pierdo ni gano. Me es indiferente. Azpeitia.
- 89.- **Artue egin.** Hacer un pliegue al vestido. Zerain.
- 90.- **Santuaren izenean jartzen det nere ltza. Lo juro por el santo...** Loiola.
- 91.- **Soka luzea da ori eta itz gutxitan esatera noa.** Es un cuento muy largo y lo voy a abreviar. Loiola.

- 92.- **Oiek baztar-saltsak besterik ez dira.** Chismes. Loiola.
- 93.- **Loiolako ostropea bezelakorik ez da egingo Probintzia guztian...** como el parque de Loiola.
- 94.- **Asko eskatu al dizu? - Oij Aoa neurri!** Precios abusivos. Lasao.
- 95.- **Kattalin Titare-ko baino jatun aundiagoa.** Comer como un sabañón. **Kattalin Titara-ko. Jateko dana triparako.** Esaera zarra.
- 96.- **Mari-aldarte bat da ori.** Es una caprichosa. Azpeitia.
- 97.- **I ba aiz bateko bat.** Buen pájaro eres tú. Lasao.
- 98.- **Oraingo umeak zorriak baiño lotsagabeaguek datoz.** Loiola.
- 99.- **Orrek artu du egurtue!** Qué paliza. Loiola.
- 100.- **Zer da gero olakue?** Qué cosa más maravillosa!
- 101.- **Jai daukat.** No tengo nada que hacer en este asunto. Azpeitia.
- 102.- **Neska ori da Sorgin Pitxi!** Chica llamativa...
- 103.- **Gainera saborerik ez dago orain baserrian.** No da gusto vivir en el caserío. Azpeitia.
- 104.- **Ori kukuari prakak egitea da.** Es un trabajo inútil. Aranzazu.
- 105.- **Txepetxa!** Cobardel Zerain. Arranoa!
- Arranoa! Arrano ori!** Pícaro, ladronzuelo. Zerain.
- 106.- **Gauza oiek izatezkoak al dira?** Esas cosas son reales? Azpeitia.
- 107.- **Eun kilokoa dago Bixente.** Pesa 100 kilos. Donostia.
- 108.- **Makal arbola oiek zenbat luzekoak dira? Bata bestearen luzekoak, eta alkarren lodikoak.** Longitud y grosura. Azpeitia.
- 109.- **Medikurik izan al du amak?**
- **Bai, bat izan eta beste bat izateko.**
 - **Zein da izana eta zein izatekoa? Azpeitia.**
- 110.- **Aizak! - Jan itzak azak!** Azpeitia?
- 111.- **Inpernuko Txikito baino areago aiz!** Eres peor que el demonio. Azpeitia.
- 112.- **Igandeko meza, Astaburua-ko andre zenaren animaren onetan.** En sufragio de... Arizkun. Baztan.
- 113.- **Zazpi egun sartu ditugu lan onetan.** Hemos empleado 7 días. Zerain.
- 114.- **Gaur ditu asko egingo zenduten dendan?**
- **Bai, gaur Ebro eta Garate Negocio redondo.**
- Uste du bera Ebro eta Garate dela.** Cree que es tu autem. Que no hay otro como él. Azpeitia. Kanpaxa.
- 115.- **Orrek mastuko likikek Ebro eta Parix.** Capaz de revolver el mundo entero. Azpeitia.
- 116.- **Orrek egin zidan jeikie!** Cómo se me puso! Getaria.
- Jeiki aundie izan du aurten Meza Nagusiek!** Revestir mucha solemnidad. Azpeitia.
- 117.- **Bai, orri agintea gustatzen. Ori beti gaiñeko gizon.** Le gusta flotar. Andar siempre con los grandes. Azpeitia.
- 118.- **Neskatxa etzan buztiñarekin egitekoa.** No era una chica cualquiera. Eusko Folklore.

Agerretxo
Iñaki Goikoetxea S.J.

Oarra: Lan au BIA'k (Bizkaiko Idazleen Alkarteak) eraturako leiaketa batera aurkeztu zan. Gure eskerrak BIA'ri, bere baimenagaitik)

ERRIETAKO GIZON PRESTUAK

JOSE MARIA ALBISU SARASOLA 1882 - 1955

Bateren-baten bizitza idazten danean, lenego aipatu oi dan gauza auxe izaten da: nun jaioa zan eta nortzuk izan ziran bere gurasoak.

Jose Maria Albisu, gure aita, Lazkao'n jaio zan 1882-garren urteko Otsailaren 14'an. Zeaztasun onek ez du, noski, ezer-berezirik.

Bere gurasoak aipatzean, ordea, Anastasio bere aitarekin egiten degu topo, eta onek, bai, merezi duala aipamen berezi bat. Teresa Sarasola'rekin ezkondua, oso-gazterik il zan gure aita-jaun au, Lazkao'n "aitonari" deitu oi diogunez: 51 urteekin alegia. Berak sortu bait-zuan, ia-oraintxe arte ain-ezaguna izan dan "Hijos de Anastasio Albisu" sutegia.

Erriko alkate ere izan zan, baiñan berak egin zuan gauzarik arrigarriena beste au izan zan: 1903-garren urtean Suiza'ko Vevey erriko lantegi batean turbin bat erosi, eta berak sorturiko Lazkao'ko sutegian lanean jarri... Eta au da arrigarriena: A. Edison'ek argi-indarrezko bonbilla 1878-urtean sortu zuan, baiñan mendearen azkena ere etorri zan, argi-bonbilla oiek mundu osoan salgai ipiñi ziranerako. Eta bosten-bat urte geroago Lazkao'ko etxe ta kaleetan piztuak zeuden argi-bonbilla oiek, aipatzen ari geran Anastasio Albisu orri esker...Paris'en eta Erroma'n ere izan zan, eta oraintxe-ia gorde izan det nik-neonek ark Erroma'tik euskeraz egindako tarjeta bat.

Onela zion berak, ortarako baimena eskatuz, 1905-garren urteko Abenduaren 26'an Udaletxera biali zuan ezkutitzak: que tiene el honor de exponer que desde el primero de enero de 1906 podría suministrar a este Ayuntamiento la luz eléctrica durante dos años por 1 peseta y 50 céntimos por cada luz o lámpara.

Eta beti entzun izan det ere, Urbitarte izeneko bere etxean ez zirala sekula falta-izan garagardoz beteriko bi upeltxo.

Eta auek-danak, 51 urteekin il zan, eta amar ume azi zituan garai artako gizon batentzat ba'ziran zerbait...!

Utzi dezagun, ordea, gurre aitonaren aipamen au ta jo dezagun Jose Maria, gure aitarengana.

Oraindik-orain aipatu degun Urbitarte etxean jaio zan au. Izan ere "ur bi tar-tean" zegoan kokatua etxe au. SUSTRAITZ errekatxoa alde batetik, eta AGAUNZA ibaia bestetik.

Ataun'go Urkola basarriko Mercedes Ayerdi'rekin ezkondu zan eta lau ume izan zituzten. Iru mutil eta neska bat... Eta ez nuke, esango dedan au, iñork arrokeritzat artzerik nai, baiñan gure ama onek ere, merezi du bere aipamena. 82 urtez il zanean, onela eman zuan izparringian bere eriotzaren berri Lazkao'ko berri-emalleak: "erri osoaren ama il zaigu". Ezin ba, gorespen aundiagorik eman.

"Bat" izandu zan gure ama-ta,
ukatzea ez da libre,
aren antzeko emakumeak
ez lirake il bear ere...!

Gauza auek orrela dirala, etra idazkiak izen-ordez izenpetutzeko oitura zan garai artan, nik-neronek ere, lantxo bat edo beste onela izenpetu izan nituan: Urbitarte ta Urkola'tar Anastasio, geientxuenetan Sustraitz izenpetutzen ba'nituan ere.

Jose Mari, gure aitak, ez zituan, bear bada, Anastasio, gure aitonaren urrats berdiñak jarraitu, baiñan oso buru argikoa izan zan, eta berak eraman izan zituan beti-ere. "Hijos de Anastasio Albisu" sutegiko gora-bera guztiak. Oso atsegin izan zitzaion izkuntza berriak ikastea. Frantzerara nolabait menderatzen zuala esan genezake. Eta Donato Arrinda bere illobak eskuratu zion ingles-iztegi bateri eta Ingalaterra'tik bialtzen zizkion egunkariei esker, zerbait ulerterera ere, iritxi zan.

Gogoan det oraindik nik-neronek orduan esaten nuan au: gure aitar; jñork errusiera ikasteko gramatika ta iztegi bat bialduko ba'lizkio, une ortantxetik asiko zala errusiera ikasten...!

Ala ere, ta bere sendimenduak agertzea geiegi gustatzen ez ba'zitzaion ere, ondo dakit nik euskera zuala bere izkuntzarik maiteena. Gogoan det oraindik Saturraran'go apaizgaitegira lenengoz joan nintzanean, zer esan zidan: "ez zak euskerarik aaztu".

Eta esan dedan onen adierazgarri bezela, bego orain esango dedan au: etxean amari erderaz itz-egiten ba'genion ere, ez aitari ordea. Eta alperrik egongo zan etxe osoa erdaldunetz bete, guk, ala ere, ez genion gure aitari erderaz itz-egingo...! Eta ez aitarengatik orrelako agindurik artu genuelako...! Eta emen agertzen diran, berak idatzitako ipui eta beste, auetxek dira bere euskerarenganako zaletasunaren lekuko batzuek. 1934-garren urtean idatzia eta Anastasio Arrinda, bere illobari Gasteiz'ko apaizgaitegria bidalia.

1907-garren urtean sortu zan "Gipizkoarra" abertzale - astekaria. 25 urte zituan orduan gure aitak, eta gaizki ez ba'nago, arpedun izan zan gure aita. Eta ez naiz orregatik arritzen orain, Engracio Aranzadi "kiskitzaren" ERAINTZA (siembra del nacionalismo vasco) liburuan esaten zaigun onekin: 1908-garren urtean alegia, Zumarrago'ko Antiguano bildu ziralara "lenengo Gipuzkoa Buru Batzarra" aukaratzeko Gipuzkoa osoko 40 ordezkari, eta Jose Maria de Albisu, nere aita izan zala bertan Lazkao'ko ordezkari.

Ala ere, eta leen esan dedan bezela, bere sendimenduak gordetzeko oso askarra izan zan gure aita, ta ez det uste, iñolako politika-jardunik entzun genuanik beiñere gure etxean. Sermoirik gabe sartu zigun, noski, euskera ta Euskal-erria'renganako zaletasuna. Udaletxeko "sindico" ere izan zan: diru-zaiña, diru-arduraduna, alegia...

Gerora ordea, Urbitarte'ko sutegi au, errota biurtu zan, eta Errota-txiki ize-nez ezagutu genduan guztiok. Ordurako ba'zegoan, izan ere, beste errota bat Lazkao'n. Eta oni deitzen genion Errota-aundi.

Gogoan det oraindik, gure ume-aroan zutik zegoala artean, Errota-txiki'ko atarian, gure aitonak-eta, abereak parratzeko bear izaten zuten tramankulu aundi ura...

1978 urtean erori zan ordea, Errota-txiki, gure aurrekoen Urbitarte ura...

Buru-argi bezein umoretsua izan zan Jose Mari Albisu gure aita: bere inguruan alaitasuna zabaltzen zuan gizona: ateraldi ederreko gizona...

Filosofi-ikasketak egiten ari nintzan ni orduan, Gasteiz'ko apaizgaitegian (1933). 18 urte-edo izango nituan, eta nere aitaren eskutitz bat jaso nuan. Esaera onekin ematen zion asiera eskutiz oni: Qui potest capere, capiat... (Au ulertzeko gauza danak, uler dezala) nereak dira kako-arteko itz auek. Eta goitik-beeraño umore ederrez betetako latera-mordollo batean idatzirik zegoan eskutitza osoa.

Eta au ez da, nere aitagan, ain-arrigarria... Esana degu leen ere, nere altaren izkuntzetarako griña. Eta ezin ukatuko degu bestalde, garaj artako mezak (otoitzak, irakurgaiak, ebanjelioak) lateraz egiten zirala beti (1933). Ta zaletu batek zerbait ikastea ez da ba, ain-arrigarri...

Garaj artan Gasteiz'ko apaizgaitegian, apaizgaientzat etortzen ziran eskutitz guztiak bertako irakasleetako batek irakurtzen zituan leenengo, eta bakoitzari berea eman gero.

Nik ba'dakjt, nere aitaren eskutitz au, eskuz-esku ibjlli zutela bertako irakasleak, eta pensatu ere, pensatu zutela, bertako "Gimnasium" aldizkarian argitaratzea, baiñan...

Fitero'ko baiñu-etxean arrapatu zuan 1936'ko gerrateak: Ñaparroa'n alegia, ta ezin, momentuz, etxera etorri.

Etzarri-Aranaz eraño iritxi zanean, lasaitasun pixka-bat izango zuala uste zuan, baiñan an- bertako lagun-lagun batek, ez ziola Espaiña'ko banderari besorik jaso-eta, pistola batekin meatxutu zuan. Eta ez zan au, dana izan...! Aralar-mendian baitu zituzten gazte batzuek ekarri zizkijoten gero aurrera, eta Joseba bere semea zegoan baitu aien artean... Ezin-esanekoa zan ba, etxera ekarri zuan izua... Eta lenengo egun aietan, zegoan tokian zegoala, berebil baten otsa entzutea naikoa izaten zuan. besoa-jasotzeko kiñua, oartzeko, egiteko...

Eskutitz bat etorri zitzaion bein "frentetik", et au esaten zion soldadu batek bertan: aspertuta zeudela "gerrako madrina" aiekin. Ez zietela "dententes" eta "Konseju onak" baizik bialtzen, eta "padrinos de guerra" nai zituztela beoiek ordutik-aurrera, eta bera aukeratzen zutela lenengo "padrino de guerra" bezela.

"Frente" artantxe zegoan Luis Arrinda, bere illoba ere, ta onela erantzun zion idatzi zionari: pensatzen det, Irutasun Santuaren antzeko misterio bat gertatzen dala zuen artean ere. An iru persona ta Jaungoiko bat-bakarra dan bezela, or, alderantziz beste au gertatzen dala: firma bakar ortan bi persona izkutatzen dirala: Luis, nere illoba eta zu...!

Eta tabakoaz batera, ark bialtzen zizkien eskutitza aiek, erregalorik ederrena izango zan aientzat...! Eta Luis aipatu degun ezkerero esan dezagun, esan ere, gerratean i! zala gizajoa...

1939-garren urtean, guda bukatu zan urtean, eman nuan nik ere, nere meza barria.

Eta ba'zan, orduan, Lazkao'n oitura bat: meza berria ematen zuanak egiten zuan, urrengo urtean, San Prointxio eguneko sermoia: erriko festatako sermoia, alegia... Eta alaxe egin nuan nik ere...!

1941-garren urtean ordea, Donato Arrinda'k eman zuan bere meza barria. Eta oiturari jarraituz, ark egin bear zuan 1942-garreneko San Prointxio sermoia.

Ondo zekian gure aitak ordea, asko kostatuko zitzaiola Donato'ri "baiezkoa" ematea, eta pixkat lagun naiean-edo, berak idatzi zion sermoi oso-oso, laterazko bere atalburu ta guzti... Donato ez zan ausartu ala ere. Eta orduan

nik, onela esan nion Lazkao'ko Errotore jaunari: ez ba'dezu eragozpenik, nikeronek egiongo det berriro San Prointxio eguneko sermoia, datorren urtean... Eta onela erantzun zidan berak: eta zergaitik ez dezu aurten egiten...? Eta besterik-gabe "baiezkoa" eman nion.

Kosta zitzaidan ura buruz ikastea, ikasi nuan ordea, ta ondo ikasi ere. Ez nuan, ez itzik-aldetu, ez-eta itzik-galdu ere. Nere aitak idatzi zuan bezelaxe, esan nuan nik sermoi ura, urte artako San Prointxio-jaiean...

Eta batzuen-batzuk onela esan zioten ondoren gure aitari: sermolari ona dezu zure seme ori, Jose Mari...! Eta baita gure aitak bat-batean erantzu ere: ez naiz batere arritzen orrekin. Izan ere, ama du orrek etxean, munduko sermolaririk onena...

Ala ere, ta bazkaltzerakoan, nabarmen ikusi nuan nere aitari, sermoi orrekin eman nion poza. Ez bait-zuan uste, orrelakorik egin bear nuanik...

Izan ziran Lazkao'n ere, gerratea bukatzean, beren Beasain'go lantegieetatik kanpora botatako banaka-batzuk gorriak zirala-ta... Lazkao'n bizi ziran ordea, eta gure etxeko langilleak izan ziran geroztik.

Zenbaiten erantzunkizuna ez ote zuan, garai artan, bere gain artu Jose Mari Albisu, gure aitak...!

1943-garren urtean izendatu ninduen, ni ere, Azkoiti'ko apaiz. Araba'ko Fontetxa'n igaro nuan leen urte-bete ta Pasai'ko Trintxerpe'n beste iru...

Azkoiti'rako nere izendapena etxean azaldu nienean, au besterik ez zidan aitak esan: Azkoiti ortan izan dituk zalaketa ta asarrerik aundienetakoak politika-dala ta ez-dala. Ibilli adi, bada, kontuz...

Izan ere, pake-zale porrokatua izan genduan beti gure aita, ta ez zekian errita bat egiten ere... Eta gogoan det ondo, gaiztarkeriren bat umetan egiten genduanean, aitaren zai egoten giñala etxera joateko. Bagenekigun eta, ama erritan asten ba'zitzaigun aitaren babesa izango genuala...

Asko-ta-asko izan ziran gure aitaren ateraldi eder eta barregarriak. Eta zenbait eta zenbait olako ez ote zituan entzun gure etxe-aurrean zegoan "arrote bankoak". "Arlote" izen au ere, gure aitari zor bait-zion zelaiko jarleku onek. Ala ere, iru auek besterik ez ditut nik, adibide bezela, aipatuko:

Don Jose Lasa genduan, orduan, Lazkao'ko sendagille jaun. Ura ta gure aita lagun-miñak ziran biak. Ardo-trago bat egin bear zutenean ere, alkarrekin joan oi ziran beti trabenera.

Nik ez dakit zer-aitzaki izango zuan orduan gure aitak, Don Jose, bere sendagille lagunak au esan zionean: ardoari uko egin bearko diozu oraingoz beintzat, Jose Mari...

Askar asmatu zuan gure aitak estutasun artarik ateratzeko bidea.

Joan zan Mieleneko tabernara ta onela esan zion bertako tabernariari: Don Jose'k zera esan zidak: ardoari uko egiteko oraingoz beintzat, eta ezingo, diat aren-aurrean ardorik eskatu... Arekin etortzen naizenan bada, "manzãillea" eskatuko diat nik... Ik, ordea, ardo-zuriz betetako baso bat ekarriko diak kutxarilla batekin.) Erain batzuek emango zizkioat edan aurretik eta kitto...! Orrela pozik izango dek Don Jose eta baita ni ere...

Orduan, egia esan bear baldin ba'da, ez zan gaur bezein maiz jaunartzen. Eta gizonezkoak gutxiago...

Ba'ziran ordea, emakumeak noski, gure aitari arren da arren esaten ziotenak: zuk sarriago jaunartu bear zenduke, Jose Mari. Eta baita gure aitak askar-asko erantzun ere: lan ere, erliki bati muiñ-ematera bezela joaten zerate zuek jaunartzera...

Erreumaren eraso-aldi mingarriak izan oi zituan iñoiz. Eta olako batean, miñez lertu-bearrean zegoan batean, apaizgai bat joan zitzaion oe-albora ta zera esan: Jaungoikoa'k geien maite duenari ematen dizkio askotan min auk, Jose Mari... Eta gure aitak: Ara, Juan Jose...! Naiago nik ba, ori ala izatea, Jaungoikoa'k, momentu ontan beintzat, ni baiño maiteago izatea...!

Eta 1955-garren Azaro'ko 14'ean il zitzaigun Jose Mari Albisu Sarasola, gure aita, iñori lanik eman gabe, il ere. 73 urte zituan.


Ez zuan etsairik izan, ta iñork ez zuan bera ere, etsaitzat euki...!

Goian bego...!

Auetxek dira nik gordetzen ditudan aitaren oroipenak... Jose, nere anaiak eta Paulita nere arrebak beste asko gordeko dituzte noskj.

Dana dala, maitasunez egin det nik nere lantxo au, eta ez det uste iñungo geiegikeririk esan dedanik bertan. Bago ba, dagoan bezelaxe.

Anastasio Albisu Ayerdi



ANASTASIO ALBISU'RI OMENALDIA, AZKOITI-N

Urteak daramaz Azkoiti'n Anastasio Albizu Ajerdi gure adiskide eta "Euskerazaintza" aldizkari onetako idazle jator eta ugari eta apaiz zintzoak.

Urteak eta ez danak giro aizetsukoak.

1915 urtean jaio zan Lazkao'n. Aita, Jose Mari, lazkaotarra; ama, Mercedes, ataundarra.

Apaiz egin eta 1943 urtean izentatu zuten Azkoitirako. Beraz 51 urte parroki baten. Aurrez urte bete Araba'ko Fontetxa'n eta beste iru Pasaia'ko Trintxerpen.

Esatea erreza da, baiña erriak omenaldi bat eskintzeko, lana egin bear izaten da eta jgaro diran urteetan, esku zuzena edukitzen jakin ere bai, eta lagunartean bizitzen, eta erriari norbere alegin eta maitasuna zintzo erakusten irau.

Eta berak, bere itzaldietako baten diona, nere apaiz izate onek ez dit iñungo eragozpenik ipiñ nere aberria ta izkuntza maite-maite izateko.

Omenaldi eguna Irailla'ren 9'an izan zan. Benetan errikoa. Meza eta bazkaria.

Ba dakigu omenaldiak ez duala aizetu, ez arrotu, ez eta lanerako gogorik kendu.

EUSKERAZAINTZA'k ezin besterik esan, gure artean, au da, guri lanak bialtzen luzaro jarraitzeko baiño.

Gaur, omenaldi eguneko bere itzalditxo bjar argitaratzen ditugu: Mezatakoa bat eta bazkal-ondokoa bestea.

Zorionak eta aurrera.

Mezatan esandako itzak:

Anai-arreba maiteok:

Utzi dezagun gerorako omenaldi-kontu ori, eta jo dezagun orain Arantzazu'ra.

Arantzazu'ko, Arantzazu'ko

eliza eder aundia,

zure barnean egin bait-zuan

Ama Birgiñak kabia...

Kabi ortantxe gerostik degu

gure Zaindari maitia

gipuzkoarrok ain-maite degun

Arantzazu'ko Maria.

Benetan esango dizuet: nere gaurko sarrera au idazteak, sekula ez-bezelako lana eman didala... Izan ere, eta kondairak esaten digunez, Arantzazu'ko Amari zor dio; batez-ere, Euskal-erriak, oñaztarren eta ganboatarren arteko pakea! Onela bait-dio bertsolariak:

Oñaztar eta ganboatarrak,

beti burruka bizian,

Euskal-erria zeukaten aiek

il-zori penagarrian...

sorgiñak berriz, beste aldetik

Jaungoikoa kendu-naian...
Amabostgarren gizaldi artan
on gutxi zan gure errian...

Eta pakearen gai orri, eldu nai izan diot nere sarrera au idaztean... Izan ere, gaurko Euskal-erria'ren ikuspegiak ez dit poz aundirik ematen. Goibeltasuna baizik! Ez bait-degu, gure artean, guk naiko genduken pakerik...

Orregatik, eta orrialde asko idatzi ondoren, au gogoratu zait azken batean: ondo dagoala, bai, Arantzazu'ko Amari pake ori eskatzea, baiñan ez degula pake ori gure artean ikusiko, guk, euskaldun geranok, naiko ez degun artean... Eta gaurko beintzat, ba'dira gure artean ere, pake ori nai ez duten euskaldunak... Eta pakerik gabe... eta burruka bizi batean bizi dan erri batek... ezin dezake, inñolaz, aurrera egin...!

Bestalde:

Begiak kanpora begira ditugulako-edo, askotan besteegan ikusten ditugu, gure erri onen egoera-tristearen zergati guztiak... Eta guk-geurok ez degu, askotan, ezertxo ere egiten, gure erri au egoera triste ortatik ateratzeko. Eta au ez da noski, euskaldun batentzat, jokaera jatorra...!

Ala ere, ez det nik uste, gure erri onek aurrera egin dezan, eta pake ori izan dezan, gauza berezirik egin bear degunik guk... Bi auek dira, esango nuke nik, guk egin-bearreko gauzak: gure erri au biotz-biotzez maite izan, eta pake-bideak urratzen saiatu gure erri onek aurrera egin dezan...! Eta ortarako ez da naiko Arantzazu'ko Ama oni pakea eskatzea...! Bear-bearrezkoa da ere, guk, gure aldetik zerbait egitea... Gure arteko burrukak ez bait-digute pakerik ekarriko, ez-eta gure aberriaren aurrerapenik ere... Alderantziz baizik...!

Eta bein, gure aldetik alegin guztiak egin ondoren, orduan izango degu, eta ez lenago, Arantzazu'ko Amari, gure erriarentzako pakea ta zoriona eskatzeko eskubidea...! Ez aaztu, zeruko euriak ez duala fruturik ekartzen, gié zonak soroa landu ez ba'du leen...

Anai-arreba maiteok: biur ditzagun egi, bertsolariaren bertso auek:

Arantzazu'ko Ama Birgiña,
emen nator ni kantari,
zure omenez egin ditudan
bertso auen abeslari...
Euskaldun arten, nai nuke azaldu,
gaurko onetan nik garbi
Euskal-erria'k zenbat zor djzun
Arantzazu'ko Andra Mari...

Edo-ta beste au:

Egun artatik, euskaldun danok
pakean bizi ba'gera
zuri eskerrak, Aloña goiko
Andra Mari biotz-bera...!

Arantza-gaĩñean agertu ziñan Arantzazu'ko Maria Birgiña, eman zaiozu Euskal-erria'ri, eta eman zaiguzu, zure zaindaritzapean bizi geran euskaldunoi, zoriona eta pakea...!

Ala izan dedilla Arantzazu'ko gure ama...!

Arratsalde, bazkari-ondoren esana:

Eskerrak biotz-biotzetik...!

Bañan egia esan bear baldin ba'det, ez det uste onelako ospakizun bat merezi-izateko, ezertxo berezirik egin dedanik...

Neretza, gauzarik naturalena da, norberak bere aberria maite izatea, ta bere-berea duan izkuntza landu ta maite izatea... Eta bi oietxek izan dira, nik nere bizitzan, geien-bat maite jzan ditudan gauzak...

Egia da, apaiza naizela ere, ta nere ustez saiatu izan naizela ere, nere apaiz-egiteko ori ondoen betetzen nere akats eta guzti...

Bañan ez det sekula pensatu izan, nere apaiz-izate orrek iñungo eragozpenik ipintzen zidanik nere aberrjarenganako eta nere euskerarenganako maitasunean...

Alderantziz baizik...! Jesus'ek berak bere abarriaren ondarena ikustean negar egin ba'zuan, zergatik egin bear ez nuan nik...? Eta zergatik alegiñak egin ez, gure erri au jasotzeko...?

Ez naiz politikari bat: aberri osoaren erantzunkizuna bere gain duan politikari oietako bat bezela...! Njk landu-bearreko lurra, baratza txiki bat bezelakoa izan da... Eta ortxe saiatu naiz, apaiz bezela ta euskaldun bezela, lan egiten...

Ala ere, ez det uste iñor baztatu dedanjik, gauza auetan nik ez-bezela pensatzen zualako. Ez...! Nere ustez, besteekin izan ditudan artuemanetan, ez nau politikak erabilli, apaiz-izateak baizik... Eta apaiz bezela, ez da neretzat, ez gorririk eta ez zuririk izan, ez ezkertiar eta ez eskubiko... Danak izan dira neretzat, ala uste det, Jaungoikoa'k nere esku ipiñi zuan artaldeko ardi...! Eta ez nuke, iñori ortan miñik-txikiena eman baldin ba'djot, benetan barkamena eskatzeko lotsarjk izango...!

Bañan leen esan dedan bezela, nere apaiz-izate onek ez det iñungo eragozpenjk ipiñi nere aberria ta izkuntza maite-maite izateko. Ez bait-daude bi gauza auek alkarren aurka...!

Orregatik, eta ezer berezirik egin ez dedalako, ez det uste onelako goratzarrerik merezi nuanjk... Jaungoikoa'k apaiz eta euskaldun nai izan nau, ta orixe izaten saiatu naiz...

Eskarrikasko ba, zueri. eta iñor mñndu izan ba'det nere jokabide onekin barka nazala eskatzen diot biotz-biotzez.

Eskarrikasko...!

Berri emale: Anes

AMOROTO JAIETAN

Erriko beti aundikiro ospatu dan jai barru inguruan beste bat jarri genduan aurtan: nire omenaldia, Uztaillaren iruan.

Amoroto erri eder-ederra da, antxjñakoa, dakizuenez errionetan jaioa naz ni, 1909 Martiko 24an. Atxuriarte etxean. Nire aita eta ama etsiran emengoak, aita Markiñarra eta ama Axpe Arrazolakoa baño. Garai aretan Conpañi bat ebjllen gure mendietan ze mñneral egoan jakiten, batez be Anboto inguruan, eta nire aitak, gazte zala eta, Axpen aurkitu eban bizi laguna Markiñarra izan arren. Gero, gizaldj onen lenengoetan ezkondu ziran. An jaijo giñan gu bost

neba arreba: Brijida, Maria (nire eskola laguna, oindiño be Berrizen bizj dana), ni, Bizente eta Balentin, Atxuriarten jaio eta Amoroton eskolatuak, bateatu eta bezte Sakramentu artuak. Gero urteak aurrera, an eta emen bizi izanak. Gerrogo, ni amabi urteko nintzala, aitak Zornotzara ekarri ninduan Santa Barbara egun illun batean eta emen bizi izanaz ia-ia neure bizitza guztian, beraz Amorotokoa baizen Zornotzakoa naiz.

Urte asko ditudala-ta lepo gain, urte oneitan euskal idazle nazalata omenaldi ugari izan ditut. Illonen 3an Amorotok egin eustana ez txikiena, eder zoragarria baño, nik biotz biotzez erriari eta ospatzeko alegiñak egin ebezanai esker-tzen dautzedana: Ezker ona, beti ondo.

Amabiek ogei gitxiago an giñan. "Oletatik laster, an zan bide ganean, ONDO ETORRIA". Eta bidean gora jente azko etorren eleizarantza. Eleizea jentez bete bete egiñik. Altaran meza emolleak eta koruan kantoreak batez be, eurena egiteko. Altarean bost meza emolle, ni erdiko ta besteak laguntzaille. Mezea dotore eta abestua zan, itzaldia erriko apaizak, egin bearzana ederto egiñaz.

Mezatan koruak, oso ondo, Zornotzako bertsolari Amurizak jai onetarako egin ebazan iru estrofa abestu ebazan.

Gero plazea ase ase, jente entzulez bertsolarien ekltaldia, eder ederra. Ostean, Amorotok eta plaza arek entzun eben zerbait, ia-ia ordubete eta erdian. Erriak noizik bein bearditu clako ekitaldiak, eskolatzeko eta poztazunari berea emoteko.

Bazkaria frontoian.- Bosteun bat giñan guztion artean, gazte eta zar, etxe-ko eta kanpoko. Bazkaria Bilbo ingurutik ekarria, ugari eta garbi, guztiok gogotsu jan genduana. Onen ondoren barriro bertsolari saioa. Egotaldi ederra gure oitura bertso kantatseari emona. Izan zan an, zeri oiue egiña. Orduak emongenduzan arren, ez jakun luze egin. Uda zan baiña illuntzen azi zamar. Jaiari amaia emoteko garaia. Eta orrelaze izan izanbe; frontoi zabala utsituaz joian kanta kantari, alkarri ezku emonaz eta abar. Amaika azpaldiko arpegi ikusi genduan, eta plaza ondolik zear bidea artu genduan etxerantza.

Oindiño be bertso kantuak amaitzeko edo amaitunairik Amurizanrenak abestu ziran. Dana ondo eta jai aundiari egokionez.

Or geratzen zan Amoroto erri eder alsia iluntzean: or plazea, or fontoia, or eleizea bere antxiñako arte ederraz, or illobia, or Santa Barbara, goian, or Amorotoko baserri ta etxeak, zuri eta dizditsu, or nire erria barri eta eder.

Ni karmeldar naz, askorenartean lenengo ordena etorria. Aitak ekarri-nindun Larrara, emengo ikastetxean amorotar beste batsuen artean ikasketak egiteko. Emen ziran nire aurretik Markiñar bi eta nire etxeondoko TXOPITEKO beste batzuk. Ementze asi nintzan jkaste bai erderaz, latinez eta beste izkuntza batzuk geure izkuntza ederra bertan bera itxibarik. Nik etorri nintzanean ez nenkian euskera ezik. Eta ori, neure izkera obetzen, neure irakazleak lagundu eusten; liburuz oster, lekeitiar batek, emen pozik aitatzen dodana: nik, osaba bat neukan bertan, Santi Mendiguren, neure aitaren arrebarekin eskondua "Santi JAtetxea" Azpiri kalean, oso abertzale zintzoa, arek euskerazko liburuak bialtzen eustazan: Azkue zanaren "TXIRRIDAK" eta.

Urteak aurrera eta gizona ezta betikoa. Orixegaitik agur zuri gogo-gogoz. Nire otoi eta erreguetan beti izango zaitut biotz-biotzean.

AGUR AMOROTO.

Aita Onaindia



IZTEGI JATORRAK AZTERTZEN

Balio ete dabe gaur, oraintsuarteko gure Izkuntzalarien Iztegiak?

Jo ta su gabiltz euskal itz jatorrak bastertzen, eta gure esan nai eta esan bideak auzo arrien itzekin kutsatuten.

Ez dakit beste erriren batek sekula erabili ete daben erlojuan aurkako ekiñik, guk darabilgun lez, norbere izkuntza jatorra erderatzen.

Dana dala, guk gureari ten eta oraindik pozik emoten doguz orduak lengoei jarraitzen.

Azkue aundiaren Iztegia aztertzean, itz batzuen utsunea igarrita daukat.

Bera eta gure Txomin Agirre, auzokide eta adiskede min izanarren, eta alkarren barri ondo jakiñarren, ba daukaz utsune batzuk, nire jaioterrian edo ta inguruko itxas errietan ezagutzen diran itz batzutan.

Besterik ezean gaurko egunetako izkuntzalari ausartak Iztegi zarrei gatzat emon baiño len, galdu ez daitezzen be, lagunartean zabaltzea bidezko deritxat.

A

Abor =	Itxas esakeran, ezker alde. Babor.
Agagain =	Belak eskegi edo lotzeko agaetan ibilten dana. Mastilero.
Agaka =	Makillaka. A palos. (Txomin Agirre'k erabilten eban).
Ainguratoki =	Ontzia lotzeko toki egokia. Kai barrua. Ondartza. Fondeadero.
Aize Oial =	Ontziak aizearen mende erabilteko belak. Vela.
Akats =	Utsune, kakua. Defecto, falta. Azkue'k erabilten dau, baiña beste esan-nai oneitan: tajo, mella, cacho, cola de melon, peldaño, tarea o pico de cuentas.
Alatean =	Ur gaiñean, azalean. Flotando.
Albateta =	Parrokian, alboko atea. Albatetatik sartu, esaten da, nai ta ate bakarra egon. Albatetako atea zabaldu. Puerta de un lado de la parroquia.
Altos =	Joko baten, bardin. Empate en un partido.
Allostu =	Jokoa bardindu. Empatar un partido.
Amandongillak =	Aragiagaz egiten diran pelota txikiak. Albondiguillas.
Amari ez emon =	Arrantzaleak diru partilla egiten dabenetan, etxean ez emotekotzak banatzen daben dirua.

	Dinero que los pescadores retraen en sus repartos con la indicación de no entregarlo en casa.
Amure =	Bildurti. Kezkati. Amure egon. Receloso. Estar receloso.
Amure emon =	Lokarriak arindu edo ainbaten azkatu. Aflojar las amarras.
Andrakilleta =	Neskatxoen jostailua. Muñeca.
Anka egin =	Iges egin. Escapar. (Akesolo'k batzen dau Azkue'ren geigarrian).
Apan =	Zaratatsu. Afanoso. (Azkue'k "pandero" esan naiaz darabil).
Apetaldi =	Gurari. Ansia, deseo loco.
Ardau diru =	Arrantzaleak tabernarako gordeten daberen dirua, partillatik atarata. Dinero que los pescadores retraen de los repartos con la indicación de dinero para la taberna.
Ari meia =	Gizon bildurtia, makala. Espíritu apocado.
Arlanka =	Aingura, Zumaia'n, iru eutsigarridunari, angulet. Ancla.
Arlanpa =	Nasa ondotan, itxasora erasteko, arrizko beerakua. Bajada en los muelles, en plancha, para el agua.
Artalakatza =	Kortxo. Corcho. Txomjñ Agirre'k erabilten eban.
Artobero =	Oso-osoko, gaitzik bako gizon bat. Hombre tranquilo, sin inquietudes. Molesto y pesado. En Eibar dan sentido de aburrimiento. Artoberotu = aburrirse.
Atabaka =	Arrantzaleak tabakua gordeteko txalopetan erabilten daberen kaixatxua. Caja de madera usada por los pescadores para guardar seco el tabaco y otros caprichos.
Atako banda =	Azkue'k: urna de votación, cepillo de la iglesia, córbona. Kanporako ibillera. Rumbo a fuera. Azkue'k ain zuzen orren aurkako dan esan naiekoea agertzen dau, au da, atako banda barik, ateko banda.
Atarra =	Olgetako gogo, naastekeria. Ganas de juerga. Camorra.
Atxarrain =	Aitzetako arraiña. Pescado de roca.
Atzaparra =	Eskuko beatzak. Dedo. Ondarroa'n bardintsu erabilten dira atzapar eta atzamar.
Atzazkal =	Atzamarretan min edo zaurietarako gaiñetik ipinten dana. Dedal para las heridas de un dedo o para librarle de humedad.
Atzeko =	Itxas ontzietako patroia, lemazaiña. Patron de embarcación.
Azartona =	Azkue'k: cola de vestido, placenta. Zoriona. Buena suerte.

B

Baka =	Arrantzan, arrasta-eran, bakarrik ibiltzen dan ontzia. Barco de arrastre que trabaja solo.
Bataparrabi =	Pelota jokoan erabilten dan itza. Palabra usada en el juego de la pelota. Al perder un tanto entre dos, cuando se juega en eliminatorias en

	cuadrillas, sin poder definir claramente a quien lo toca perder, siguen jugando los dos con la condición de retirarse ambos si el sacador les hace tanto.
Bazkaldari =	Bazkaltzeko laguna. Comensal.
Bazkarraldra =	Txomin Agirre'k bazkaltzera deitua izan danari ezarten dautsa deitura ori.
Berandutu =	Berandu egin. Hacerse tarde. (Akesolo'k batzen dau)
Bere bostean =	Norbait, bere artean bakarrik izketan edo zerbaitetan. A sus anchas.
Besigute =	Besigu denpora. Temporada de besugo.
Bixika =	Neskatoen jokoa. Juego de niñas, con cositas.
Bolintxa =	Sare bat. Bolinche.
Bozinga =	Uretan olgetan ibiltea. Jugueteo en el agua.
Brixak urten =	Gorritu, berotu. Sonrojarse, salirle los colores, sudores.
Bunbat =	Danbada bat. Golpe. (Txomin Agirre'k erabilten eban).
Burutik berakoa =	Gaixoa. Meningitis. (Azkue'k: constipado).

C

Dar-dar =	Ukapen. Negación. (Azkue'k ez dau ukapen lez erakusten, "temblor" baiño.)
Dardarakua =	Gozoa. Flan.
Deilari =	Deia joten dabena, arrantzale errietan. Señoero.
Deizale =	Arrantzale errietan, deia joten dabena. Señoero. (Txomin Agirre'k Azkue'ri egindako karta baten diño, ez dabela uste Txomin berak ezik beste iñok itz ori erabili dabenik).
Despiska =	Arraiña saretatik askatzea. Desmallar la pesca.
Diamotxu =	Esakera bat. Diante.
Dsanga =	Uretara jaurti igari egiteko. Saltar al agua para nadar.
Dsapart =	Norbaiteri gogor oratu. Apresar, coger a uno bruscamente. (Azkue'k: bofetada).
Dsastada =	Zirikada. Inyección.
Dra =	Igarri. Acertar. (Azkue'k: variante de dira).
Dramio =	Norbait oratu. Alcanzar a alguno. Acertar.
Dsinga =	Batel baten atzean erramu bakarragaz erramutan (Arraunean) Remar con un remo en la popa de un batel pequeño.
Dsingaleku =	Jantzi baten atzeko etena. Se dice por la parte abierta atrás en un traje o abrigo.
Dongillak =	Pelota txikiak. Pelotitas.

E

Egata =	Arraiñaren ego aldea. Hijada. Aleta abdominal. (Azkue'k onetara diño: ruido que precede a la piedra que cae de las nubes.
---------	--

Enparu =	Gogait eragin. Enparata laga. Enparu eukj. Fastidio. Dejar hastiado. Tener hastío.
Enplastatu =	Enplastoz bete. Emparedar.
Erlaizea =	Olatu txikiak jasoten ditun aizea. Viento flojo.
Ernani =	Enara. Golondrina.
Erramu =	Arrauna, Remo.
Erramulari =	Arraunlari. Remero.
Erramute =	Arraunean egiteko era. Remada.
Erria =	Beratu. Arriar.
Erru =	Eutsigarri. Tentáculo. Azkue'k: culpa, brío, valor, dificultad, consecuencia; abundancia, flema, gargajo, lodazal, piel que se renueva en la convalecencia.
Esku zurda =	Eskurako aparixua. Aparejo de mano. (Tx. Agirre'k erabilten eban)
Etxada =	Sarea uretara jaurtitzea. Arrojo del cerco o red a la mar.
Ezne tela =	Geuna. Nata e leche, o mejor, capa de la leche hervida.
Ezpeta =	Aga luzea, arrantzarako. Vara larga que se coloca en los lados de la embarcación para sostener a los aparejos.

F

Firo =	Kanpoan geratu. Hacer falta y quedarse fuera.
Fit =	Ezer gabe. Sin nada.

G

Gandu =	Andituera. Ampolla, hinchazón. Azkue'k: catarata, bruma, paño de los cristales, aureola, desbrozar el lino, hierba mala.
Gantzeru =	Lapurra. Gantz ataratzallea. Sacamantecas, bandido.
Garagarrak egin =	Astoa beian, arrastaka ibili. Revolverse en el suelo.
Garduera =	Kardua. Cardo dulce. (Azkue'k: kardabera).
Geuna	Ezne egosiaren gaiña. Nata de la leche.
Goaldi =	Gooldia. Alga marina. (Azkue'k: ooldi).
Gogapen =	Pentsamentu. Pensamiento. (Txomin Agirre'k erabilten eban).
Gosekil =	Gosez bizi dana. Hambriento. (Akesolo'k, Azkue'ren geigarrian: Gosekilla = goseak illa).
Grak eta blast =	Joko bateko esaera. Acierto y tumbada. Dale y fuera. (Juego en que se pone un cuchillo metido en tierra, sobre una raya y se arrojan monedas sobre el mismo, siendo el premio mayor el dar al cuchillo y tirarle. Si solamente se toca, se dice: grak).
Gurma =	Bruma. Laiñoa. Niebla.

Ingelesian =	Ume jokua. Diruak marra batera jaurtiten. Juego de niños, con monedas a tirar sobre una raya.
Inka =	Moskortu. Emborracharse.
Inka =	Orma baten irarri. Fijar, pegar.
lparra batu =	Dardaraka jarri. Pilar tembleque.
lpartu =	Dardaraka jarri. Tartamudear por exceso de vino, emoción, etc.
lpitxa kalia =	Kale txikia. (Likona torrearen aurrean). Calle pequeñita.
ltsu ltsuka =	Joko bat. Edo gertaera bat. A ciegas.
ltxasate =	ltxasorako sarrera edo urteeta. Barra, entrada al mar. (Tx. Agirre'k eragbilten dau).
ltxasote =	ltxasoratze. Salida a faenar.
ltxastriku =	ltxasoko kirikixua. Erizo de mar.
ltxasbarru =	ltxas zabalean sartu ondoren. Mar adentro.
ltxasbide =	ltxasoan oi dan bide, zuzenbidea. Ruta marina.
ltxasertz =	ltxas egala. Costa.

J

Jirauletara =	Batekoz bestera. Al revés.
---------------	----------------------------

K

Kabillara =	Txoria. Gabiraia. Gavilan.
Kakota =	Moskorra. Borrachera.
Kakotu =	Moskortu. Zikindu. Emborracharse.
Kaixarra =	Kaio arra. Itxas txoria. Gaviota macho.
Kala =	Arrantza tokia. Cala. Caladero. Arrantzalien artean kalak, arrain tokiak, askori emon izan dautse nortasun bat. Ala: Andra kala. Arrain kala. Besigu kala. Kostarren kala. Justo kala. (Gaminitz'en) Motriku kala. Tribis kala. (Izaro) Kala beuna = Plomo para caladeros. Kala gizona = Buen pescador. Kala pitxi = Mariposa. Kala potin = Calera. Kala txori = Gaviota.
Kepireska =	Umeen jokoa, zer eskatuta. Juego de cara y cruz.
Kepireskaku =	Zer eskatuko ibilteko erabilten dan posporo kutxaren azala.

	Parte grabada de la cajetilla de cerillas que sirve para jugar a cara y cruz.
Killoi =	Un quillón.
Kinkiloi =	Kopuru arrigarri bat. Cantidad exorbitante.
Kinkina =	Zinkinkeria. Suciedad. Melopea.
Kirrixka =	Karramaru baltz txikia. Cangrejo negro de los puertos. Azkue habla de "crujidos", etc.
Koasta =	Ontziei, gogortzeko, atze ta aurrean ipintzen yakoen burdin edo egurra. Codaste.
Kokon =	Trapalotea. Gordinflon.
Korren-korrenka =	Ume jokoa. Juego de niños
Kortzeleko mamuak =	Ondarroa'ko eleiz gain inguruan dagozan irudiak. Fantasmas de la cornisa parroquial de Ondarroa.
Koskan erosi-saldu =	Ordain orde, makilla baten egiten dan koska ezaugarri dala erosi edo saltzea. Comprar o vender fiado.

L

Labako =	Okiñei, ogigiñei deitura. Panadero. De la panadería.
Labamin =	Ogia jagitekoa. Levadura.
Labatai =	Labako atadia. Portal del horno.
Lantxe =	Euri mea, laiñoa lakoa. Especie de neblina. Lluvia débil.
Laskitu =	Des-egin. Desmenuzar, deshacer.
Lastua atara =	Gogor jo. Pegar fuerte.
Latiña =	Arrantzal;ak erabilten daben bela bat. Vela de embarcación.
Latiñeko palua	Latiñeko belaren aga. Mástil para la vela latina.
Lazka =	Kendu, lapurtu. Sisar, quitar un poco a escondidas.

M

Malluki =	Marrubia. - Fresa. Mallu txikia - Martillo pequeño
Mandazketa =	Mandoak ura edateko askak. Abrevaderos.
Manjuba =	Arrain moltsoa. Bolsa de pescado.
Mankal jasote =	Ilren azken eleizakoa. Ceremonia religiosa a la terminación del luto parroquial por un difunto.
Manu egon =	Estar flojo, no tirante.
Marmitako =	Atuna bitarteko dala egiten dan lapikokoa. Cocido a base de bonito, patatas, etc, típico de los pescadores.
Mengeldu =	Bigundu, makaldu. Debilitarse.

Mongoliño =	Magurio. Caracoljillo. Carraquela.
Morkona =	Andre itxusi, zikin. Mujer sucia, grosera.
Morkondu =	Baldartu, zikindu. Abandonarse, caer en suciedad.
Muskar =	Ondo, kirten. Aza muskar. La parte del tallo de una col, berza, etc.
Mutxarri =	Arrain txiki bat. Pez sin sangre, pequeñito y debil. Azkue: Mutxarrerri.

o

Obako =	Joko bat. Un juego.
Obildu =	Batu. Ovillar.
Ogi-Ogi =	Labamiñaz erabili ta jaso gabeko ogikiñaren zatia. Masa sin cocer de harina tratada con levadura y sin fermentar.
Olezko popia =	Jezarleku baten azpia, anka barik. Base de una silla, que las rederas ponen sobre el suelo para sentarse.
Olezko popia =	Berez otza dan neskati bat, ikutu eginda be aldatzen ez dana. Mujer temperamentalmente fría y que no hace caso de determinadas carjcias.
Olezko oñetakuak =	Olezko traskuak. Choclos de madera.
Olona =	Belakia. Tejido para velamen. (Azkue: Olana).
Ondar azpiko	Arraiña. Bai eta ondartzetan ibiltan dan zomorroa, ikutu egin ezkeron min andia emoten dabena. Pez similar al traquino. También insecto muy dañino de las playas.
Ooldi =	Gooldia. Itxas bedarkia. Alga marina.
Otanti =	Arpegi andi. Carota.
Otzakil =	Otzak errez kikilduten dabena. Friolero. (Akesolo'k = frío lento).
Ozkil =	Otzakil, bai eta nastetsu, setatsu edo antzeko. Azkue le da significado de friático, enclenque, persona apocada, pero también se llama así al individuo ensimismado, terco.

P

Pael =	Txalopetako beia bardintzeko ipintan dan ola. Panel para igualar la curvatura del fondo de una embarcación.
Papuak =	Pautsak, okots ordeak. Papos. (Azkue: mejilla, carrillo, kerida, papada de cerdo).
Peazu =	Andi. Ori da gizon peazua! Grande. Erderazko pedazotik etorriko da.

Pizketa =	zatitxo bat. Pedacito.
Pla =	Busti-busti egiña. Todo mojado.
Pla-Pla =	Zabal zabalik, Abierto. Anchoas pla-pla, abiertas rebozadas.
Popakeixu =	Zirin, geldi eziña.
Popakoxu =	Inquieto.
Potozorri =	Txatxar, estu, gizon txikia. Ladilla. Hombre apurado, fastidioso.
Prakaman =	Gizon lodi, prakazabala. Regordete, abierto, de pantalones anchos.

S

Sagar ume txikin =	Sagarra jan ondoren geratzen dan ondakiña. Residuo de la manzana. Quizá degeneración de "Muskiña", pero en Ondarroa se dice así.
Sapalan =	Azpi lana. Trabajo de engaño.
Sare mamiñak =	Sare zatiak. Pedazos gruesos de la red.
Sare papuak =	Sare geigarriak. Añadidos de la red.
Sarramuskada =	Atzamarrekin urratzeko egitada. Acción de refunfuñar.
Sarrazkio =	Arrerako asarrea agertu. Amenazar de entrada.
Sartu urtenak =	Ikustaldi laburrak. Visita rápida. Entrar y salir.
Sazkildu =	Txiki txiki egin. Dejar una cosa hecha birria.
Serotetxe =	Elejz zaintzallearen etxea. Casa de la señora.
Sidol =	Zirikatzalle, adar jotzalle. Tentador. Bromista.
Sjrol =	
Sorgintsua =	Sorgiñen egitada. Brujería.
Sorgin ume =	Kajatik ekarritako umea. Niña de la inclusa.
Sota patroia =	Ontzi bateko patroia ren ordeko. Patrón ayudante.
Suezta =	Uretako kapela. Sombrero impermeable para el mar.
Suge Landara =	Ormetan ibiltan dan sugekia. Lagartija.
Susunkorda =	Ezegaz konturatu barik. Pensando en Babia.

T

Takin =	Une. (Akesolo'k, Takean. Takean-takean= menudo). Instante.
---------	---

Tantza =	Esku zurda. Pita.
Tenteko =	Aga Luzea. Palo largo.
tertixuan =	Aldartzeko, konparatzeko erabilten da. En comparación de...
Tollanak emon =	Gogor jo. Pegar fuerte. Tolla arrain gogorra da, ta arrapatuta gero, ilteko, gogor jo bear izaten da.
Tonk =	Gelditze. Parón.
Trebol =	Aparixuak lotu edo batzeko egurra. Traola. Cuadrilátero de madera para aparejos.
Tripjtrapu =	(gela. Rana.
Troku =	Zati bat. Un pedazo.
Trunpail =	Aragi anditze bat. Chinchón. (Azkue: Trumpilo).
Txangj1 =	Etzegille?
Txankar =	Ainka luzedun gizona. Hombre de pierna larga.
Txarta-Txartaka =	Saltoka. Saltando a la superficie (peces)
Txartona =	Txartu. Empeorar. Aumentar el mal.
Txatuela =	Ultze txikia. Tachuela.
Txibjkorain =	Txibitarako aparixua. Aparejo para la pesca de jibiones.
Txingaleku =	Txamarraren etena, atze aldian. Corte de la chaqueta, gabardina, etc., en la parte trasera.
Txintxirrika =	Umien joko bat. Jugar con un pedazo de piedra lisa, pasando cuadros.
Txintxoleta =	Arrain andi bat. Chincholeta. Pez.
Txipar =	Gardaratik ataraten dan ur beroa. Agua a presión que se extrae de la caldera.
Txjrikilloia =	Izen ori daroan ume jokoan erabilten dan zotza. Palito que se emplea en el juego de la toña.
Txirikillote =	Ik. Txirikilloia.
Txitxiña =	Gizonaren txisbide txikia. (Umeena), Aparato genital (menudo).
Txoko =	Gertaera ona. Buena ocasión, oportunidad.
Txurla =	Batelak erabilten daben albo-alboka. Balanceo de las embarcaciones de un lado a otro.
Tuer =	Begi okerra edo bakarra. Tuerto.
Tukur =	Kerten. Tallo.

Tuntux = Tente. Zutik.
En varios juegos, situación de la moneda o cuchillo al quedar empotrado y de pié.
Azkue: Tuntuiz = boya.

U

Ume txikin = Frutu baten ondakiña.
Residuo de fruta, que se arroja.
Urandiko arrain = Urandietako arraiña.
Pez de mar profundo. Fig., hombre de mucho prestigio.
Utzalapiko = Diruak gordeteko kutxatxoa.
Hucha.
uzkar ume = Sendi baten azken jaioa.
El último nacido de los hijos de una familia.

Z

Zas = Utsik. Zasian ibili. Diru barik ibili.
Sin dinero.
Zazkildu = Zatitu.
Hacer pedazos, añicos.
Zazpiki = gizon estu, keixua.
Nervioso, inquieto.
Zibot = Barri.
De estreno. Azkue: capullo de gusano.
Zirin-zirin = Beruzkoa.
Diarrea.
Zirrimarra = Nastea.
Revuelto. (Azkue: a la ligera).
Ondarroa'n esaten da: Zirrimarra andia dauka itxasoak.
Hay mucho mar de fondo.
Zirrimarran dabiz olatuak.
Las olas andan atrás y adelante.
Zirzarteko = Bat bateko.
Tajante. De rompe y rasga.
Zixe = Atzerantz eragin.
Ciar. Frenar.
Zoraize = Gangarkeri.
Venada. Locura pasajera.
Zorogangar = Zorakeriz beteta.
Loquillo. A lo loco.
Zurda = Tantza.
Crin. Pita para aparejos.
Zurdazkaize = Aize gogor, larri.
Viento fastidioso, muy molesto.
Zurtzilluak = Zudur zuloak. Fosas nasales.
Zuskulu = Eskuta leku. Escondrijos.

ARRUAZU'KO EUSKERA DALA-TA GORKA OBEJERO GANBOA JAUNARI ERANTZUTEN

Direla seiren bat egun jaso dut, Gorka, kanpoan ibilli naizelako, zuk Euskerazaintza erri-Akademiari (Getaria 21 B. Donosti) bidalitako eskutitza.

Poz aundiz noakizu zure gutun orri erantzun-ematera.

Gure irakurlerik geienek jakingo dute noski Naparroa'ko Sakana'n non dagoen zuek Arbazu esaten diozuten eta mapaetan Arruazu agertzen den erri polit ori. Alare, -ori ez dakianik izen bait ditteke- zure baimenarekin esango diet orrelako oiei Arbazu edo Arruazu, Etxarri eta Uarte'ren atean aurkitzen dela, -Etxarri Aranaz, Arbizu, La-kuntza, Arbazu, Liarte Arakil- Altsasu'tik Iruña'ra goaztela.

Ona emen, Gorka, zuk eman bezala, zure gutun orren itz goxo atsegiñak. Bai bait dakit zuen erriko euskera txukun politta euskaldun guztiei neri bezin atsegiña gertatu-ko zaiela, naiz, aita beteluarra ta ama arribetarraren seme izanik jatorriz naparrak naien au bazala naparrak izan ez.

Ikus, Gorka, Euskerazaintza gure Akademiko aldizkari ofizialean zure itzak berberak:

"Epaaa!

"Gorka nauzube, Arbazu'ko Euskera Taldia, Arbazu'ko euskeraren alde lan itten duun taldekoa.

"Latiegi'tar Bixente'k DIARIO DE NAVARRAn eskribitutako artikulu batien izen duu zuen berri. Bixente'k euskera errikoiairen alde lan itten duzutela esaten denez, zueidi eskribitzia pentsatu duu informaziyo geigo eukitzeko.

"Arbazu'n ere euskera "Batua" bestearen gañetik jartzen ari da. Umiek ikastolara juten die ta batuaz itzitten dube. Erriko jende nagusiya ta gazte batzu beiño ez duu Arbazuera itziitten.

"Ta olaxen gabilte, erriko oiturak eta gure euskera maiteari eutsi asmoz". Agur ta ikusi artio".

Gorka: Zuen mendietako gazta bezain goxoa gertatu zaku Euskerazaintza'ko akademilari guztioi, Arbazu'n akademilari guztioi, Arbazu'n darabikizuten lanketa bikain oien berri jakitea, Eta arren eskatzen dizut "Arbazu'ko Euskera Taldia" osatzen duten euskaltzale zintzo guzti oiei Euskerazaintza Akademiaren izenean eskerrak eta zorionak emateko.

Jarrai, iñorenganako bildurrik gabe, zuen erriko itura eta euskera zaintzen eta babesten. Ikastolan umeei "el batua" erakusten zaiela?

Ori eragozterik ez dugu, indarkeri zakarra-medio sartu ziguten izkera-modu orren alde jarri bait dire indarra duten guztiak Euskalerrian.

Zuek ordea erakutsi ezaiezute umeei arbazueraz itzegiten. Eta esa'iezute egiazko euskera Arbazuera dela, eta ez ikastolan zori txarrez erakusten den izketa berri ori.

Ona, Gorka, zuen artean jorratu itzezuten, sei gogoeta garrantzitsu:

1.^a Euskerak ez zuen "batasun" orren bearrik. 2.^a: Izkuntza bakoitzak bere batasuna du. 3.^a: Euskerak ere badu bere batasuna. 4.^a: "El Batua" es da batasun bat, Zuberoera eta Bizkaiera (geien itzegiten den euskera) zearo kanpoan utzi ditulako. 5.^a: Zuberoera eta bizkaiera sartuta ere ez litzake euskeraren batasuna izengo, euskerari dagokion batasuna ez dalako. 6.^a: "El Batua" latiñaren batasuna bait da! Eta latiñetik sortutako izkuntzena. Gaztelerarena, adibidez. Ez da Euskalduna; "Castellanoa" da.

Eta, orain, galde bat zuri, Gorka: "Zer egin dezake Euskerazaintzak" Arbazu'ko Euskera Taldia'ren alde.

Besarkada aundi bat Talde ortako guztiei.

ESALDI JATORRAK

(Bati SENPERRAK esan ondoren)

- Oyek aittu BEARRAK...

- BESTE EZER EGITEKORIK GABE JOAN NINTZAÑ.

- Ñora zoaz?

- Ama eritetxean gaxo dago, ta GABA EMATERA ÑOA.

(Batek egin zezakeana egin da ikusitakoan)

- Ori NIK EZ EGIÑGO...

- Atzo egun osoan TAMAÑA ORTAÑ parrandan ibilli, eta gaur goizean ORAINDIK ERE tente dabilta gero...

- Ama lo ba'dago, gelara EZIN SARTUKO NAIZ...

- Ondo, Joxe?

- Askok NAI BAÑO OBETO!

- ALAKO BATEAN, baimena lortu zuten: bi urte igaro ziran.

- Berebillak LASTERKA BIZIAN DOAZ.

UTSIK EGIN GABE an izango naiz.

(Larrialdi luze baten ondoren)

- Egunak erreguz igaro zjtuzten, eta ALA BEREAN gabak.

(Etxe batera lan-eske joan eta ara bidali zuanaren txartela ematerakoan)

- Lendabizi, txartela LUZATU ZIOÑ.

- Amona GAXORIK DAGO, eta BERE ONETIK ATERATA bezela aurkitzen da; ematen dituan erantzunak, batere GOZORIK GABEAK dira; dana PURRUL_IAKA bezela esaten du.

- ESKU-MUTURREAN ZER BEZU?

- ERORKA BATEN OÑDORIOA.

- Erorka?

- Bai, gizona! Klean izparringia irakurriaz niñoala, KOSKA batekin ESTROPOZO EGIN, eta MUTURREZ AURREA erori nintzan, AÑKAZ-GORA geldituaz.

Oñatibia'tar Manu'k jasoak